

Juan Antonio Ubillos

**KRISTAU DOKTRIÑ
BERRI-EKARLEA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Christau doctriñ berri-ecarlea*, Fray Juan
Antonio Ubillos (faksimilea). Euskaltzaindia, 1989

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=421>

KRISTAU DOKTRIÑ BERRI-EKARLEA

kristauari dagozkan egia sinis-beharren
berria dakarrena

Jaun Claudio Fleuri abadeak argitara atera zuanetik
Frai Juan Antonio Ubilloskoak Euskerara itzulia

Bi parte, edo zatitan berezia, ta erdiratua. Lendabizi-
ko zatiak dakar, Jainkoaren lege zarrean, ta berrian
gertaturikako gauzen berri laburra. Bigarrenak, Kris-
tabak jakin, ta sinistu behar dituan, egien erakustea,
ta ikas-bidea.

Behar bezala.

Tolosan: Librugille Francisko de la Lamaren etxean,
1785 urtean.

HITZ AURREA

Hizkunz bakoitzak ditu, hitzegiteko, berezko, ta bere etxeko hitzak: gure euskerak beinzat bai. Onez aterontzeko geienak besterenak ditue. Ezpere begira Erderari, ta ekusiko dezu, geienak latin-hitzkunzare-nak dituala, ta oez gañerakoak, nok daki nongoak, ta norenak. Berezko hitz oek, hitzkribitzean, ta esatean, ezarri behar dira, bakoitzari dagokan, tokian. Euskeraz darauskizunean, euskerazko hitzak ez badarabil-tzatzu, zure erausia hitzunea, edo *barbarismoa* dala esango dizue; ta hitz bakoitza, dagokan tokian sartzen ez-padezu, zure hitz-jariori araututsa, edo *Solezismoa* deituko dioe; Bost onelako enzuten degu euskerazko sermoietan! Ala baña, zori gaiztoan dakuskun bezala, euskaldun gitxik nekatu nai du euskerazko hitzak billatzen, ta bakoitza bere tokian ipintzen. Euskerazko hitzak ongi ez-padirudi, edo oitua ez pada; hura utzi, haren ordean artu diteke, ark esan nai duana, adiraz-teko adiña dan, beste bat. Adizazu orain, gizon andi jakintsu batek egiteko onen gañean diona. Gizon hau da...

Fr. Laurentius a Villavicentio, in suo opere *De recte formando studio Theologiae, lib. 3. cap. 8. pag. 391. Edit. Noviss.*

Quid dicam de sermone patrio? an non et huic sua relicta est palestra, et arena? Maxime inquam. Nam quo quis sermonis patrii est peritior, et in eodem disertior, eo judicatur ad docendum populum magis idoneus. Ac decet omnino Conciobatorem aliquid supra culgus praestare in sermonis patrii munditie ac puritate: et non modo verbis quibusdam elegantibus ac exquisitis, verum etiam copia eorundem locupletatum prodire. Puritatem sermonis patrii non haurias, nisi vel ex familiari convictu eorum, qui terissime et nitidissime illum sonant, vel ex libris commendatissima Dialecto editis.

I IRAKURTZA

MUNDUAREN EZEREZETIK EGITEAREN GAÑEAN

Jainkoak bere itzarekin, ta bere borondatez egin zuan ezer-ezetik Mundua, bere gloriarako, edo bere izate andi ezin-ederragoa agertzeko. Sei egunean egin zuan Jainkoak Mundua, ta zazpigarrenean atsedean zuan. Gizona, egiteko lenago moldatu zuan lurrez gorputz bat, eta gorputzari eman zion, bere anzeko egin zuan, anima bat. Gizona da Jainkoaren imajiña, ta anzekoa; zeren Jainkoa ezagutu, ta maitatu dezakean, ta orretarako eguiña da guizona. Lenengo Gizonari zeritzan Adan: onen saiets-ezur batez egin zuan Jainkoak, beraren lagun izan behar zuan, emakumea; jakin zezaen biak, alkarri ongi nai beharko zioela, ta alkarrekin biak beharko zuela, biak gorputz bakar bat baizik, ezpazukeen bezala; eta onela egin zuan Jainkoak ezkontza, edo Matrimonioa. EVA zeritzan lenbiziko emakumeari. Adan, ta Eva, biak ipini zituan Jainkoak, Parabisua zeritzan, berjera, lore-baratza, edo toki zabal eder batean, zorionekoak bezala, atsegin kontentuz, ta behar zuen guziaz beterik an bizitzeko. Aukeran zeuzkeen, nai zuenean jateko, Parabisu arta-

ko fruta guziak; ta etzien Jainkoak debekatu, zuaitz, edo arbola baten fruta baizik. Larru-gorrian ibilliagatik, etziran batere lotsatzen; Etzuen alabaña gaitzkerik, ez eta gaitzerako griñarik ta gogorik. Il-gabe, ta neke gabe bizi beharrak ziran eren erara, ta noizbait eramango zituan Jainkoak, eriotzaren ortzetara gabe, emengo Parabisutik Zerukora. Gizon-emakumeaz gañera egin zituan Jainkoak Aingeruak: oek dira gorputz-gabeko ispiritu uts batzuek.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nork egin zuan mundua?

E. Jainkoak.

G. Zer zaz, edo zertatik egin zuan?

E. Gai-gabe, ta ezerezetik.

G. Nola?

E. *Egin bedi* esan, ta beste gabe.

G. Zergatik egin zuan?

E. Bere gloriagatik, edo bere izate, ta edertasun ezin-neurriarriak erakusteagatik.

G. Zer zaz egin zuan lenbiziko gizona?

E. Lurrez egin zuan gorputza.

G. Eta Anima?

E. Ezereztik.

G. Noren anza du gizonak?

E. Jainko berarena.

G. Zertako egin zuan Jainkoak gizona?

E. Jainkoa bera ezagutzeko, eta maite izateko.

G. Zer zaz egiña da lenengo emakumea?

E. Gizonaren saiets-ezur batez.

G. Eta zergatik ala?

E. Biak aragi batezkoak zirala adirazteagatik.

G. Zer zan Mundu onetako Parabisua?

E. Jainkoak Adan, ta Eva ipiñi zituan, lorezko

baratz, eta zuaitz frutadunez beterikako berjera eder bat.

G. Nolako bizitza izango zuen Parabisu artan?

E. Guziz zorionekoa.

G. Noiz il behar zuen?

E. Inoiz ere ez.

G. Zer gauza dira Aingeruak?

E. Gorputzik ez duen, ispirit-utsak.

II. IRAKURTZA

LENBIZIKO GIZONAREN BEKATUA

Aingeru guziak, Jainkoak egin zituanean, onak ziran, eta batzuek beti iraun zuen onean; baña besteak gaiztotu ziran, ta orregatik Jainkoak sekulako ondatu zituan Infernuko su-leizean. Aingeru gaizto oek dira Deabruaren Aingeruak, edo Demonioak, gizonai bekatu eragiten, edo bekaturako tentatzen diarduenak. Ispiritu gaitzkin oetatik batek, sugearen aotik Evari itzegin, ta janerazi zion sagar debekatua, ta Eva berak jan, ta janerazi zion bere senar Adani. Horduan Jainkoak madarikatu zuan sugea, ta adirazi zuan emakumeagandik etorriko zala, aren burua ausiko zuana; edo emakumeagandik jaioko zala demonioa garaitu, ta aren esku, ta eguin-al guziak galduko zituan, Munduaren zuzentzalle, ta salbatzallea. Adan, ta Eva, bekatuagatik Jainkoak Parabisutik atera zituanean, gelditu ziran txit gaizki; galdu zuen ala baña grazia, eta grazi onek eman zien Zerurako eskua, ta deretxa, galdu zuen Zeruko gauzen jakiundeia, erori ziran Infernuko etsaiaren, ta erioaren atzapar gaiztoetan; ta bekatuak asalatu zien, gutizia, nai-eragille, ta griña-

rekin gelditu ziran gaitzeron z makurtuak. Adanek etzuan izandu humerik, bekatu egin ezkeru baizik; ta orregatik aren humeak, ta ondorengo guziok, bizitzen asi horduko, jaio baño ere lenago, amaren sabelean arkitzen gera bekatuz zikinduak, ta bekatuari darraizkan, kalte ta neke guzien azpian.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nor da demonioa?

E. Bere egille Jainkoaren kontra jarri zan, Aingeru gaiztoa.

G. Eta zer kastigu eman zion Jainkoak?

E. Betiko sua.

G. Zertan ari da Aingeru gaiztoa?

E. Gizonak tentatzen, eta nola Jainkoa eren bekatuakin aserrera ziko duen, erakusten.

G. Nola tentatu zuan lenbiziko gizona?

E. Artu zuan etsai gaiztoak sugea, eta onen ezpañez esan zion emakumeari, jan zezala, Jainkoak eragotzirik zeukan, sagarra.

G. Eta zer egin zuan emakumeak?

E. Berak jan, eta gero Senarrari jan erazi.

G. Eta lan gaizto hau ekusi, eta zer egin zuan Jainkoak?

E. Madarikatu zuan sugea.

G. Nola kastigatu zituan Adan, ta Eva?

E. Parabisutik ateratzen zituala.

G. Zer agindu zien?

E. Emakumeak ausiko zuala sugearen burua.

G. Zer esan nai zuan orretan?

E. Emakumeagandik jaioko zala denboren buruan, demonioaren esku, ta indar guziak garaitu, ta galduko zituana.

G. Nola gelditu zan gizona bekatu eginezkero?

E. Guziz urrikalkizun, ta on-behar, ala animan, nola gorputzean.

G. Zer ziran, gorputzean ekusi behar zituan gaitzak?

E. Era guziko nekeak, eritasunak, edo enfermedadeak, ta eriotza.

G. Eta animan?

E. Jakin-eza, ta bekaturako gutizia, griña, ta jario makurra.

G. Adan ta Eva, Senar-emazteak, noiz izandu zituen humeak?

E. Bekatu egin, ta geroz.

G. Orrela gurasoen bekatu hau igaro zan humeetara?

E. Bai, humeetara, humeen humeetara, Oraindaño jaio diran, ta munduaren azkeneraño jaiokizun dauden, hume guzietara; ta orregatik, Jesu-Kristo, ta bere Birjin-amandrea ez, beste guziak jaiotzen dira, bekatu hau erekin duela.

G. Nola deritza?

E. Bekatu orijinala, edo jatorrizko bekatua, zeren datorkigun geren gurasoakgandik.

III. IRAKURTZA

UGOLDEA, TA LEGE NATURALA

Kain, ta Abel ziran Adan, ta Evaren lenengo semeak. Abel ona zan, baña Kain gaiztoa, ta bere anaia ona izatea ezin eraman zuana, ta orregatik kendu zion bizia. Kain bezala, aren ondorengoak ere izan ziran gaiztoak. Seth zeritzan, beste seme bat ere izan zuan Adanek, eta seme onen ondorengoak iduki zuen aldi batean Jainkoaren bildurtasuna, ta ezaguer; baña oek ere, ezkontzaz gaiztoakin nastu, ta gaiztotu ziran, ta orregatik Jainkoak artu zuan, guziak ugolde batean itorik uzteko asmoa. Sethen ondorengo guzien artean Noe bakarrik arkitu zan, Jainkoa urrikal zekikeonik. Oni bada Jainkoak adirazi zion, egin gogo zuan, munduko guzien galtzea, ta esan zion, egin zezala, onzia bezalako, Arka, edo kutxa andi zabal bat, egazti, ta abere mota guzietatik ar-emeak beregan idukitzeko diña, izan zitekeana. Noe bere iru seme-errañekin, ta abereakin kutx-ontzian sartu zane-ko, erauso zion euriari, ta berrogei egun, eta gau, bein ere atertu gabe, iraun zuan, lur guzia urez estali zuan, euri-jasa ikaragarri batek. Gizon-emakume, abere,

egazti, ta pisti guziak ito ziran ugolde artan; eta etzan iñor bizirik gelditu, Noe, onen emaztea, bien iru seme, ta oen iru emazteak baizik: guzitara zorzi persona, ta kutxan gorde ziran bizikorrak. Urak txikitu ziranean, irten zan Noe leorrera bere etxetiar guziakin, eta oen ondorengoz, urteen buruan, bete zan berriz Mundua, ta orrela gera guziok alkarren señaideak; baña ondorengo oek ere, asko luzatu gabe, egin ziran aurrekoak baño areagoak, ta are gaiztoagoak. Utzi zuen alde-bat eren Jainko egiazkoa, ta jarri ziran, eren burutik asmatu zituen, gezurrezko Jainkoetara. Batzuek Jainkotzat artu zuen Eguzkia, besteak Illargia, besteak, gogoak eman zien, edozein gauza. Gurasoentzat etzuen begirunik ta errespatorik, eman zioen guziak aragizko bekatuari, alkar ezin ekusi zuela, ta mindurik, gizon odoltuen eran zebiltzan, ta giz-eralleak, edo gizoniltzalleak, lapurrak, ta gezurtiak ziran. Etzituen jakin-gabez gaiztakeri oek egiten, ezpada jakiñaren gañean. Etzuen zer ibilli galdez, jakiteko, gauza gaiztoak zirala lapurreta, ta gañerako, alkarri egiten zizten, dollorkeriak, ta bidegabeak. Baziekien, ta nork nai daki bere burutik, ezdegiola besteri, beretzat nai ezlukeana. Geren burutik degun, argi, ta ezagumentu oni deritza *Lege naturala*, edo *Lege ekarraizkoa*.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nor izandu zan Munduko lenengo gizon-iltzalllea?

E. Kain, bere anai Abel il zuan, Adanen seme bat.

G. Zergatik il zuan?

E. Zergatik hura, zan bezain, ona izatea, ezin ekusi zuan.

G. Gizon guziak, Kain bezala, izandu ziran gaiztoak?

E. Geienak beintzat bai.

G. Eta guzien artean etzan bat bederik Jainkoaren gogoko zanik?

E. Bai, Noe bakarrik gelditu zan, Jainkoaren gogoko zanik.

G. Eta gizon gaizto aek kastigatzeko, zer egin zuan Jainkoak?

E. Itoak utzi zituan, egi, aldapa, mendi, ta mundu guziarekin batean, odei-itsasoetatik biraltzen zuala, orretarako behar zan, ura, edo ugoldea.

G. Zer egin zan Noez?

E. Jainkoak gorde zuan, ito gabe, kutx-onzian.

G. Noe bakarrik gelditu zan bizirik?

E. Hura bakarra bere etxekoakkin.

G. Eta zer geiago?

E. Lurrean lau-oinka dabiltzan abere, edo animalietatik, ta aidean egatzen diran egaztietatik pare bana.

G. Gizon-emakume guziak dira alkarren anaiak?

E. ai: guziok alabaña gatoz Adanen, ta Noeren odoletik.

G. Zer gauza da *lege naturala* deritzan, jaiozko, ta ekarrizko legea?

E. Da, zer dan gauz ona, ta zer dan gauz gaiztoa, erakusten digun, geren buruko argia, ta ezagumetua.

G. Jaiotzetik degun argi onek zer erakusten digu Jainkoaren alderakonz?

E. Jainkoa bakarrik ohoratu, ta adoratu behar degula, edo Jainkoari bakarrik gurtu behar gatzazkalla.

G. Eta gizonen, edo lagun-urkoen alderakonz?

E. Bestek guri egitea, naiko ez gendukean, gauzarik iñori egin diozagula.

G. Tageren alderakonz?

E. Gure eskutik iduki ditzagula geren pasio, griña, naikunde, gogo gaizto, eta gaitzerako makurtasun okerrak.

IV. IRAKURTZA

ABRAN, TA BESTE PATRIARKAK

Noeren ondorengo gizonik geienak, aurrekoak baño gaiztoagoak, baziran ere; oen artean batzuek baziran, Jainkoaren sinismena, ta ezaguera zuenak; eta eren buruko argiak, ta lege naturalak erakusten ziena, egiten zutenak. Sem zeritzan, Noeren seme baten odol ta arrazatik zetozenak, ziran alakoak; ta guzien artean ongien zebillena, Abran zan. Oni Jainkoak agertu ziozkan bere asmoak, onekin egin zuan baldinezko batzea, eta alkartasuna, adirazten ziola: Abran, *baldin* zuk nere esanak egiten badituzu, Ni zurekin izango naiz, eta zure egiteko guzietan lagun-duko dizut: Ots bada, irten zaite bereala zere erritik, Nik egingo zaitut, ezin kontatu al adiña, jenderen Guraso, ta Aitona; Zure ondorengoai emango diztet Kanaango bazter eder ugariak, ta ondorengo orietan bedeinkatuko ditut munduko guziak, esan balio bezala, zure odoletik jaioko da munduaren Salbatzallea. Sinistu zuan Abranek hau guzia; ta bien arteko batze, alkargo, baldin, ta itzaren ezagun-bide, ta señaletzat, Zirkunzizio eman zion Jainkoak. Zirkunzizio zan, gor-

putzaren alde minbera batetik aragi piskabat kañibetaz kentzea. Jainkoak eman zion Abrani, Isaak zeritzan seme bat; eta erakutsi ziona, sinistu ote zuan, eta esan ziona, egingo ote zuan progatzeko eta ekusteko, agindu zion, doai-eskeñi, edo Sakrifizioan present egin ziozala bere seme maite onezaz, Aldare baten gañean bizia kentzen ziola; baña Abrani, bere semearen gain kolpea ezarteko, besoa jaso zuanean, eragotzi zion Jainkoak. Isaak izandu zan Jakob, beste izenez, Israel zeritzan, seme baten Aita. Jakob, ta Israel deitzen zan, onek izandu zituan amabi seme: Oek ziran amabi *Patriarkak*, amabi Tribu, edo amabi familia, ta etxeko guraso, buru ta nagusiak, eta oetatik datoz Israeltar guziak. Amabi oezaz gañera, horduraño bizitu ziran, gizon Santuai ere Partriarkak derizte.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Ugoldea igaro ezkeron non gelditu zan, eta nor-gan iruan zuan lege naturalak, edo berezko argiak, ta Jainkoaren ezaguerak?

E. Semen Etxekoetan, ta ondorengoetan.

G. Nor zan Jainkoarekin aditu zana, ta itz-eman ziona?

E. Abraham.

G. Zer agindu zion Jainkoak?

E. Utzi zitzala bere Erria, etxea, ta etxeakoak.

G. Eta zer eskeñi zion?

E. Aren odoletik, ta arrazatik jaioko ziran, ondorengo-
goen humedi luze-zabal andi bat.

G. Eta zer geiago eskeñi zion?

E. Emango ziozkala Kanaango Erri, ta bazterrak.

G. Eta geiago besterik eskeñi zion?

E. Bai, eskeñi zion aren arrazan ta ondorean
bedeikatuak izango zirala munduko guziak.

G. Zer adirazi nai zuan Jainkoak itz oriekin?

E. Abrahamen odoletik, ta ondorengo-
goen batetik jaioko zala mundu galduaren zuzentzallea, ta Salbatzallea.

G. Eta Jainkoaren, ta Abrahamen arteko eskeñi, ta
itzen sinua, ta ezagun bidea zer zan?

E. Zirkunzisiaoa, edo orañago nion, aragi zatitxoaren
kañibetazko kentzea.

G. Nor zan Abrahamen Semea?

E. Isaak.

G. Eta zergatik kendu nai izandu zion bizia bere semeari?

E. Jainkoaren esana egiteagatik.

G. Eta zergatik Jainkoak agindu zion?

E. Berekiko aren leialtasuna, sinismena, ta fedea progatzeagatik.

G. Nor zan Jakob?

E. Isaaken semea.

G. Nola zeritzan bestela?

E. Israel.

G. Zenbat seme zituan?

E. Amabi.

G. Nola zerizten?

E. Patriarkak edo Aitaurrenak.

V. IRAKURTZA

IJITIKO GATIBOTASUNA, TA PAZKOA

Jakoben semeak ezin eraman zuen eren anai Joseperen ongia, eta orregatik saldu zuen. Erosleak artu, ta eraman zuen erekin Ijitora, ta an egondu zan luzaro gatibu besteren mendean; baña Jainkoarekin beti leial, ta orregatik, gatibutasunetik atera, eta eragin zuan Ijitoko Erregearen urrengo gizon. Barkatu zien bere anaiai, ta etorrerazi zituan Ijitora, eren Aita, ta etxeko guziakin batean. Il ziran oek, et oen semea geitu, ta askotu ziran Ijiton arrigarrizko eran. Lengoa-ren ondoren Ijiton sartu zan, beste Errege batek, indartsuegi egin, ta esku geiegi artu zezaen bildurrez, nekarazi zituan, lanak lanen gañean emanaz, ta agindu ere zuan, il zitezela, aen artean jaiotzen ziran, seme guziak. Urrikaldu zan Jainkoa, Jakoben illobak, eta ondorengoak Ijit-errietan zeramaen nekeaz, eta nekepetik ateratzeko biraldu zuan, Moyses zeritzan, gizon andi bat, bere anai Aaron lagun ematen ziola. Egondu ziran oek Faraonekin, (hau zan Ijitoko Errege guzien izena) eta Jainkoaren izenean agindu zioen, utzi ziezela, maite zituan, Israeltarrai, edo Jakobren

odoletik ziranai, Ijitolik irteten. Asko bider esan zioen hau Faraoni, ta anbat bider ukatu zan, eskatzen zitzaiona, egitera; eta eragiteko, egin zituan Moise-sek, Ijitoliko plagak, gaitzak, edo lazeriak derizten, mirari, milagro, ta ekusteko asko, ta ikaragarriak. Gauza oek igaro ondoan, irten ziran noizbait Ijit-erritik Israeltarrak; baña irten baño lenago, etxe bakoitzean il zuen bildots bat, aren odolarekin busti, ta seinalatu zituen etxe guzietako atepak, ta ala egin zuen, Jainkoak agindu zien *BAZKOA*. Bazkoak esan nai du *igarotzea*: eta Jainkoak Ijitolik atera, ta eren jait-erri, ta bazterretara igaro ziranaz, beti oroi zitezen, egin behar zuen urte-oro, Ijitoliko Erregeren eskupetik irten ziranean, egin zuen, bezalako Bildots-afari bat: eta Israeldarren ateratze, irtete, ta igarotzean adirazi zuan Jainkoak, berak aterako ginduala noizbait guziok bekatupetik, eta Infernuko etsaiaren mendetik, eta eramango ginduala Zeru zabal atsegin-kontentuz betera.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Esaitzu, Joseperi gertatu zitzaizkan, gauzak.

E. Bere anaiak, begitan artu, ta saldu zuen: luzaro egon zan gatibu ljiton, Faraonen menpean: ta gero igo zan, Erregeren urrengo gizon, ta adiskide izateraño.

G. Ain goiti, ta alako eskuarekin zegoala, nola artu zituan bere anaiak?

E. Barkatu zien, egin zioen, gaizkia, ta erakarri zituan ljitora eren familia, edo etxetiar guziakin batean.

G. Zer gertatu zitzaien ljiton Jakob'ren semeai?

E. Geiegitu ziran.

G. Eta zer egin zien Faraonek?

E. Galdu, ta bukatu nai izandu zituan guziak.

G. Nork lagundu zien estutasun artan?

E. Jainkoak.

G. Eta nor autu zuan Jainkoak, Jakob'ren seme, ta ondorengoak ljitarren nekepetik ateratzeko?

E. Moises.

G. Eta zer egin zuan Moisesek?

E. Faraoni, Jainkoak agindu ziona, eragiteko, ekuskari, mirari, edo milagro andi ikaragarriak.

G. Zer zan Bazkoa?

E. Israeltarrak, ljitotik irten ziran, gau artan afaldu zuen, bildotsa.

G. Zer egin zan bildotsaren odolarekin?

E. Israeltar guzien etxeetan señale bat ipintzea.

G. Zer adirazi zuan, Israeltarrak Ijidotik irteteak?

E. Jainkoak noizbait aterako zituala gizon-emakume guziak bekatu-petik, eta Infernuko etsaiaren atzaparretatik.

VI. IRAKURTZA

ISRAELDARREN EREMUKO BIDEA, TA LEGE ESKRIBITUA

Atera zituan Jainkoak Israeldarrak, edo Jakob'ren ondorengoak, Ijitopean zeramaen, morronzatic; ta aen aurrekoai eman zien, itzari zerrraikala, eraman zituan Kanaango bazterretara, edo promisioko lurrera. Mirari, ekusteko ta milagro andiak egin zituan Jainkoak Israeldarren bidezko joate onetan. Bekaizturik ta aserraturik zerraiten, Faraonegandik iges egiteko; idiki zien Itxaso gorriaren erdian, oñik busti gabe, igarotzeko, bide leor zabala. Eraman zituan *Eremu*, edo mendi luze batetik; ta berrogei urtean mantendu zituan sas-arte aetan, jateko, ematen ziela, Zerutik intza gisan gau oro erortzen zan, janari gozo bat; eta edateko, aitz batetik jaiorazi zuan, iturriko ura. Bidez asi ziranetik, laster eldu ziran, Sinai deritzan, mendi batera; eta an erakutsi zien Jainkoak bere legea ta borondatea, Ijitarretik irtetean, egin zuen, lenbiziko Pazkoatik, berroge-ta-amargarren egunean. Mendi-gañean agertu zan, suz, kez, trumoez, ta tximistaz beterikako odei ikarragarri bat. Azpiko aldean zeuden,

Israeldarrak ezun zuen tronpeta izugarri baten soñua, ta odei-artetik irten zan, oju batek esaten ziela: «Ni naiz zure Jaun Jainkoa, Ijitoko nekepetik atera zindudana».

1. «Ez dezu iñola ere nere aurean ni, beste Jainkorik idukiko. Ez dezu egingo Idolorik batere, ez eta gezurrezko Jainkoren anz-iduri ta imajinarik, hari agurak egiteko».

2. «Ez dezu alferrik autan artuko zere Jaun Jainkoaren izena».

3. «Gordeko dezu laurenbata, edo zazpigarren eguneko atsedetea desnekea, edo deskansua».

4. «Hondra itzatzu zere ait-amak, ta orrela luzaro biziko zera, Jainkoak zuretzat daukan, promisioko lurrean».

5. «Iñor ilko ez dezu».

6. «Ez dezu egingo aragizko bekaturik».

7. «Ez dezu ostuko».

8. «Ez dezu esango lagun urkoaren gain gezurrezko lekukotasun, asmazio, edo testimoniorik».

9. «Ez dezu gutzizatuko lagun urkoaren emaztea».

10. «Ez dituzu naiko lagun urkoaren ondasunak».

Orra Jainkoak, ol bitan eskribiturik, Moisesi eman ziozkan, amar mandamentuak. Oek, ta lege naturale-

ko, edo lege berezko mandamentuak berebat ziran; baña nola aztuaz zijoazen, orregatik Jainkoak iskribitu zituan arrizko oletan. Ain andia zan horduko gizonen gaiztakeria!

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nora joan ziran Israeldarrak, Ijitolik irten zira-nean?

E. Jainkoak eraman zituan, ta agindurik zeukan, Kanaango lurrera.

G. Zertako eraman zituan?

E. Lenagotik agindu zuana, egiteko.

G. Nola igaro ziran Itsaso gorritik?

E. Jainkoak uren erditik bide leorra egiten ziela.

G. Nondik joan ziran?

E. Eremu sas-arte, edo mendi luze-zabal batetik.

G. Eremu artan zebiltzanean, zeer jaten zuen?

E. Jainkoak Zerutik bidaltzen zien, ta Mana zeritzan, janari zuri-gozo bat.

G. Eta urik etzuenean, nondik edaten zuen?

E. Jainkoak Aitz batean sortu zuan, iturri ugari batetik.

G. Noiz erakutsi zien Jainkoak bere legea, naia edo borondatea?

E. Ijit-erritik irten ziranetik, berrogei ta amargarren egunean.

G. Non erakutsi zien legea?

E. Sinai deritzan, mendiaren gañean.

G. Nola zegoan horduan mendi hura?

E. Guzia trumoiez, suz, ta tximiztez irazekia.

G. Esaitzu, Jainkoak Israeldarrai Sinaiko mendian eman zitzen aginte manu edo mandamentuak?

E. Lenengoa: «Ni naiz zure Jaun Jainkoa, Ijitoko nekepetik atera zindudana», edo gañerakoak, gora-xeago ezarririk dauden bezala.

G. Eta eskribiturik zeuden mandamentu oek?

E. Bai, arrizko ol bitan.

G. Berriak ziran mandamentu oek?

E. Iñola ere, lenagokoak, edo lege naturaleko berberak ziran.

VII. IRAKURTZA

ISRAELDAR'AKIN JAINKOAREN TESTAMENTUA, TA ALKAR ARTZEA

Jainkoak nai, ta eragin zuan Moisesek, *Testamentuko Arka* zeritzan, kutxatxo bat, kanpotik, ta barren-dik urrez estalia; ta kutx onetan ipiñi zituan ol legedu-nak. Kutxa gordetzeko eragin zuan, *Tabernakuloa* zeritzan, ta, bidez zebiltzanean, erraz alda zitekean, oial ederrezko estalpe, edo kanp-etxetxo bat. Etxetxo-aren aurkez zegoan, Jainkoari Sakrifizioak ofrendak ta presentak egiteko, Aldare bat. Denbor artako presentak ziran bildots, txekor, ari, idi, lepoak kendu, ta Aldarearen gañean erreak: eta onelako presentak eskeñiaz, egiten zitzaion horduan Jainkoari, zor zaion adorazio, agur, ohore, esku-muñ, ta begitartea. Present oek Jainkoari eskeintzeko ta beraren aurrean ipintze-ko, Apaizen erakoak ziran Aaron, ta bere semeak; eta gañerako Lebitarrak, edo Lebi Patriarkaren ondoren-goak egin behar zuena, zan, kutxategi, eleizatxo, edo Tabernakuloa zaitzea, ta ango gauzak zuzentzea. Kutxa, ta kutxategia, edo Elizatxoa ziran, Jainkoak Israeldarrakin egin zuan, Testamentu, batze, ta alkar-

artzearen sinu señaile, ta adirazgarria: eta alkartasun hau zan, Jainkoak Abranekin egin zuan alkartasun bera; bada Israeldarren alde berritu zituan Jainkoak, hoen gurasoai egindako, eskeñi, aginde, ta itzak. Agindu zien bada berriro Jainkoak Israeldarrai, artuko zituala bere Erritartzat, sartuko zituala Kanaango lur ta bazter ugarietan, ta beteko zituala ondasunez. Lur ugari hura da, Jainkoak guri agindurik daukan, Zerua, ta ango egoera atsegina ederki adirazten digun, adiragarri aintzura, ta imajina. Israeldarrak heren aldetik eman zuen, Jauna, ez beste Jainkorik ez ezagutzeko; eta Jaun bere biotz osoz maitatzeko, ta onetsitzeko itza: bai ta ere esan zuen, itzez zioena, egiten ezpazuen, nai zekiola Jainkoari, aek Kanaango bazter'etatik ateratzea, ta beharrez premiaz, ta nekez beterik, nekezko bazter'etan erabiltzea. Orra Jainkoaren, ta Israeldarren arteko itzak: ta itz oek, utsegin gabe, gorde beharko ziralako, siñu edo señaletzat, artu zuan Moisesek isipu bat, ta Jainkoari aldarearen gañean eskeintzen zizaizkan, arien, ta idien odolarekin busti zituan Israeldarrak, eta an arkitzen ziran, gañerako gauzak. Jainkoak bere aldetik egin zuan zegokana: itzulirazi zuan Jordango Ibaia goronz, bere jaiet-buru-ronz, geldirazi zituan Zeruan, heren bidean lasterka

zijoazen, Eguzkia, ta Illargia; ta Israeldarrak Kanaango Erri ederren jabe egiteko, agertu zuan bere ahal, ta indarra, beste onelako milagro asko eginaz. Sartu ziran noizbait Israeldarrak, Jainkoak aenzat agindurik zeuzkan Kanaango bazter'etan; lur guzia egin zuen amabi parte edo zati; ta amabi Tribu, edo familietatik bakoitzari eman zitzaion parte bat. Baña Israeldarrak urratu zuen Jainkoari eman zioen, itza; ausi zuen beraren lege santua, eta etzuen egin aren esanik, batere. Amabi bider baño, geiagotan asaldatu ziran bidean: ta Kanaango lurrean sartu ziranean, an lenagotik bizi ziran, jendeak galdu lekuan, Jainkoak agindurik zeuzkan bezala; aekin bat egin ziran, ta aen Idolo ta gezurrezko Jainkoai egin ziozten, Jainko egiazkoari bakarrik zor zaizkan agurrak.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nola egiten ziran lege zarreko sakrifizio, edo presentak?

E. Abere lepo-gabetu bat Aldarearen gañean erretzen zala.

G. Non zegoan Aldarea?

E. Eleiztxo edo Tabernakuloren aurreko aldean.

G. Zer zegoan Eliz-barrunbe artan?

E. Testamentuko Arka.

G. Zer zan Arka hau?

E. Barrendik ta kanpotik urre-olez estalirikako kutxatxo bat.

G. Eta zer zegoan kutxan?

E. Legea zeukeen, ol biak.

G. Zein ziran sakrifizio-gilleak, edo Jainkoari presentak egiten ziozkenak?

E. Aaron, ta bere semeak.

G. Zein ziran Lebitak, edo Lebitarrak?

E. Aaronez gañera Lebi Patriarkaren Tribu, edo familian ziran, guziak: ta oen egitekoa zan Tabernakulo loko gauzai begiratzea.

G. Zer itz ziran, Jainkoak, ta Israeldarrak alkarri emanikako itzak?

E. Jainkoaren ta Abraanen artean lenago igaro ziran, itz berak.

G. Zer itz eman zuan Jainkoak?

E. Esan zien Israeldarrai, artuko zituala bere Erritartzat, egingo zituala Kanaango lurren jabe, ta beteko zituala ondasunez.

G. Lur hau zeren antz-iduria zan?

E. Zeru erraz, ta argiro adierazten zuan, imajin edo siñu eder bat.

G. Israeldarrak eren aldetik zer agindu zioen Jainkoari?

E. Eren biotz guziarekin maite izango zuela Jainkoa, eta gordeko zituela aren mandamentuak.

G. Eta zer, ori egiten ezpazuen?

E. Kanaango edo Promisioko lurretik botaak, ta on-beharrez ta premiaz bukatuak izan zitezela.

G. Ongi gorde zan, Jainkoak, ta Israeldarrak alkarri eman zioen, itza?

E. Jainkoaren aldetik txit ongi.

G. Zer mirari egin zituan Jainkoak, Israeldarrak promisioko lurraren jabe egiteko?

E. Leortu zuan, Jordan zeritzan, Ibaia; ta geldirazi zituan Eguzkia, ta Illargia.

G. Eta nola gorde zuen Israeldarrak heren itza?

E. Gaizki txit.

G. Zenbat bider arazotu, edo asaldatu ziran, eremu-bidean zebilzala?

E. G. Amar bider baño, geiagotan?

G. Zer egin, zuen Kanaango Erri eskeñien jabetu ziranean?

E. Heren Jainko egiazkoa utzi, ta infernukoak asmarazi zizten, Idoloak Jainkotzat artzea.

VIII. IRAKURTZA

IDOLATRIA

Denbor artan Israeldarrak ziran, nor zan Jainkoa, zekien jendeak: gañerako guzien Jainkoak ziran, euskeraz *ze-agiak* derizten, Idolo, edo Jainko gezurrezko, Jainkoaren itxura ta figura itsusi utsa bai, baña Jainkozko izanik bat ere etzuenak. Horduko gizonen ardurara, ta gogo guzia zan, gorputzari zegozkan, atsegin lizun gaiztoen gogo: etziran bat ere oroitzen heren animaz, ez eta Jainko, ispiritu uts garbi, Zeruaeren ta lurraren egilleaz. Buruak eman ta asmatu zituen, ezin kontatu al adina, Jainko, bakoitzari, Erriari zegokan izena ematen zioela; eta guziakgatik milla gezur, ta ipuiñ farragarri esaten zituela. Egiten zituen zurezko, arrizko, urrezko, ta zillarrezko, gezurra baizik, etziran, itxura gaiztoko Jainkoak, edo Idoloak; ta heren eskue-tako lana baizik, etzan gauzari, agur egiten zioen, Eleizak eginaz, Aldareak jasoaz, ta Sakrifizio, edo presentak eskeñiaz. Jende itsu aen iritzian gezurrezko Jainko, edo Idolo oetatik batzuek ziran gizonak, eta besteak emakumeak. Greziako, ta Erromako jendeak Jupiter artu zuen Jainkotzat, eta hau zala, zioen, Jainko guzien

artean andiena: gero artu zuen Juno, Jupiterren emaztea zala zioela; eta aen ondoren Marte, Benus, Bako, ta beste onelako asko. Ijitokoen Jainkoari zeritzan Isis, onela zoratu, itsutu, ta engañatu zituan demonioak, Jainko egiazkoari zor zaizkan, agur ta adorazioak bereztat izateagatik; eta Jainkoa hondratzen zuelako aitzakian, gaitz itsusi asko eragiteagatik: orregatik jende itsu zoratu aek, Idoloai, ta Idoloen barrenen sarturik zeuden, demonioai egiten zizten, pestak ziran ordikeria, deshonetseria, ta onelakoak. Askotan Israeldarrak ere, besteak bezala, ibilli ziran, Idoloai zeraiztela. Zenbat bider Israeldarrak Idoloakgatik Jainkoa utzi zuen, anbat bider Jainkoak aek utzi zituan gatibu heren etsaien eskuetan: ta zenbat bider gaizki egiña ezaguturik, biurtu ziran Jainkoagana, anbat bider Jainkoak aen artetik autu zuan, gatibutasunetik atera zizakean, gizon andiren bat.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Orrela Israeldarrak baizik, etzan horduan, Jainko egiazkoa ezagutzen zuanik?

E. Bat ere.

G. Zeri bada, Israeldarrak ez, besteak agur egiten zioen?

E. Heren burutik asmatu, ta heren eskuakkin egin zituen, zurezko, arrizko, edo bestelazko Idoloai.

G. Zeren antza zuen idolo aek?

E. Gizonena, emakumeena, ta abereena: orregatik jende itsu aen ustean, Idolo batzuek ziran Jainko-gizonak, ta besteak Jainko-emakumeak.

G. Nola hondratzen zituen?

E. Agurrak, eskeak, ta presentak egiñaz.

G. Zertatik zetorkien itsutasun hau?

E. Gizonak heren Jainko egilleaz aztutzetik.

G. Nola bada aztu ziran?

E. Heren gorputza, beste gauzarik gogoan etzeukela.

G. Eta nork zeuzkan onela itsuturik?

E. Aen agur, ta begiruneak, beretzat nai zituan, Infernukoak.

G. Zer zan, Idolatriak, edo *Ze-agigurteak* zekarren, ondorea, ta irabazia?

E. Era guziko gaitzki itsusiak gizonai eragitea.

IX. IRAKURTZA

DABID, TA MESIAS

Israeldarrak, Kanaango bazterretan sartu ezker, lendarrian Juezak, ta gero Erregeak izandu zituen agintari. Lenengo Erregea izandu zan Saul, ta urrengo Dabid. Hau zan, Juda zeritzan, Jakob'ren seme baten odoletik, ta etxetik zetorren, gizon andi bat; eta odol, ta etxe beretik etorri-beharra zan Munduko Salbatzalea, Jakob Patriarkak alde-aurretik esanik zeukan bezala. Jainkoak ala nai, ta Olio Santuz gantzua izandu zan Dabid, ta orobat gantzutuak izandu dira beste Errege guziak: ta hortik dator, Erregeai Kristoak, gantzutuak, olioztuak, edo unjituak deitzea. Denbora berean Dabid ibilli zan Saulen igesi, ta izandu zituan guda edo gerra andiak, Zeruko gauzen sinistmenik etzuen, jendeakin. Baña azkenik Jainkoak egin zuan Dabid, bere etsai guziak baño, andiagoa, ta indartsuagoa; ta bete zuan hondraz, ta ondasunez. Dabidek bere mendean zeuzkan, Erri guzien buru ta Erri-nausia, zan Jerusalem: Erri artan eragin zuan jauregi, edo Palacio bat, ta ara erakarri zuan Testamentuko kutxa. Eleiz bat egiteko, gogoak ere eman zion; baño Jainko-

ak adirazi zion, egiteko hau aren semearentzat gelditzen zala. Bai-ta-ere adirazi zion Jainkoak Dabidi, aren ondorengoak izango zirala Jainkoaren hume leialen Errege ta agintari: aren odoletik etorriko zala, Jainkoak aurrenetik, ta lendabizitik agertu zion Salbatzallea; ta Israelen etxean, ta mundu guzian aginduko zuan, Erregea: Salbatzalle hau izango zala Jainkoaren semea, ta Dabiden semea; eta gizonak Jainkoaren Semea lenengoan ezertan ez artuagatik, gero berak erakarriko zituala guziak Jainkoaren ezagumentura, eta aren lege santua gordetzera. Arrezkero Israeldarrak, uste zuen, Munduaren Salbatzalleari deitu zioen Dabiden seme Erregea, ta bestela Mesias, edo Kristo.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zein agintarik agindu, edo gobernatu zituan Israeldarrak, Kanaango bazterretan sartu ziranetik?

E. Lendanik Juezak, ta gero Erregeak.

G. Nor izandu zan aen lenengo Erregea?

E. Saul.

G. Zein bigarrena?

E. Dabid.

G. Zein Tribu, familia, edo etxekoa zan Dabid?

E. Juda zeritzan, Jakobren semearen etxekoa.

G. Non bizi oi zan Dabid?

E. Geienezan Siongo mendi-gañean, Jerusalengo Ziudade, edo Urian.

G. Nora eraman zuan Testamentuko kutxa?

E. Ara bertara, Siongo mendira.

G. Zer agindu, edo zer eskeñi zion Jainkoak Dabidi?

E. Haren ondorengoak izango zirala sekula guzian Jainkoaren Erriko Errege, buru, juzgalari, ta agintariak.

G. Eta zer geiago?

E. Haren ondorengoendanik etorriko zala gure Salbatzallea.

G. Zer gauza da Kristo, edo Mesias?

E. Gure Salbatzalle hau bera.

G. Zer esan nai du Kristo izen onek?

E. Ganzutua, konsagratua, edo Jainkoarenzat bereiztua.

G. Eta zergatik hau?

E. Zeren Dabid, ta beste Erregeak olio santuz ganzutuak, doainduak, ta konsagratuak izandu ziran.

X. IRAKURTZA

SAMARIAKO ZISMA, EDO BEREZTEA

Dabiden ondorengo Erregea izandu zan haren seme Salomon: eta nola Dabid zan Kristo nekatuaren, ta nek-eramalle onaren idurintza ta imajina, ala Salomon Kristo beraren gloria andi ederraren aintzura siñu ta imajina. Bakean, ta atsegin-kontentuz betea bizitu zan Salomon bere denbora guzian, ta ori baño geiago dana, Jainkoak eman zion, egiazko jakiundez apaindua. Egin zuan Salomonek, haren aita Dabidek lenagotik egin gogo izandu zuan Eleiz bat, Testamentuko Kutxa an ifintzeko, ta an bertan ofrendak sakrifizioak ta presentak Jainkoari eskeintzeko. Israeldarrak bizi ziran bazter guzietan etzan, Salomonen Eleiza besterik; eta etzan zillegi, presentak, doai-eskeñiak, ta ofrendak bestatan egitea. Ala zion legeak, guri obeto adirazteagatik, ez dala Mundu guzian Jainko bat, ta lege bat baizik. Salomonek bere azken egunetan bere aisia, alferkeria, ta atsegin itsusi zikiñ-atsakkin galdu zuan, Jainkoak emanikako, jakinduria; eta geiegi maitatu zituan, erbesteko emakume arroz galduak zoratu, ta sartu zan begi bietaraño Idolatrian, edo gezurrezko

Jainkoai agur egiten. Salomonen gaizkiak kastigatze-ko, haren ill-ondoan zatitu, ta berezitu zan haren Erreinu. Amabi Tribu, edo familietatik Juda, ta Benjamin bakarrik gelditu ziran Salomonen seme Roboanen menpean: beste amar etxadi edo familiak Jeroboan artu zuen Erregetzat. Jeroboan onek, bere menpekoak Judako Erregearen aldetik kentzeko, ta Jerusalem joa-tea eragozteko, asmatu zuan bere burutik lege berri bat, eragin zituan urrezko zekorrak, ta zekor oei agur egiteko, agindu zuan bere Erreinu guzian. Onela sortu zan *zisma* bat. *Zismak* esan nai du, lenagotik buru baten azpian sinistmen, ta lege bat zuenak, alkargandik aldegitia, Jainkoaren Eliza urratzea, ta zatitzea. Eleiz egiatzko gelditu zan Jerusalem; eta gezurrezkoa egon zan lendabizian Sitxenen, ta gero Samaria zeritzan, Israelgo Erreinu erri nausian.

Galdeak, ta Eranzuak

- G.** Nor izandu zan Dabiden ondorengo Erregea?
- E.** Haren seme Salomon.
- G.** Nola bizitu zan bere denboran?

E. Bere gogora, berak nai zituan aisia, ta atsegin-kontentuz betea.

G. Eta etzuan izandu, ori baño, gauza obeagorik?

E. Bai suertez-ere, bada izandu zuan jakiundeia.

G. Etxerik, edo orrelako gauza andirik egin zuan?

E. Bai, egin zuan Jerusalemgo Eleiza.

G. Eta ba-zan bestetan Jainkoari non agur egin?

E. Ez: etzan, Eleiz bakar bat, eta Aldare bakar bat, besterik.

G. Ta ori zergatik?

E. Ez dala Jainko bakar bat, eta Jainkoarentzat agur-era bat baizik, adirazteagatik.

G. Eta jakintsu iraun zuan Salomonek azkeneraño?

E. Ez baldinbere: aragikortu zan, emakume galgarrietara jarri zan, eta orregatik, Jainkoak emanikako, jakiundeia galdu zuan.

G. Hura ill ezkeron zer gertatu zan?

E. Haren Erreinua banatua, ta zatitua gelditzea.

G. Zer gelditu zan Salomonen semearentzat?

E. Tribu edo Etxadi bakar bi, Juda, ta Benjamin.

G. Zein izandu zan beste amar Tribuen Errege?

E. Jeroboan.

G. Eta zer egin zuan onek, bere Errege-aldia, edo erreginza iraunkorrago sendoago ta firmeago egiteko?

E. Egin zuan zisma bat.

G. Eta zer da zisma?

E. Eleiza urratzea ta banatzea, bat baizik, ez dan, Eleizaz bi egitea.

G. Non gelditu zan Eleiza egiazkoa?

E. Jerusalem.

G. Zein izandu zan Israelgo Erreinuko, ta gezurrezko legearen buru ta nausi?

E. Samaria.

XI. IRAKURTZA

PROFETEN GAÑEAN

Israeldarrak, ta Judatarrak alkargandik aldegin zuen ezkeroztik, Israelgo Errege guziak izandu ziran gaiztoak, eta Idolo-zaleak, edo gezurrezko Jainkoen ondoren zebiltzanak: eta Judako Erregeen artean ere asko izan ziran onelakoak. Haek, eta hoek bereganatu nai izandu zituan Jainkoak, ta orretarako biraldu zizten Profetak. Deitzen dira *Profetak*, Jainkoak emanikako ispiritu, ta argiarekin gauza gorde estaliak eta etorkizunak ekusten dituen gizon guziak. Honela Moises, Samuel, Dabid, ta Salomon ziran Profetak. Baña denbor artan *Profetaren* izen hau ematen zitzaien batez ere, munduko aisiak, ta erakeriak utzi, ta Jainkoaren amorez nekezko biziera bat egitera, mendietara, ta basoetara baztertzen ziranai. Hoetatik bat zan Elias: onek Jainkoari eskatu, ta eragotzi zuan euria iru urte, ta erdian; onek beronek egin zituan beste onelako mirari, ta ekuskari ikaragarri asko; ta oraindik ere bizi-rik dirau. Ba-dira, liburuak eskribiturik utzi zituen Profetak ere, nola baitira Isaias, Jeremias, ta beste onelako batzuek. Hoek esan zuen, Samaria, ta Jerusalem

galduak izan beharko zuela, bña Jerusalem berririo egiña izango zala. Etorkizun zeuden gauzak asma-tzean, hitz egiten zuen noizean bein, Kristo edo Mesia-si zegozan, gauzen gañean, ta agertu zuen, nolakoak izango ziran haren jaiotza, haren biziera, haren nekeak, haren Eriotza, ta haren betiko Erreinua. Esan ere bazuen, egingo zuala Jainkoak bere errikoakin, lenago Israeldarrakin egin zuan, alianza edo alkarta-suna baño, alkar-artze agiz obeago bat; eta Idoloak utzirazi, ta deituko zituala beregana Munduko jende guziak.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nor ziran Profetak?

E. Jainkoaren ispiritu ta argiz beterikako gizon batzuek.

G. Zergatik deitu ziran Profetak?

E. Zeren alde-aurretik asmatzen, ta agertzen zituen, etorkizun zeuden gauzak.

G. Noiz geiena izandu ziran Profetak?

E. Israelgo, ta Judako Erreinuak alkargandik aldegin ezkeroztik.

G. Zein da, denbor-aetan omenik, edo pamarik andiena zuen Profeta?

E. Elias.

G. Nola ill zan?

E. Iñola ere ez oraindik.

G. Zer egin zan bada artzaz?

E. Bizi zala, Zerura eramana izandu zan.

G. Zein dira liburuak eskribitu zituen Profetak?

E. Isaias, Jeremias, ta beste asko.

G. Zer esan zuen oek lenagotik?

E. Samaria guzia, batere gelditu gabe, osotoro galduko zala.

G. Eta Jerusalengatik?

E. Esan zuen, hura ere eroriko zala, baña gero berriz egingo zala.

G. Mesiasgatik ezer esan zuen Profeta aek?

E. Bai: esan zuen txearo Jesu Kristori gertatuko zitzaion guzi-guzia.

G. Eta itzegin ote zuen, Jainkoaren, ta gizonen arteko, itz alkargo, edo alkar-artze berriren baten gañean?

E. Bai egiazki: esan zuen, alkartze berri hau izango zala, Jainkoak lenagotik Abranekin, ta haren ondo-

rengo Israeldarrakin egin zuan, batze ta alkar-artzea baño agitz onagoa.

G. Eta esan zuen Profetak, Jainkoak beregana deituko zituala sinitsmen-gabeko jendeak, edo fede-gabe bizi ziran, jentilak?

E. Bai-ta ori ere; bada esan zuen, federik etzuen jendeak, Idolo edo gezurrezko Jainkoak utzi, ta joango zirala, Jainko egiazkoari agur egitera.

XII. IRAKURTZA

BABILONIAKO GATIBUTASUNA

Israelgo, ta Judako Erregeak, Profeten ongi-esanak, aser-esanak, eta atelekak ongi artu lekuan, esker orde asko naigabe neke ta pena eman zizten Profetai; ta illerazi ere bazituen Profetetatik batzuek. Orregatik ere geldirik egondu zan Jainkoa, Erregeai, ta Erregepekoai ezer egin gabe; ta arrigarrizko emetasun edo pazienziarekin luzaro begira egon zan, noiz eren gaiztakeri, ta bekatuen damuz biurtuko ote ziran argana. Baña geroenean ere egotzi zuan Jainkoak aen gañera, eren oben-kulpakgatik zegoten, kastigu gogorra. Samariako Erreinua, zan guzia, arrasatu ta galdu zan; ta amar Tribu edo Familiak sakabanatu ziran Erbes-teetan, ta Samariaz kanpoko bazterretan: eta etziran inoiz ara biurtu. Nabukodonosor, Babiloniako Erregeak bota zuan lurrera Jerusalem guzia, erre zuan ango Eleiza, eta gatibu eraman zuan berekin Erri guzia. Babilonia zan horduan, Munduan zan, erririk andiena, indartsuena, ta eskurik geiena zuana; baña, iñon ziran, doakeri, gaiztakeri, idolatria, ta bekatuz guzia betea. Orregatik ere Juduak etzuen utzi Jainko egiazkoa;

ezta, Moisesek erakutsi zien, haren legea ere; eta denbor-artan aen artean izandu ziran Santuak ere. Oetatik bat izandu zan Daniel Profeta, jende gaizto aen artean garbiro, ta gaitz-kabe bizitu zana, ta Jainkoagandik misterio, edo mirari andiak ikasi zituana. Nabukonosor Erregeak eragin zuan, gizona zirudian, urrezko tallu, edo estatua bat, eta agindu zuan, guziak agur egin ziozuela urrezko gizanz hari. Danieleskin batean azi ziran, iru gizon gazte, gogortu zitzaizkan Erregeari, ta etzituen egin, ark nai zituan agurrak, eta orregatik botarazi zituan labe irazeki batera; baña Jainkoak gorde zituan, suak bat-ere erre gabe. Iru gazteen ikuskari hau ekusi, ta ezagutu zuan Nabukonosor Erregeak, baita aitortu ere, agitz andia, ta indartsua zala, Jainkoak, edozein gauza egiteko, duan eskua, ta ahala.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Jainkoak laster kastigatu ote zituan Israeldarren bekatuak?

E. Ez: luzaro itxodon zien, egin zezaen penitentzia.

G. Zer egin zan Samariako Erreinuaz?

E. Desegin ta galdu zan guzia, eta an bizitu ziran, amar Tribuetako Israeldarrak andik kanpora atereak, ta erbestetuak izandu ziran.

G. Nork lurreratu zuan Jerusalengo Erria?

E. Nabukodonosor, Babiloniako Erregeak.

G. Zer egin zien Juduai?

E. Katibu eraman zituan.

G. Eta zertan gelditu zan Jainkoaren egiazko legea?

E. Gorde zuen Juduak, katibu egon ziran, denboran.

G. Zer lege zan Babiloniako legea?

E. Gezurrezko Jainkoai zegoten, legea, zeagi-gurtea, Idolatria, edo sorginkeraren erakoa.

G. Nor zan Daniel?

E. Santu andi, ta Profeta andi bat.

G. Zer egin zuen haren iru lagunak?

E. Babiloniako Erregearen Idoloari, edo gezurrezko Jainkoari agurrak ez egiteko, gogortzea.

G. Zer egin zien Erregeak Danielen iru lagunai?

E. Labe irazeki batera botarazi zituan.

G. Zer gertatu zitzaien an?

E. Jainkoak milagroez gorde zituan, erre gabe.

XIII. IRAKURTZA

ZERTAN GELDITU ZIRAN JUDUAK

Ziro zeritzan, Persiako Errege batek, Nabukodonosor Erregeari Babiloniako Erria kendu, ta, an katibu arkitu zituan, Juduai utzi zien, heren Errietara joaten, baita ere Jerusalemgo Eleiza, ta Erria berriro egiten. Ziro onen ondoren etorri zan Greziako Alexandro andia, ta bereganatu zituan Munduko bazterrik geienak. Horduan Juduak, Zeruko sinitsmenik etzuen, jende gaiztoen artean bizi baziran ere, etzuen orregatik utzi Jainko egiazkoaren sinistea, ta etziran geroz biurtu gezurrezko Jainkoetara. Jende gaizto aen artean geldi geldi sartuaz zijoan Jainko egiazkoaren legea. Alere horduko Erregeren batzuek gaizki erabilli zituen Juduak, heren lege santua utzi-erazi naiez; eta Idolo, edo gezurrezko Jainkoai agur eragin naiez. Antioko zeritzan, Siriako Errege batek artu zuan Jerusalem, loitu ta treshondratu zuan ango Eleiza, ta debekatu ta eragotzi zituan, Jainkoari an egin oi zitzazkan, agurak, presentak, doai-eskeñiak ta sakrifizioak. Judu askok, Jainkoaren legea ez ausitzeagatik, eraman zituen nekepen tormentu gogorak, ta azkenik eriotza.

Baña Judas Makabeoak, bere anaiakkin batean, heren legea, ta lenagotik zuen eskua, ta libertasuna ez gal-tzeagatik, eraso zien etsaiai, ta, Jainkoa bere alde zuala, garaitu zituan ziranak, eta bereganatu ziran, Judatar guziak atera zituan, Jainko egiazkoaren eza-guera gabe bizi ziran, jentil gaizto aen uztarripetik. Judas hau, ta onen ondorengoak izan ziran aldi batean Judatarren buru, ta agintari; ta hoetatik batzuek izan-du ziran Erregeak. Baña Munduaren Jabe egin ziran, Erromatarrak etorri, ta kendu zien Juduai, edo Judata-rrai, zuen, esku guzia. Hau guzia alde aurretik esanik utzi zuen Profetak.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nor izandu zan, Juduak Babiloniako katibutasu-netik atera zituana?

E. Ziro, Persiako Erregea.

G. Zertako zan, Juduak fede-gabeko jendeen artean bizitzea?

E. Jende berai Jainko egiazkoaren ezagumentua emateko.

G. Juduak, Babiloniatik irten ezkerro, biurtu, edo itzuli ote ziran lenagoko Idolo, ta gezurrezko Jainkoe-tara?

E. Ez baldinbere.

G. Nor izandu zan, Jainkoaren legea utzirazteaga-tik, Juduak gaizki erabilli zituan, lenengoa?

E. Siriako Errege, Antioko Grezitarra.

G. Nork asiera eman zion Greziatar, edo Griegoen aginde, edo Inperioari?

E. Alexandro Andia zeritzan, gizon batek.

G. Nor ziran, Antioko Erregeari gogortu, ta guda edo gerra egin zioenak?

E. Judas Makabeo, ta bere anaiak.

G. Zer iritxi zuen hoek gerra ematearekin?

E. Heren Erriak, ta Erritarrak Griegoen menpetik ateratzea.

G. Nor geroz izandu zan Juduen buru ta agintari?

E. Judas Makabeo onen beronen etxeoak, ta ondorengoak.

G. Nork geroenean galdu zituan Judatarrak?

E. Erromatarrak bukatu zituen.

XIV. IRAKURTZA

JUDU ISPIRITUKOIAK, TA ARAGIKORRAK

Herodes, Munduan izandu ziran, gizonik gaitzoe-netatik bat, egin zan Judeako Errege, bide gabe, ta deretxa gabe, orretarako Erromako Agintari edo Enperadoreak laguntzen ziola. Ongi ziekien hordudanik Judatarrak, laster etorriko zala, Mundura Mesias, edo Kristo. Ordea Judatarren artean batzuek ziran ispiritukoia, ta besteak Aragikorrak. Judatar aragikorrak etzeukeen eren gogoan, gorputz aragikorrari dagokana, baizik. Jainkoari ba-zerraizkan; jarrai hura etzan onez, ezpada, Jainkoagandik gari, ardo, urre, zillar, artalde andiak, ta gisa onetako ondasunak iristeko, ustez; onela heren emazte, ta Humeakkin, aisian, nai adiña aberasturik, ta nai bezala bizitzeko. Etziran Jainkoaren bildur, gauz gabearen, behartasunaren, gaitzaren, eritasunaren, eta hiltzearen bildurragatik baizik, Judatar ispiritukoia, edo espiritualak zerraizkan Jainkoari gogoz, ta biotzez; maite zuen Jainkoa, ta agur andiak egiten ziozkeen, zeren ori, ta agitz geiago zor zaion haren, guzirako duan, esku, edo ahalari, jakiunde eziñ-geiagoko ari, ta ontasun ezin-obeagoari.

Ala Judatar aragikorrak, nola ispiritukoia ezagutzen zuen, denbora gitxiren barrunen, Profetak zioenez, etorriko zala Mesias, edo Kristo; baña guzien usteak etziran era batekoak. Aragikorrak Kristoren gañeko Profeten itzetan aditzen zuen, letrak azaletik ta kanpotik ziona; eta ez, barrendik, ta mamitik adirazitzen zuana. Uste zuen, Profetak liburu santuetan esan zuena, guzia zala gorputzaren alderako, eta ez animaren onerako. Zerizten, Mesias, Kristo, edo Jainkoaren seme gizon egiñak lurreko Errege izan beharko zuala; eta izango zala, Dabid Erregea baño, gudari, edo gerrari andiagoa, ta Salomon baño, aberatsagoa; ta Judatarrak haren Errege-aldian biziko ziralta aisian, heren gogora, ta nai adiña, atsegin kontentu pozez beteak, Munduko beste jende guziak heren azpian, ta eskupean zeuzkeela. Bestelakoak ziran Judatar ispiritukorren asmoak. Hoek ezagutzen zuen, ba-diralata ondasunak, lurreko ondasun guziak baño agitz ta agitz andiago, ta naigarrigo diranak. Orregatik etzuen uste emen munduan zorion edo doatasun oso beterik, ezpada gero Zeruan, aragiaren erresurrezio edo biztea ezkerok; ta Mesiasgandik lenik, ta geienik uste zuena, zan, Jainkoa ezagutzeko, ta maitatzeko behar degun, mesedea laguntza, ta grazia.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nor izandu zan Judatarren Errege, Erromako Agintarien azpian bizi ziranean?

E. Herodes.

G. Noiz bete zan, Jainkoaren semea gizon egiteko, denbora?

E. Herodesen beraren Errege-aldian.

G. Zein ziran Judatar aragikorrak?

E. Lurreko ondasunak izateagatik baizik, Jainkoa serbitzen etzuenak.

G. Nolakoa, uste zuen, izango zala Kristoren Errege-aldia?

E. Uste zuen, Kristo izango zala, emengo beste Erregeak bezalako, lurreko Errege bat: ifiniko zituala Munduko Erri, ta jende guziak Judatarren eskupean, ta manuaren azpian; ta biziko zala ondasunez, hondraz, ta atsegin-pozez betea.

G. Zein ziran Judatar ispiritukoia?

E. Gogoz, naiez, ta biotz onez Jainkoa serbitzen zuenak.

G. Zer, uste zuen, emango ziela Jainkoak?

E. Emengo aldia egin, ta Zeruan betiko bizitza.

G. Zer zan, Mesias edo Kristogandik batez-ere itxodoten zuena?

E. Bera ezagutzeko, maitatzeko, eta onesteko, behar degun, grazia ta laguntza.

XV. IRAKURTZA

JESU-KRISTOREN JAIOTZA

Herodes Judeako Errege zan, denboran, ta Zesar Augusto Erromako Enperadore ta Agintari zanean, bizi zan, Nazaret zeritzan, Galileako Errian, Maria izena zuan, santutasun andiko donzella garbi bat. Joseph zeritzan, gizon santu batekin ezkondua bazegoan ere, beti birjiñ garbi bizitzeko, asmoan zegoan, ta ala bizitu zan. Tribu, etxalde edo Etxadi batekoak ziran Maria, ta Joseph; bada biak zetozen Judaren Etxetik, ta Dabiden odoletik. Maria Birjiñ oni bidaldu zion Jainkoak S. Gabriel Aingerua, adiraztera, Mesias, edo Jesusen Ama izan behar zuala: eta Mariak eman zuan orretarako bere baiezkoa, Birjiñ, ta ama Ispiritu Santuaren lanez ta bitartez izango zala, jakindu zuan ezkeror. Hordu, ta une artan Aita Eternoaren Itza, Jainkoaren Semea, Eternidade guzian Jainkoagan egondu zana, eta Aita bezanbateko Jainko zana, egin zan aragi, edo egin zan, gu geran bezalako gizon, gureak bezalako gorputz bat, eta anima bat Maria Birjinaren sabel garbian egiazki artzen zituala. Jesus jaiotzeko zegoan, egunetan agindu zuan Augusto Erromako Enperado-

reak, haren menpean arkitzen ziran, guziak billa zezaela, nongoak ziran, nondik zetozen, eta nola zerizten. Orañago giñion bezala, S. Joseph, ta Jesusen Ama Maria Dabid Errege andi Santuaren odoletik, ta Etxetik zetozenak ziran; eta Etxe hau Belenen arkitzen zan. Eldu ziran Belengo Errira, eta etzuen arkitu, non oñak sartu, horduko alabaña beteak zeuden ostatu, ta etxe guziak. Bazan, Belengo Errian sartu baño lenago, Etxola, edo lur utspe bat, ta Etxola onetan jaio zan Jesus Ama Birjiñagandik, argia bidriotik irteten dan, eran. Jaio zanetik, zorzigarren egunean egin zan, Lege zarrak agindurikako, aur jaio-berriaren Zirkunzisia, ta ifini zioen aurrari, salbatzallea esan nai duan, Jesus izena. Zirkunzisia zan, aurrari bere gorputzeko alde minbera batetik aragi piska bat kañibetaz kentzea. Egun batzuen buruan etorri ziran, Eguzkia sortzen dan, aldetik iru Errege Magoak, edo jakintsuak, Jesusi esku-muñ humillak, ta presentak egitera, eta present oek izandu ziran urrea, inzensua, ta mirrha. Herodesek aditu zuanean, iru Erregeak zetozela, Judatarren Errege jaio-berriari agur egitera, artu zuan, Errege berriak Erreinua kenduko ziolako suspetxak, gogoan-beharrak, eta bildurrak; eta agindu zuan, ill zitezela Belen inguruko aur guziak. Baña S. Josek Jesus, ta

haren Amandre Maria artu, ta iges egin zuan Ijitorra, ta an bizitu ziran, Herodesen illberria aditu arteraño. Gero biurtu ziran Nazaretko heren errira, ta an bizitu zan Jesus, ogeita amar urte bete zituan arteraño, iñork nor zan, ezagutu gabe, bere amak, eta San Josek agintzen zioena, egiten zuala, eta San Joseri zurgintzan, edo arotzian laguntzen ziola.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nor izandu zan Jesu-Kristo, gure Jaunaren Ama?

E. Birjiña Santa Maria.

G. Zein Tribu, edo Etxadikoa zan Jesu-Kristoren Ama?

E. Juda, edo Judas zeritzan, Jakob Patriarkaren seme baten Etxadikoa.

G. Eta zein etxetakoa?

E. Dabid Erregearenekoa.

G. Norekin ezkondu zan?

E. Etxe bereko San Joserekin.

G. Nola jakindu zuan, Mesiasen Ama izan behar zuala?

E. Jainkoak bidaldu zion, San Gabriel Arkanjelua esan, ta jakindu zuan.

G. Jesusen Ama izateko, noiz eman zuan Birjiña Mariak bere baiezkoa?

E. Orregatik ere Birjiñ garbi geldituko zala, Aingeruak esan zionean.

G. Eta zer gertatu zan horduan Ama Birjiñagan?

E. Berbo Eternoa, edo Itz betikoa egin zan aragi.

G. Berbo, edo Itz beti dirauen ori zer da?

E. Jainkoaren Semea.

G. Zer da Jainkoaren Semea aragitzea?

E. Gu gizon geran bezala, hura ere gizon egitea.

G. Non jaio zan Jesu-Kristo?

E. Belenen ondoan zegoan, estalbe, edo Etxola batean.

G. Zer esan nai du Jesusen izenak?

E. Salbatzallea, edo erremediatzallea.

G. Zein ziran, Jesusi agur egin zioen lenengo Jentilak?

E. Eguzkiaren sortaldetik etorri ziran Errege Magoak, edo jakintsuak.

G. Zer egin zuan horduan Herodesek?

E. Agindu zuan, ill zitezela Belen-inguruko aur guziak.

G. Nola gorde zan, ta libratu zan Jesus aurra?

E. Ijitora eraman zuan San Josek.

G. Nola bizitu zan bere denboran?

E. Bere Amandre Maria Birjiñak, ta San Josek agintzen zioena, egiten zuala.

G. Eta Jesusen Aita zan San Jose?

E. Ez, baña ala zala, uste zuan Munduak.

G. Zer langite, edo ofizio zuan San Josek?

E. Zan Zurgina, edo Arotza.

XVI. IRAKURTZA

ORAINDAÑO ESAN DANAREN

BILGURA LABURRA

Jainkoak ezerezetik egin zuan Mundua, edo egin zituan Zeru lurrak, Itsaso odeiak, Eguzki izarrak, eta Zeruan, ta lurrean diran, gauza guziak. Oen artean egin zituan gizona, ta emakumea, baita Aingeruak ere. Aingeruak aurrenetik guziak ziran onak; baña laster batzuek gaiztotu ziran, et oek dira infernukoak. Oetatik batek sugearen aoz emakumeari itz egin, ta eragin zion bekatua; ta gero emakumeak eragin zion bere senar Adani. Horduan Jainkoak madarikatu zuan sugea, ta esan zion, emakumegandik etorriko zala, hari burua ausiko zion, Munduaren Zuzentzallea, ta Salbatzallea. Adanen bekatua igaro zan haren hume, ta ondorengo guzietara; eta orregatik Jesu-Kristo, ta bere Amandrea ez, beste guziok jaiotzen gera, bekatu hau gerekin degula, ta deritza bekatu *orijinala*, edo *jatorriz* degun bekatua. Adan eta Ebaren lenengo Semeak izandu ziran Kain gaiztoa, ta Abel ona, eta Kainek il zuan Abel. Gero jaio zan Seth. Onen ondorengoak noizbait gaiztotu ziran, ta guzien artean, Noe

bakarrik arkitu zan, ona zanik. Oni Jainkoak agertu zion, Mundua galtzeko, artu zuan, asmoa, eta agindu zion; egin zezala kutxa-gisako Onzi bat; eta bere Emazte, ta iru Seme-errañakkin, ta aurrerako behar ziran, abere, ta egaztiakkin, sar zedilla an. Berrogei egun, ta gau, beinere atertu gabe, erori zan, eurijasak estali zuan urez Mundu guzia, eta ito ziran, Kutxan gorde ziran ez, beste bizikor guziak. Etziran orregatik zenzatu Noeren ondorengoak; bada asko luzatu gabe, heren Jainko egiazko Munduaren egillea utzi, ta jarri ziran, heren burutik asmatu zituen, edo infernukoak erakutsi zizten, Idolo edo gezurrezko Jainkoetara. Ez baldinbere ezagumenturen gabez: baziekien alabaña, iñork esan gabe, onetan, eta beste gauz askotan gaizki egiten zuela. Nork nai bere burutik duan, argi, ta ezagumentu oni deritza *lege naturala*, edo jatorrizko legea. Denboren kontuari darraizkanak, eta urteen zenbatezkoaren billan dabilzanak, dioe, zazpi dirala Munduaren adiñak, edo edadeak. Lenengo da, Mundua asi zanetik, Noeren denborako Ugolderaño; ta batetik besterañoko, urteak, dioe, dirala milla, seieun, berrogei, ta amazapi.

Noek izandu zituan, Sem, Kam, ta Jafet zerizten, iru seme. Sem, ta haren ondorengoan batzuek onak

izandu ziran. Oetatik bat zan Abran. Oni Jainkoak agertu ziozkan bere gogo ta asmoak, eta esan zion: Abran, baldin zuk nere esanak egiten badituzu, nik egingo zaitut hume askoren guraso, zure humeen ondorengoei emango ditzet Kanaango bazter ugariak, ta zure odoletik datorrena izango da Mundu galduaren zuzen-bidea, Salbatzallee, ta erremediatzallee. Jainkoak eman zion Abrani, Isaak zeritzan, Seme bat. Isaak onen Semea zan Jakob, ta onek izandu zituan, Patriarkak zerizten, amabi seme. Ugoldetik Abranen denboraraño igaro ziran laureun, ogei, ta sei urte; ta hau da Munduaren bigarren adiña.

Jakobren semeak saldu zuen Ijitora heren anai Joseph. Lenengoan katibu egon bazan ere, gero, Jainkoak nai, ta egin zan Erregeren urrengo gizon; ta gosete batean deitu zituan beregana bere Aita Jakob, ta bere anaiak. Joseran denborako Erregeren ondoren sartu zan Ijiton beste Errege bat, ta onek gogorki artu zituan Jakobren humeen ondorengoak; baña Jainkoak Moisesen bitartez atera zituan, Ijiton zeramaen, nekepetik, ta eraman zituan Kanaango bazterretara. Abranen aldiatik Israeldarren irtete onetaraño igaro ziran laureun ogei, ta amar urte. Hau da irugarren adiña.

Berrogei urtean ibilli ziran bidean Israeldarrak, Ijitolitik, Jainkoak agindu zien, lurrera joateko. Bidez asi ziranetik, laster eldu ziran, Sinai deritzan, Mendi batera; eta an erakutsi zizten Jainkoak, ol bitan iskribiturik, bere legeko amar mandamentuak. Ol oek gordetzeko, eragin zuan Jainkoak, Testamentuko Arka deritzan, kutxa bat; eta berritu zituan Israeldarren alde, aen gurasoai egindako eskeñiak, ta agindeak, ta emaniko itzak. Israeldarrak eman zioen Jainkoari, bera, beste Jainkorik ez ezagutzeko, itza; baña Kanaango Errietan heren itzaz azturik, ta ango jende gaiztoakin bat-eginik, aen Idolo tzarrak artu zituen Jainkotzat. Israeldarren lenengo Erregea Kanaango lurrian izan du zan Saul , bigarrena Dabid, ta irugarrena Salomon. Onek eragin zuan Jerusalemgo Eleiza; ta onen seme Roboanen aldean Israeldarrak aldegin zuen alkargandik. Juda, ta Benjamin zerizten, Tribu-familia, edo Etxadi bi bakarrik gelditu ziran Roboanekin; beste amar Tribu edo familiak Jeroboan artu zuten heren Erregetzat. Onek sortu zuan zisma, edo erdiratu zuan Jainkoaren Eleiza, lege egiazkoa utzi, ta bere menpekoentzat lege berri bat asmatzen zuala. Israeldarrak Ijitolitik Jainkoak atera zituanetik, Salomonek Jerusalemgo Eleizaegin zuan arteraño, joan ziran laureun, laro-

gei, ta zazpi urte; ta denbor hau da Munduaren laugarren adiña.

Gaiztoak, ta Idolo-zaleak izandu ziran geroz Israelgo Errege guziak, baita Judako batzuek ere. Jainkoak, guziak ondu-naiez, bialdu zizten Profetak; baña alferrik, bada orregatik ere, aek geroago, ta gaiztoago. Azkenik ekusi zuen heren gañean, zegoten, nekea ta kastigua. Samariako Erreinua galdu zan, ta Israeldarrak etziran geiago ara biurtu. Nabukodonosor Erregeak desegin zuan Jerusalem guzia, erre zuan ango Eleiza, eta katibu eraman zituan Babiloniara Judatarrak. Ziro, Persiako Erregeak, andik atera, ta bialdu zituan Jerusalengo Erria, ta Eleiza berriro egitera. Horduko, Salomonek Jerusalengo Eleiza egin zuanetik, igaro ziran laureun, irurogei, ta zorzi urte; ta hau da Munduaren bostgarren adiña.

Ziro Erregeren ondoren sartu ziran Kanaango Errietan Greziako Erregeak, eta oek txit gaizki erabilli zituen Judatarrak. Judas Makabeoak, bere anaiakkin batean, eraso zien Greziatarrai, ta atera zituan bere Judatarrak, Jentil gaizto aen uztarripetik. Baña azkenik Erromatarrak etorri, ta ezertako esku gabe utzi zituen Juduak edo Judatarrak. Denbor onetan, Augusto Erromako Enperadore zala, jaio zan Jesu-Kristo Belenen

Maria Birjiñagandik. Juduak Babiloniako katibutasunetik libratu ziranetik, Jesu-Kristoren jaiotzaraño joan ziran bosteun, ogei, ta amabi urte, ta hau da Munduaren seigarren adiña. Urte oek, ta lenagokoak alkargana batu, ta Mundua asi zanetik, Jesu-Kristo jaio zan arteraño igaro ziran guzitara lau milla urte. Ala dioe oraingo gizon jakintsuren batzuek; baña Eleizan, Eguerri Bezpera goizean enzuten deguna, da Jesu-Kristo jaio zanean, bazituala Munduak *bost milla, eun, larogei, ta emeretzi* urte. Munduaren zazpigarren adiña da Jesusen jaiotzatik azken-juizioko eguneraño. Noiz izango dan azken hau? Jainko berak bai, baña bestek ez daki.

XVII. IRAKURTZA

SAN JUAN BAUTISTA

Jesu-Kristo, gure Jauna, ogei ta amar urtekoa zala, agertu zan Profeta andi San Juan Bautista, Zakariasen, ta Santa Isabel, Maria Birjiñarren aidearen Semea. Mendi Eremu Basoetan bizi oi zan Profeta andi hau, lenagoko Profetak baño biziera nekagarriago bat zera-mala, ta arganatzen ziran, guziai penitencia egiteko, erakusten ziela: *Zeren (zion) Zeruetako Erreinua urrean dagoan*. Sinisten zuenai, ta Jainkoagana biur-tzen ziranai, ematen zien, San Juanek Bataioa; edo (berebat dana) garbitzen zituan Jordango Ibaian; Judatarrak, heren bekatuen loi zikiñak kentzeko, legeak zionez, garbitu oi ziran bezala. Bataio, edo garbiketa onetatik zetorkion San Juani Bautista izena. Mesias edo Kristotzat artu nai izandu zuen San Juan, haren Sermoiak enzutera, juaten ziranak; baño San Juanek esan zien, etzala hura Kristo, baizik haren etor-bidea zuzentzeko, haren aurretik Jainkoak bialdurikako, gizon bat. Besteen artean joan zan Kristo San Juangana, eta aetarik bat baliz bezala, eskatu zion, bataia zezala hura ere. San Juanek etzuan aldi artaraño ekusi

beñ ere gure Jesus; eta al ere ezagutu zuan ekusi hor-
duko; ta bataiatu zuan Jordan Ibaiko urarekin. Bataio,
edo garbiera artan bedeikatu zituan Jesusek urak, ta
eman zien, Bataioko Sakramentuen bekatuak barka-
tzeko, indarra. Horduan idiki ziran bat-batetan gañeko
Zeruak, ta jetsi zan Espiritu Santua, uso idurian, Jesu-
sen buru gañera: ta hau ekusi, ta esan zuan San Juan
Bautistak: *Ona Munduko bekatuak kentzen dituan,
Jainkoaren bildotsa: Moisesek eman zuan legea; baña
Jesu-Kristoren bitartez etorri zan grazia, ta egia.*

Galdeak, ta Eranzuak

G. Noren Semea zan San Juan Bautista?

E. Zakarias Santu, ta Maria guziz Santaren aide
Santa Isabelena.

G. Non bizi oi-zan?

E. Eremu ta basoetan, bere gorputza lazki neka-
tzen zuala.

G. Itz egin ote-zuen artzaz lenagoko Profetak?

E. Esan zuen, izango zala Mesiasen aurretik etorri-
ko zana, edo Mesiasen aurretik bialdua.

G. Nolakoak ziran San Juanen Sermoiak edo predikua?

E. Bere enzunleai bekaturen penitenzia eragiten zien, bezalakoak.

G. Eta zer egiten zien, haren esanak ongi artzen zituenai?

E. Bataiatu.

G. Nola bataitzen zituan?

E. Jordan Ibaiko urtan bustirazten zituala.

G. Bataiatu zuan Jesu-Kristo?

E. Bai: bada Jesu-Kristo berak nai zuan, bataia zezan San Juanek, Bataiko ura bedeikatzeko, ta santugiteko.

G. Zer gertatu zan Bataio artan?

E. Ekusteko andi bat: Espiritu Santua jetsi zan, usoa zirudiala, Jesusen buruaren gañera.

G. Zer esan zuan San Juanek horduan?

E. Bataiatzen zan, hura zala, Munduko bekatuak kentzen dituan, Jainkoaren bildotsa.

XVIII. IRAKURTZA

APOSTOLUEN DEIA

San Juan Bautistak Jesus bataiatu horduko, adirazi zion Espiritu Santuak Jesus berari, baztertu zedilla, San Juan zegoan, Mendi artako Eremu batera. Eremu artan atera zuan Jesusek barau luze garbi bat, ta nekatu zuan bere gorputza, berrogei egunez, ta gauez bokadu bat artu gabe, ta ur tantarik ere edaten etzuala. Berrogei egunen burruan eldu zan ara infernukoa, Jesus tentatzera; baña bere al-egin guziakin ere etzuan atera etsai gaiztoak, nai zuanik, gure Jauna-gandik, ta bere indar guziak galdurik, iges egin zuan Infernuetara. Eremitik jetsi zan Galileara. An esan zien lau Arranzaleri, jarrai ziozuela. Arrantzale oek ziran Simon edo Pedro, ta onen anai Andres; ta Jakobo, ta Juan, Zebedeoaren Semeak. Gero deitu zituan besteren batzuek, ta aen artean Matheo. Guziak uzten zuen, Jesusek deitu horduko, zuen, guzia, berari jarraitzeagatik: ta onela, denbora gitxiren buruan, bereganatu zituan Diszipulu asko, edo bere erakustearen ikasle asko. Jesusek bere ikasleen artetik autu zituan amabi Apostoluak. Apostoluak esan nai du bialdua,

zeren gure Jaunak bere Apostoluak bialdu zituan, Mundu guziari bere legea, ta Zerurako bidea erakustera. Apostoluen arten lenengoa zan Pedro, gero onen ani Andres: Jakobo, edo Santiago, ta Juan, Zebedeoa-ren semeak; Phelipe, Bartolome, Matheo, Thomas, Jakobo, Alfeoren semea, haren anai Judas, edo Thadeo, Kananeako Simon, ta Judas Iskariote, gure Jesu-sen saltzalle traidorea. Andresen anai Simoni deitu zion Jesusek izengoitiz Arria: esaten ziola: *Zu zera arria, ta arri onen gañean jasoko det nik nere Eleiza, ta emango dizkitzut Zeruetako Erreinuaren giltzak.*

Galdeak, ta Eranzuak

G. Jesu-Kristo, bataiatu zan ezkeru, nora joan zan?

E. Eremura, edo desiertoa.

G. Ta zer egin zuan an?

E. Barautu berrogei egunean.

G. Eta zer geiago?

E. Izan zituan Infernuko bere etsai galgarri gaizto-arekin bere tentu-peleak.

G. Nola deitu zituan bere ikastegirako, edo eskolara-rako ikasleak, edo Diszipuluak?

E. Esanaz, zerraizkala, ta, zuen guzia utzirik, bertatik jarraitu zioen.

G. Zer esan nai du Diszipuluak?

E. Maisu baten esanak enzuten dituen, ta ark erakutsiak egiten, diarduen, personak.

G. Zer esan nai du izen *Apostoluak*?

E. Esan ani du *Bidalduak*.

G. Zenbat autu zituan Jesu-Kristok?

E. Amabi.

G. Esaitzu orien izenak?

E. San Pedro, ta onen anai San Andres; Santiago, ta San Juan, Zebedeoren semeak; San Felipe, San Bartolome, San Matheo, Santo Thomas, Santiago, ta San Judas, Alfeoren semeak, San Simon, ta Judas Iskariote traidorea.

G. Zergatik San Pedro izendatzen da guzien lenengo?

E. Zeren Jesu-kristok esan zuan, hura izango zala haren Eleizaren zimendu-arria.

G. Zer esan zion geiago?

E. Emango ziozkala Zeruetako Erreinuaren giltzak.

XIX. IRAKURTZA

JESU-KRISTOREN PREDIKUA

Erririk-erri zebillen Jesu-Kristo Ebanjelioa predikatzen, edo Zeruetako Erreinuaren berri ona ematen. Berri hau zan, eldu zala, gizonak, Jainkoa ezagutzera, deitzeko, denbora: bera zala, anzinako Patriarkak ta Profetak uste zuen, Kristo, edo Mesias: ta Mundu galdua ontzeko, gizon egin zan, Jainkoaren semea; eta argan sinistu, ta penitenzia egiten zuenak, iritsiko zuela bekatuen barkazioa, ta sekulako bizitza. Jainkoaren izenean itz egiten zuala, sinisterazteko egiten zituan mirakulu, edo arrigarrizko mirari asko. Begien itxi-idiki batean, ta hitz bakar bat esanaz sendatzen zituan eritasun, edo gaitz guziak: itsuai ematen zien ikusmena, gorrai enzumena, eta mutuai hitzmena: gaitzkiñak ateratzen zituan gizon emakumeen gorputzetatik, ta bizten zituan illak. Bere bizierakin erakusten zien guziai, nola bizi behar zuen, Zerua irabazteko. Zan biotzez umilla, biguña, beraa, ta erraza: zera-mazkian emeki, premiaren, edo gauzen gabearen aldetik zetozkion, nekeak, ta naigabeak: urrikaltzen zan, Jainkoagana itzuli nai zuen, bekatariatz; baña ase-

rre zan, gaitzean gogorturik bizi ziran bekatariakin. Bere egiteko guzietan ezer nai etzuan beretzat: egiten zuan, guzia, egiten zuan, gizonak, bere Aita Jainkoa ezagutzera, ta maitatzera, erakartegatik: eta gau guziak, geienez, orazio-giten, igarotzen zituan. Bere ikasleai, erakutsi zien otoitza, edo orazioa da.

1. Aita gurea Zeruetan zaudena, erabil bedi santuki zure izena.

2. Betor Zure Erreinua.

3. Egin bedi Zure borondatea, nola Zeruan, ala lurrean.

4. Egun iguzu gure egunoroko ogia.

5. Eta barka zazkiguzu gure zorrak, guk geren zordunai barkatzen dieztegun bezala.

6. Eta ez gaitzatzula utzi tentamendutan erorten;

7. Baizik libra gaitzatzu gaitzetik.

Ala biz.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zertan aritu zan Jesu-Kristo?

E. Erri andi, ta txikietan predikatzen, edo Zerurako bidea erakusten.

G. Zer predikatzen zuan?

E. Zeruetako Erreinuaren Ebanjelioa, edo berri
ona.

G. Zer da Zeruetako Erreinoa?

E. Jainkoa ezagutzea, ta beti bizitzea.

G. Zer zion Jesu-Kristok beregatik?

E. Zion zala Mesias, Kristo, ta Jainkoaren Semea.

G. Zer egin behar zala, zion?

E. Argan sinistu, ta penitentzia egin.

G. Zertako egin penitentzia?

E. Bekatuen barkazioa iristeko.

G. Nola erakusten zuan, zala Jainkoak bialdua?

E. Mirari, mirakula, edo arrigarrizko lanak eginaz.

G. Eta zer mirakulu egiten zituan?

E. Itz bat esatea, asko zuan, eritasun, gaitz, ta
enfermedade guziak sendatzeko.

G. Eta zer geiago?

E. Gaitz-giñak, edo demoniak ateratzen zituan
gizonen gorputzetatik, eta bizten zituan illak.

G. Zer otoitz, edo zer orazio erakutsi zuan?

E. *Aita gurea.*

G. Esazu.

E. *Aita gurea*, eta gañerakoa.

XX. IRAKURTZA

JESU-KRISTOREN ETSIAK

Mundu guzia arritua zeukan Jesu Kristok, egiten zituan, gauz andiakin, ta guziak zerraizkan nora nai, bai-ta Eremeu edo Basoetara bazijoan ere. Judatarrek ez ezen, bai-ta Jentilak, edo Jainkoa ezagutzen etzuen, jendeak ere zebiltzan alkarren leian, nondik Jesus ikusiko zuen, eta nola haren itzak enzungo zituen. Eskriba, ta Fariseoak ziran, Jesus begitan arturik zeukeenak; Eta heren bekatuakgatik egiten zizten atelekak, ezin eraman zituenak. Eskribak ziran Juduen Maisu Erakusleak; ta hoen jakineza, ta gaiztakeria agertzen zien guziaz Jesu-Kristok. Fariseoak ziran, Jainkoaren legea, heren ustez, iñork baño, obeto gordetzen zuen gizon batzuek; baño geienak ziran, irudipenezko lan onakkin mundu guzia engañaturik zeukeen, buru-arro ondasunzaleak. Sazerdoteak ere, ta Erriko Kargudunak ezin ekusi zuen Jesus; Zerren aldeurretik, etorkizun guzia zekienak bezala, esaten zien, denbora gitxiren buruan, desegiñak, eta galduak izango zirala Jerusalemgo Erria, ta ango Tenploa, edo Eleiza. Desagun beigoan: Judatar aragikorrek, Jesus ain pobre, behar-

su, manso, ta humil ekusi ta, ezin sinistu zuen, edo etzuen sinistu nai, zitekeala Mesias, edo Jainkoak guzien onerako Mundura bialdu zuan gizona. Etzuen aditu nai Jesusen doktriña, ta hau enzutean, suak artzen zituan, zeren erakusten zien, ezertan ez idukitzeko oraingo bizitzako aberastasun, atsegin, ta ondasunak; eta esaten zien, jarraitu nai zionak, haren ondoren, gurutzea soñean zeramala, ibilli beharko zuala, ta alde-batera utzi beharko zituala, munduko gauza guziak, bai-ta bere burua ere; edo egin beharko etzuala, gogo gaiztoak eskatzen zion gauzarik. Etzegozkan, bide gabeko hitz lotsagarri asko esan ziozkeen Jesu kristori bere etsaiak; eta azkenik ill erazitzeke asmoa artu zuen. Orretarako baliatu ziran, Judas Iskariote zeritzan, Jesu Kristo beraren diszipulo batez; ta onek eman zien, Jauna erai saltzeko, ta aen eskuetara eramateko hitza, baldin saltze onen alde eman nai baiziozkeen, amabost ezkutu balio zuen, ogei ta amar diru zillarrezko.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Askok jarraitu zioen Jesu-Kristori?

E. Guziak, eta alde guzietatik zerraizkan leiaka, hura ekustegatik, ta haren esanak enzuteagatik.

G. Etsairik izandu bazuan?

E. Judu aragikor guziak ziran haren etsaiak.

G. Zergatik bada oek bekaitzen ziran argana?

E. Zeren erakusten zien, izan zitezela pobre behar-tsu humillak.

G. Zein izan du ziran Jesu-Kristoren etsairik andie-nak?

E. Eskribak, Fariseoak, eta Erriko agintari, ta Kar-gudunak.

G. Zein ziran Eskribak?

E. Gizon aditu jakintsu, legea erakusten zuenak.

G. Zein ziran Fariseoak?

E. Besteak baño, obeto legea gordetzen zuela, zioen, gizonak.

G. Eta ongi bizi ziran?

E. Kanpotik, ta ziruditenez bai, baña barrendik, eta izatez ez.

G. Noraño igo zan Jesu Kristori bere etsaiak zioen, gorrotoa, ta gaitzerizkoa?

E. Hura iltzeko, asmoa artzeraño.

G. Nork eman zien, Jesus saltzeko, ta aen eskueta-ra eramateko, itza?

E. Judas Iskariote zeritzan, amabi Apostoluetatik batek.

G. Zenbatean saldu zuan?

E. Zillarrezko ogei ta amar dirutan.

XXI. IRAKURTZA

JESU KRISTOREN PASIOA

Zenbilzan zenbilzan, geroenean ere Eskriba, Fari-seo, ta gañerako Jesusen etsaiak Pazko denboran eldu ziran, Jesus preso ar-eraztera, ta lenbait len illarazte-
ra. Pazko bespera zan, ostegun batean joan zan, bere diszipulu, edo ikaleakkin batean afaltzera. Afaltzen zeudela, artu zuan bere eskuetan ogi bat, bedeikatu zuan ogia, puskatu zuan, ta eman zion bakoitzari bere zatia, edo ogi-puska, esaten ziela: *Ar- ezazue, jan eza- zue; hau da, zuekatik saldua izango dan, nere gorpu- tza*. Gero Kaliz, edo edonzi batean artu zuan ardoa, bedeikatu zuan, ta eman zien, esaten ziela: *edazue guziok: hau da nere odola, Testamentu berriko Odola, zuekatik isuria izango dana, egizue hau, nizaz oroitzen zeratela*. Irten zan gero afaltegitik, baita Jerusalengo erritik ere, ta joan zan bere Apostoluakkin, Jetsamani, zeritzan, leku batean arkitzen zan, Hortu, edo baratz batera. An eskatu zion bere Aitari, al bazan, ken zioza- la Pasioko Kaliz latz, edo edari miña; ta eman ziozala beste bideren bat, munduko gaiztoen zorrak ateratze- ko; baña ala bear bada, esan zion bere Aitari, *egin*

bedi zuk nai dezuna. Bitartean bildu zituan Judas traidoreak Soldaduak, eta beste gizon armadun asko, ta oriek Jesus preso artu, ta loturik eraman zuen, bein, Anas zeritzan, Eliz-gizon andiaren etxera, ta gero urte artako Apaiz-Nagusi Kaifasenera. Onek, eta onen etxean batu ziran, beraren lagunak, lekuko, edo testigu gezurtiak billatu, ta esan zuen, ill-gaia zala Jesu-Kristo, *reus est mortis*, eta kendu behar zitzaiola bizia. Apostoluak, Jesus etsaien artean utzi, ta guziak ies egin zuen, ta San Pedrok ere iru bider ukatu zuan, esaten zuala, etzuala ezagutzen gizon hura. Kaifasen etxetik eraman zuen Jesus, Erromatarrak Judeako Probinziaren Agintari ifini zuen, Pilatosen etxera. Pilatosek ezaguturik, Jesus zala gizon on kulpa gabekoa, asko bide artu zituan, hura bere etsaien atzaparretatik ateratzeko, baña alferrik guziak. Pilatosen etxean eraman zituan azoteak gure Jaunak, eta aranzazko koroa gogor bat ifini zioen bere buruan, istaz ta bur-laz, bere burua Juduen Errege egin zualako, aitzakia-rekin.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zer den borararen illa zana Jesus?

E. Pazkoetan.

G. Zer egin zien bere Apostoluei, aekin egin zuan, azkeneko afarian?

E. Bere gorputza, ta aragia eman zitzen.

G. Nola eman zien bere gorputza?

E. Artu zuan eskuetan ogia, bedeikatu zuan, ta eman zien, ziola: *Hau da nere Gorputza.*

G. Nola eman zien bere odola?

E. Artu zuan Kaliza ardoarekin, ta esan zien: *Hau da nere odola, odol Testamentu berrikoa.*

G. Zer egin zuan Jesussek afal-ondoan?

E. Oliba mendira joan zan, Jainkoari orazio egitera, edo otoiz egitera.

G. Zer egin zuan Judasek horduan?

E. Jende armadunez lagundurik etorri zan, Jesus, zegoan, tokian preso artzera.

G. Nora eraman zuen Jesus?

E. Kaifas Apaiz Nausiaren etxera.

G. Zer egin zuen horduan Apostoluek?

E. Heren Jauna bere etsaien artean utzi, ta guziak iges egin zuen.

G. Zer egin zuan San Pedrok?

E. Iru bider ukatu zuan Jesus, ta esan zuan, etzua-
la ezagutzen gizon hura.

G. Nora eraman zuen Kaifasen etxetik?

E. Pilatosenera.

G. Zer egin zan an Jesu Kristorekin?

E. Azotatu, ta aranzaz koroatu.

XXII. IRAKURTZA

JESU KRISTOREN ERIOTZA

Geroenean Pilatosek, gogaiturik, damaturik, ta gogoaren kontra bazan ere, eman zuan, Jesu Kristo gurutzean iltzeko sententzia: ta eraman arazi zuan, gurtzea bizkarrean zuala, *Golgota* edo *Kalbarioa* zeritzan, toki batera. An gurutzean iltzez josi zuen lapur biren artean. Gurutzeko eriotza zan denbor artan, iñori eman zekikeon, kastigurik lotsagarriena, ta tres-hondragarriena, esklabo edo besterenpekoai baizik, ematen etzitzaiena; ezta edozeñ gaiztakerigaitik ere, baizik andienakgatik. Egondu zan Jesu-Kristo gurutzean, Profetak lenago esanitako, guzia egin arteraño: illundu zan Eguzkia haren iltzeko denboran, ikaratu zan lurra, zabaldu ziran obiak edo sepulturak, biztu ziran aetan zeutzan illak. Hau guzia gertatu zan, Pazko-eguna zan, ostiral batean, Israeldarrak, Jesu-Kristoren aintzura, ta imajina zan, bildotsa iltzen, eta sakrifikatzen zuen, egunean. Era onetan gure Jesusen eriotza izandu zan, Aita eternoari egin zitzaion, eskañi, present, ta egiazko Sakrifizioa; ta onen anz irudi, edo imajinak baizik, etziran lenagoko Sakrifizio guziak.

Eriotz hau izandu zan, Jainkoaren Justiziari, munduko bekatu guziakgatik eman behar zitzaion, ordaña. Jesu Kristok, obenik edo kulparik batere gabe pagatu zuan bekatari kulpadunen zorra: atera zituan bere odolarekin demonioaren azpitik; eta bere eriotzarekin idiki zien, Zeruan beti bizitzera joateko, bidea.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nola ill zan Jesu Kristo?

E. Gurutze batean ilzez josirik, lapur biren erdian.

G. Nolako kastigua zan inori gurutzean bizia kentzea?

E. Izan al zitekean treshondragarriena, ta lotsagarriena.

G. Zer egin zan, Jesus ill zanean?

E. Illundu zan Eguzkia, ikaratu zan lurra, ta biztu, edo erresuzitatu ziran illak.

G. Zergatik Jesu-kristo ill zan, Pazko-bildotsa iltzen zan, egunez?

E. Zeren bildots hau zan haren irudi-anza, eta erakusgarria.

G. Nolatan Jesusen eriotza izandu zan Sakrifizioa?

E. Zeren bera bakarrik asko zan, gugana aserre zegoan Jainkoa palakatzeko, ta munduko bekatu guzien zorra ateratzeko.

G. Zertako ziran bada gañerako, edo lenagoko Sakrifizioak?

E. Ziran, Jesu-Kristo bere Aitari egin behar zion, sakrifizioa adirazteko, edo ziran Sakrifizio onen irudi-anzak.

G. Zergatik esaten da, Jesusek erosi ginduala, edo erredimitu ginduala bere Odolarekin?

E. Zeren askatu, ta atera ginduan demonioaren mendetik.

G. Eta zergatik esaten da, desegin zuala, ta galdu zuala erioa?

E. Zeren bere eriotzarekin idiki zigun betiko bizi-tzarako bidea.

XXIII. IRAKURTZA

JESU KRISTOREN PIZTEA, EDO ERRESURREZIOA

Jesu Kristo ill-etzkerok, Josek, ta Nikodemusek eretsi zuen guruzetik haren gorputza, ta aroma, edo ukendu usai gozodun batekin ganzutu, ta ifini zuen obi, edo sepultura batean. Baziekien horduko Eskriba, ta Fariseoak, nola Jesusek esanik zeukan, biztuko zala, ta bizirik illen artetik jekiko zala; ta haren diszipuluak, obitik gorputza ostu, ta eraman zezaelako bildurrez, ifini zituen, obia zaitzeko, guardak. Baña Jesu-Kristo igande batean, il zanetik, irugarren egunean jenki zan bizirik illen artetik ta obi-zaiak gelditu ziran erdi illak, edo illen eran. Nekez sinistu zuen Apostoluak Jesus piztu zanik; bada etzuen sinistu, Jesus bera eren begiz ekusi, eskuz ukitu, ta erekin mai batean jaten ekusi arteraño. Zerura igo baño, lenago askotan agertu zitzairen berrogei egunetan, ta bitarte onetan erakutsi zizten gauz jakin behar asko, ta agindu zien, zijoazela Munduko bazter guzietara, jendeai Ebanjelioa erakustera, edo Zeruetako Erreinuaren berri ona ematera, ta guziak Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean bataiatzera. Onez gañera eman zien, beka-

tuak barkatzeko, eskua indarra, ta podorea: eta agindu zien, aekin egongo zala Munduaren azkeneraño. Ala ere, aek begira zegozkala, igo zan Zeruetara; ta an dago, kriatura guziak baño gorago, Aita Jainko guziz altsuaren, edo guziz poderosoaren eskuian; baña beti diardu, bere irabazi edo merezimenduak gugatik Jainkoari agertzen, ta bere Eleizari laguntzen, illak eta biziak juzgatzer, Zerutik berriz datorren arteraño.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Jesu-Kristo ill ezker, zer egin zan haren gorputzaz?

E. Obi, edo sepultura batean ezarria izandu zan.

G. Zer egin zuen horduan haren etsaiak?

E. Obi-zaiak, edo Guardak ifini ziozkeen.

G. Zein egunetan Jesus piztu zan?

E. Igande batean, il zanetik irugarren egunean.

G. Bereala sinistu zuen Apostoluak, piztu zala Jesus?

E. Ez ain laster; etzuen sinistu, ekusi, ta guzia ukitu arteraño.

G. Zenbat denboran egondu zan haen artean, noizean bein agertuaz?

E. Berrogei egunetan.

G. Zer agindu zien?

E. Zijoazela, Mundu guzian predikatzer, ta bataiatzera.

G. Ta bataioa agintzean, zer erakutsi zigun?

E. Jainkoa dala Aita, dala Semea, ta dala Espiritu Santua.

G. Zer esku indar, edo podore eman zien Apostoluai?

E. Bekatuak barkatzeko indarra, ta podorea.

G. Nola utzi zituan?

E. Aek zekustela, igo zan Zeruetara.

G. Zerura joan zan, egun hura ezker, zer egoera du an, edo nola dago?

E. Dago, Kriatura guziak baño, gorago, eseririk Jainkoaren eskuiko aldean.

G. Nola izan al diteke hori, baldin esan bazien Apostoluai, aekin egongo zala, munduak zirauen arte-raño?

E. Alaxe dago, bada beti Zerutik laguntzen dio bere Eleizari.

G. Nola laguntzen dio?

E. Bere irabaziak gure osasunarako ta onerako Jainkoari eskañiaz.

G. Ez da geiago biurtuko lurrera?

E. Bai: etorriko da, biziai, ta illai kontuak artzera Munduaren azkeneko egunean.

XXIV. IRAKURTZA

ESPIRITU-SANTUAREN

ETORRERA APOSTOLUENGAIN

Pazkoatik berrogei, ta amar egunen buruan egin oi zuen Judatarrak, *Pentekostes* zeritzan, pesta andi bat, Jainkoak bere lege santua erakutsi zien, egunaz oroitzeko, edo akordatzeko. Onelako egun batean, Jesu Kristo piztu zanetik berrogei, ta amargarrenean, Diszipuluak toki batean alkarrekin zeudela, enzun zan bat-batetan, Zerutik bera baletor bezala, etxe guzia bete zuan aize indartsuarena bezalako ots andi bat; ta une artan agertu ziran, suezkoak zirudien, mi batzuek, ta jarri ziran Apostoluen gañean. Horduan guziak bete ziran Espiritu Santuz, ta asi ziran hitz egiten hitzkunzera askoz. Onela hitz egiteak adirazten zuan, Munduko gizon-emakume guziai erakutsi behar ziela Apostoluak Jesu-kristoren Ebanjelioa, edo ark esan zituan, ta egin zituan, gauzen berria. Txit ikaratu ziran Judatarrak, eta San Pedrok, Apostolu guzien buru eginik, adirazi zien, zer zan, begien aurrean zeukeen, miraria, erakusten ziela, onen gañean Profetak alde aurretik esanik zeukeena, ta piztu zala, haek gurutziltzatu

zuen Jesu Kristo, ark bidaldu ziela Espiritu Santua, lenagotik agindu zien bezala; hura zala Jauna, ta Mesias, edo Jainkoaren seme gizon egiña, ta iñor Zerura ezin zitekeala, ezpazan haren izen Santuan, ta bere bekatuen Penitencia egiñaz. San Pedroren hitz-keta, edo Sermoi hau enzun zuenetatik, iru millatara-ño ondu ziran, ta bataiatu ziran. Apostoluak, ta Espiritu Santua artu zuen, gañerako guziak gelditu ziran guziz biotz-aldatuak, len ziran ez-bezalakoak, ta bes-telakoak, eta Eskritura Sagraduan ezarririk dauden gauzak aditzeko, Zeruko argiz argituak. Ezagutu zuen, gizon-emakume guziak bekatariak dirala, Jainkoaren laguntza ta graziaren beharra duela, ta ez dala grazi hau iristen, Jesu-Kristogan sinistu ta baizik. Denbora berean gelditu ziran Jainkoaren amoriozko suz iraze-kiak: su onek eman zien, Jainkoaren mandamentuak gordetzeko, poz-atsegin gozo bat; ta egia mundu guzian agertzeko, indar andi garaiezin bat.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zeri deitzen zioen Pentekostes Judatarrak?

E. Jainkoak legea eman zien, egunean egiten zuen Pestari.

G. Egun onetan zer gertatu zitzaien Apostolui?

E. Espiritu Santuz beteak izatea.

G. Eta zer egin zien Espiritu Santuak?

E. Argitu zituan aen adimenduak, ta adirazi zizten, Eskritura Sagraduan dauden, egiak.

G. Eta zer geiago?

E. Eman zien Jainkoaren amorioa, edo Jainkoari ongi nai izate andi bat.

G. Eta zer egin zuen Apostoluak, Espiritu Santua artu zuen, une artan?

E. Hitzkuntz era askotan hitz egitea.

G. Ta onelako hitzketak zer esan nai zuan?

E. Mundu guzian predikatu beharko zuela Ebanjelioa.

G. Zer esan zuan horduan San Pedrok?

E. Jende guziaren aurrean esan zuan Jesu Kristo zala Mesias, edo Aita Jainkoak Mundura bidaldu zuan seme Jainkoa; ta onek bidaldu ziela Espiritu Santua.

G. Zenbat Jainkoagana erakarri zituan lenbiziko Sermoi onekin?

E. Irumilla.

G. Zergatik Espiritu Santua bidaldua izan zan, Pentekostes zeritzan, egunean?

E. Lege berria agertzeagatik edo publikatzeagatik, lege zarra agertu zan, egun berean.

XXV. IRAKURTZA

JENTILEN, EDO LEGE-GABEKO JENDEEN DEIA

Asko izandu ziran, Apostoluak erakutsi ta Jesusganatu ziran, Judatarrak; baña askoz geiago, erakuste hura ezertan artu etzuenak, eta Apostoluak gogorki erabilli zituenak. Eren setan gogorturik gelditu ziran, Judatar hoek il zuen San Esteban. Santu hau zan, Apostoluak, Eleizaren serbitzerako ordendu zituen, zazpi Diakonoetatik bat, eta Jesu-Kristok erakutsi zuana sinistarazitzeko, eriotza eraman zuan, Protomartir, edo lenengo Martiria. Gero Samariatarrak artu zuen, ta sinistu zuen Jainkoaren hitza: asko ondu ziran, ta bataiatu ziran; eta Espiritu Santua artzeko, Apostoluak ifini zizten eskuak buruen gañean, onela ematen zuela Konfirmazioko Sakramentua. Andik geroxeago etorri ziran Eleizara, ta sinistu zuen Jesu Kristogan Jentillak edo lege bage bizi ziran, jendeak. Oetatik lendabizikoa izandu zan, lenagotik Jainkoa ezagutzen zuan, eta orazio asko, ta limosna andiak egiten zituan, Kornelio Kapitai Erromatarra. Oni bidaldu zion Jainkoak Aingeru bat, esatera, billa zezala Pedro, argandik jakiteko, zer egin behar zuan. Hordu-

ko Jainkoak eman zion Pedrori egiteko onen berria; ta onenbesterekin Kornelioren Etxera joan, ta hitz egiten asi zaneko, ango guziak artu zuen Espiritu Santua, edo grazi ugariagoa, ta hitzkuntz askotan hitz egiteko doaia. Bertatik batai-arazi zituan San Pedro, eta hor-duan asi zan agertzen, Jentilai, Jesusen Eleiz berrirako egin zitzaien, deiaren gauz estalia, edo misterioa. De misteriozko hau da Jainkoak bere nai-on utsez, beste gabe, sinismenik etzuen Jendeak Jesu-Kristoren fede, sinismen, ta graziara ekartea, Juduak ekarri zituan bezala, eta Judu gogortuen lekuan sartzea. Jesu-kristok, Zerura igo ezkerro, amabi Apostoluaz gañera deitu zuan amairugarren bat, Jentilai erakusteko, ta amairugarren Apostolu hau da San Paulo.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nor izandu zan Protomartir edo lenengo Martiria?

E. San Esteban.

G. Zer da Martiria?

E. Lekukoa edo Testigua.

G. Zeren testiguanza edo lekukotasuna egin zuen Martiriak?

E. Ebanjelioan zeuden, egiena.

G. Nor izandu ziran Juduen urrena Ebanjelio sinistu zuen lenengoak?

E. Samariatarrak.

G. Eta nor Jentilen artetik?

E. Kornelio zeritzan Erromako Kapitai bat.

G. Esazu nola izandu zan gauz hori.

E. Kornelio zan, Jainkoaren bildurra zuan, gizon bat, otoiz edo orazio asko, ta limosna andiak egiten zituana. Aingeru batek esan zion, billa zezala San Pedro, edo eramana zezala bere Etxera. Horduko kontuan zegoan San Pedro.

G. Eta zer gertatu zan, Kornelioren etxean sartu zanean?

E. Erakusten asi zaneke, ala hark, nola haren etxe-ko guziak artu zuen Espiritu Santua.

G. Zer egin zuan horduan San Pedrok?

E. Bereala batai-arazi zituan.

G. Zer gauz andi estali, edo zer misterio asi zan horduan agertzen?

E. Jainkoak, Jesu-Kristogan sinisteko, Jentillai egin zien, deia.

G. Eta zertan dago misterio hau?

E. Jainkoak Jentillai deitzean, Judu sinisgorrak utsik utzi zuen, lekua betetzeko.

G. Zerk eragin zion Jainkoari dei hau?

E. Bere ontasun ongi-nai urrikaltasun, edo miseri-kordiak, ez bestek.

G. Nor izandu zan Jendeen, edo Jentillen Aposto-lua?

E. San Paulo.

G. Noiz deitu zaun gure Jaunak?

E. Zerura igo ezkeru.

XXVI. IRAKURTZA

ELEIZ-GITEA

Apostoluak, Espiritu Santua artu, ta banatu ziran Lurraren lau bazterretan; eta Jesu-Kristok agindu zien bezala, joan ziran bata batera, bestea bestera, Munduko guziaz erakustera. Baña lenago batu ziran guziak toki batean, ta maneatu zuen Kredoan: edo zein ziran fededun egiazkoak ezagutzeko, egin zuen ezagunbide siñu señaile edo sinboloa. Kredoan daude laburki bildurik, Jesu-Kristok, ta haren izenean Eleizak erakutsi dizkigun egia sinits beharrak. Ara nolakoa dan:

«Sinisten det Aita Jainko, guziz altsu, Zeruairen ta lurraren Kriatzallegan: Eta haren Seme bakar Jesu Kristo gure Jaun, Espiritu Santuaren lanez, ta graziaz sortuagan, jaio zan Maria Birjinagandik, padezitu zuan Ponzio Pilatosen mendean: izan zan gurutz-iltzatua, illa, ta obiratua: jaitsi zan infernuetara: ta irugarren egunean jeki zan bizirik illen artetik: igo zan Zeruetara: an dago jarririk Aita Jainko guziz altsuaren eskuitik: andik etorriko da biziak, eta illak juzgatzeraz. Sinisten det Espiritu Santuagan: Eleiza Santa Katolika: Santuen

Komunioa: bekatuen barkazioa: aragiaren erresurrezioa: bizitza betikoa. Ala biz».

Apostoluak, Eleizak, edo Kristaubatzeak egitean, utzi zuen Eleiz bakoitzean Ipiztiku, edo Obispo bat, ta onekin batean Sazerdoteak, eta Diakonoak. San Pedrok ezarri zituan, iru Eleizak dira lenenak. Oetatik bat da Erroma, ta emen ifini zuan bere jarleku, Katedera, edo silla: eta nola horduan Erroma zan Munduaren buru ta agintari, ala San Pedrok an ezarri ta ifini zuan Eleiza, da Eleiz guzien buru ta lenengo. San Paulo ere etorri zan Erromara, eta biak eraman zuen Martirioa, Neron agintari zala. Jesu-Kristok egin zuan San Pedrok Apostoluen buru; orregatik haren ondorengo Ipiztiku, Aita Santua deritzana, Jainkoak ala nai, ta da Ipiztiku guzien lenengoa, Jesu-Kristoren ordeko, ta guzien Elizaren buru agiri dana.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zer egin zuen Apostoluak, Munduan banatu ziran baño, lenago?

E. Egin zuen Kredoan.

G. Zer da Kredoan?

E. Kristau fededun egiazkoen siñalea.

G. Esazu Kredoa.

E. *Sinisten det Aita Jainko...*

G. Zer egiten zuen Apostoluak, Eleizak Errietan ifintzeko?

E. Ordentzen ta uzten zuen Erri bakoitzean Ipiztiku bat Sazerdoteakin, ta Diakonoakin.

G. Nork egiñak eta ifiniak dira iru Eleiz nagusienak?

E. San Pedrok.

G. Non ezarri zuan bere Silla, edo eser-lekua?

E. Erroman.

G. Zergatik?

E. Zeren denbor artan Erroma zan Munduaren buru ta agintari.

G. Zer degu orrekin?

E. Aita Santu Erromakoa dala Elizaren buru agiri dana.

G. Zergatik?

E. Zeren dan San Pedroren ondorengoa, eta zeren haren silla, ta jartoki berean eseririk dagoan.

G. Nor da Elizaren buru agiri ez dana?

E. Zeruan dagoan Jesu-Kristo bera.

XXVII. IRAKURTZA

JESU-KRISTOREN, TA APOSTOLUEN ERAKUSTEA

Jesu-Kristok erakutsi zuan, guzia hitzez erakutsi zuan, ta bat-ere eskribitu gabe. Orobat egin zuen Apostoluak lendabizian; bada heren Maisuagandik ikasi zituen, egiak berak erakutsi zitzen ondorengo ikasleai, hoek ere heren ondorengoai erakusteko gaian uzten zituela. Ala Apostoluak erakutsi zuena igaro zan lenengo Ipiztikueta, hoetatik hoen ondorengoetara, ta onela gaurko egunean, erakusteko, kargua duenetara. Erakustearen jarraio ta ondore oni latinez deritza *Traditio*; ta euskeraz adirazteko, esan dezakegu, dala bata besteari, eskutik eskura bezala, ematea; ta bere aurrekoak erakutsi zioen, hura bera ondorengoai erakustea. Bi aldetarako da beraz Jainkoaren hitza: *hitzkribitua*, ta *hitzkribitugabea*. Jainkoaren hitz *iskribitugabea* da, gure lenengo Guraso Adani erakutsi ziona, ta Munduaren asieratik Moisesen denboraraño iraun zuana; eta geroz ere, eskribituak ez dauden, egia batzuek gorde zituana. Hitz eskribitua da anziñako, ta oraingo lege bietako liburuetan dagoana; ta liburu hoei, batera bildurik deritzte *Biblia*. Anzi-

ñako Legeko, edo Testamentu zarreko liburuak dira Moisesenak, ta Profetenak: oraingo Testamentu, edo Lege berrikoak dira, Apostoluak, ta Ebanjelariak iskribitu zituenak: guziak dira sinists-beharrak, zeren Espiritu Santuak agertuak, eta erakutsiak diran. Orobat sinistu behar dira, eskribituak ez izanagatik, aurrenetik asi, ta, eskutik eskura bezala, Kristau guzioi eman zaizkigun egiak, guziz ere Eleizak bere batzarre, edo Konzilioetan erabaki, ta erakutsi dituanak.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zenbat aldetarako da Jainkoaren hitza?

E. Bikoia: iskribitua, ta iskribitugabea.

G. Zer da hitz eskribitugabea?

E. Da, Apostoluetatik Ipiztikuetara, eta hoetatik gugana, eskutik eskura bezala, igaro, ta etorri zakuna.

G. Zer da Eskritura?

E. Lege zarrean, ta berrrian eskribitu ziran Liburuak, batera bildurik, dauzkan, BIBLIA, edo Liburu andi bat.

G. Norenak dira Lege, edo Testamentu zarreko Liburuak?

E. Moisesenak, ta Profetenak.

G. Moisesen denbora baño lenago, nola, aztu gabe, iraun zuen, ta gorde ziran Fedeko egiak?

E. *Tradizioz*, edo Gurasoak heren humeai, ta hoek humeai, ta ondorengoai erakutsiaz.

G. Nork eskribitu zituan Lege berriko liburuak?

E. Apostoluak, eta Ebanjelariak.

G. Zergatik gaude behartuak, Eskriturak diona sinistera?

E. Zeren Espiritu Santuak erakutsia dan.

G. Eta *Tradizioa*, edo lenagokoak hitzez erakutsi ziguena sinistu behar degu?

E. Orobat; bada hau ere Espiritu Santuaren erakustetik datorkigu.

XXVIII. IRAKURTZA

JERUSALENEN GALTZEPENA, TA ERORTEA

Ebanjelioaren berria banatu, ta etziran berealakoan galdu Jerusalengo Erria, ta Judeako Erreinua; bada iraun zuen, lege-gabeko Jendez Kristau-Eleiz berria batu zan arteraño. Ala behar ere zan; Zeren Israeldarren anziñako Elizari zegokan, Lege berriko Elizaren ondo, zimendu, ta sustrai izatea. Baña geroenean ere, Jesu-Kristok alde-aurretik esanik utzi zuan bezala, eldu zan, Jerusalem galtzeko, denbora. Judatarrak asaldatu ziran Erromatarren kontra: hoek inguruan artu zuen Jerusalengo Erria: asi zan guda edo gerra kruel gogor bat; eta sortu zan gose ain ikaragarria, non Amak heren semeak jatera behartu ziran. Aldi onetan il ziran Jerusalem milla bider milla, ta eun milla persona. Tito zeritzan, Bepasiano Enperadoarearen seme batek lurrera egotzi zituan etxe guziak, errerazi zuan Tenploa edo Eleiz nagusia. Onela, anbat Profeten, ta Jesu-Kristo beraren odola isuria izan zan, zori gaiztoko Erri doakabe hura kastigatu zuan Jainkoak. Jesu-Kristo Erredentoretzat ezagutu, ta aitortu nai izandu etzuen, Juduak gelditu ziran katibu Erromata-

rren azpian ta menpean: erbestetuak eta aienatuak izan ziran heren Errietatik, ta banatuak Mundu guzian, ta arrezkero, bizitegi jakinik ez duela, milla, ta zazpi eun urteren buruan bizi dira guziz urrikari ta on-behar egiñak. Hordudanik galdu ziran anziñako legeko Zere- monia guziak; bada arteraño Kristaumentzat ere zille- giak ziran.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zergatik Jerusalengo Erriak, Ebanjelioa Mun- duan barreatu edo publikatu, ta ere, noizbait iraun zuan erori gabe?

E. Lege-gabeko Jendeen Eleiz berria Judatarren Eleiz zarraren sustrai ta zimenduaren gañean ipin- tzeagatik.

G. Nork lurrera, egotzi zuan Jerusalem?

E. Tito zeritzan, Bepasiano Enperadoarearen seme batek.

G. Jende asko ill zan horduan?

E. Milla bider milla, ta eun milla persona.

G. Andia izandu zan gosea?

E. Ain andia, non emakumeren batzuek jan zituen heren humeak.

G. Zergatik Jainkoak ain gogorkiro kastigatu zuan Erri hura?

E. Zeren Jesu-Kristori eriotza eman zion.

G. Zer egin zitzaien gero Juduai?

E. Gelditu ziran besteren menpeko, ta mundu guzian banatuak.

G. Eta gero?

E. Orobat arkitzen dira oraindik ere.

G. Zenbat denbora da?

E. Milla, ta zazpi-eun urte baño geiago.

XXIX. IRAKURTZA

ELEIZAK BERE ETSAIEN ALDETIK

EKUSI ZUAN NEKE,

JARRAIO GAIZTO, EDO PERSEKUZIOA

Apostolu guziak, aen ikasle, edo Diszipulu guziak, lenengo Aita Santuak, eta lenengo Ipiztiku edo Obispoak, guziak eraman zuen Martirioa, ta eman zuen heren bizia, Jesu-Kristoren Ebanjelioak ziona, egia zala, Mundu guziari sinisterazitzeagatik. Jesu-Kristo Zerura igo ezkeru, irur-eun urtean Kristau-Eleizak ekusi zuan gaitzik, eta nekerik asko bere etsaiakgandik; ta ezin kontatu al adiña izan ziran, horduan Jesu-Kristogatik bizia eman zuen gizon-emakume, ta zargazteak. Kristauak etzioen iñori gaitzik egiten, onik asko baizik: Ala ere mundu guziak begitan artuak zeuzkan; zeren eraman ezin zituen, gezurrezko Jainkoai egiten zitzaizten, agurrak, ta gañerako aen arteko gaiztakeri itsusi nazkagarriak. Ascotan Enperadoreak, eta Kargudunak artu zuen, guziak beingoan galtzeko, asmoa. Botatzen zituen erritik urrutira, kentzen zitzen heren ondasunak, sartzen zituen karzeletan, ta iltzen zituen. Baña Kristauak etziran batere bildurtzen: orre-

gatik etsaiak aek kastigatzeko, zebiltzan asmatzen kastigurik gogorrenak: urratzen zizten gorputzeko aragi guziak burnizko azkazalakin, ta ortzakin: erre-tzen zituen surtan: sartzen zituen olio irakiñean, ta berun urtuan: botatzen zituen, artzak, eta leoiak zeu-den tokira, oek heren atzaparrakin puskatu, ta jan zitzeen: larririkitzen zituen, ta ateratzen zizten sabe-lak; zerratzen zituen batzuek, ta egiten zituen erdi bi; besteai ebakitzen zizten, oñak, eta eskuak; ateratzen zizten begiak, ortzak, ta azkazalak. Onelako nekeak zeramazkienak, ta eramaten, ilzeraño irauten zuenak, deitzen ziran *Martiriak*. Alakoak izan ziran San Lorenzo, San Bizente, San Sebastian, Santa Ines, Santa Apo-lonia, ta beste onelako ezin kontatu al adiña. Santu oen obi, edo sepulturen ondoan batu oi ziran Kris-tauak, Jainkoa alabatzera, ta Santu berak Jainkoareki-ko bitarteko artzera.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nola ill ziran Apostoluak?

E. Guziak eraman zuen Martirioa: bai ta Aposto-luen lenengo ikasle edo Diszipuluak ere.

G. Zenbat denboran iraun zuan, Kristauak etsaien aldetik ekusi zuen, neke, edo persekuzioak?

E. Irureun urte.

G. Zer gaiztakeri egin zuen bada Kristauak, etsaiak ain gaizki aek erabiltzeko?

E. Bat-ere; aitziti egiten zuen, egin al ongi guzia.

G. Zergatik bada begitan arturik zeuzkeen?

E. Zeren, Jentilak, gezurrezko Jainkoai egiten zizten, agurrak, buru-berak, eta gaiztakeriak eramaten etzituen.

G. Eta Jentilak aei zer egiten zien?

E. Kentzen zizten haziendak, ta ill erazten zituen.

G. Eta aspertzen ziran onenbesterekin?

E. Ez baldin bere: zeren Kristauak etzeukeen ezertan eriotza; ta orregatik, aek kastigatzeko, asmatzen zituen bestelako kastigu, ta nekepenak.

G. Zer neke, edo zer kastigu zan bada, Kristauai ematen zitzaiena?

E. Zabaltzen zituen erre-burni, edo parrilla gortuen gañean, ta erretzen zituen, jateko aragia erretzen dan bezala; urratzen zizten gorputzeko aragiak burnizko atzazalakin, ta ateratzen zizten, kupida gabe, ortzak, ta azkazalak.

G. Kristauak nola hondratzen zituen Martiri Santuak?

E. Batzen ziran aen obien ondoan, Jainkoa alabatzeneko, ta orazio-giteko.

XXX. IRAKURTZA

ELEIZAKO BAKEA, TA MONJEEN ASITZEA

Zenbat geiago ziran, Jesu-Kristoren fedeagatik, Martiriko eriotza zeramaen, Kristauak, anbat geiago ziran, berriro Kristautzen ziranak. Orregatik bein-ere gogoratu etzitzaien, heren buruak gordetzeko gaitzgi-llai erasotzea, zillegi zanik. Azkenik, nekezko irureun urteren buruan, Jainkoak bere Eleizari eman zion bakea, Konstantino Enperadorea Kristau egin zanean. Horduan asi ziran Kristauak, nai bezala, ta libertade osoarekin Jainkoa serbitzatzen; baña denbora berean kristaurik geienetan epeldu zan, Jesu-Kristori jarraitze-ko, gogoa. Askok zioen auarekin, Kristauak zirala; baña etzeuzkeen, biotzeraño sarturik, Jesu-Kristok erakutsi zituan, egiak; etzituen alabaña gogotik utzi lurreko aberastasunak, ta atsegintasunak, ez eta artu Zerurako ustea ta esperanza. Orregatik, Ebanjelioak ziona, obeki gorde nai zuenak, irten ziran jendartetik, ta sartu ziran mendi eremu basoetan. Onelakoak deitzen ziran Monjeak, edo *Bakartarrak*, ta onenak ziran, San Antonio andiak erakutsi ta Igiton bizi ziranak. Pobre behartsuak bezala, bizi ziran, ur ta ogi barau

zirala, doi-doa artzen zuela, biziarentzat behar zuena, ta esku-lanetan ari zirala: alkarri hitz egin gabe, geie-nean isilik oi zeuden: lo gitxi egiten zuen: maiz ziar-duen oraziogiten, ta Eskritura Santua gogoan erabil-ten. Biziera hau zabaldu zan gero Kristau-Errietan, San Benitok orretarako erakutsi zuan, Erregela gorde-tzen zala, guziz ere Eguzkiz ononzeko alde oetan.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nekezko, edo persekuzioko denboran asko gitxitu ziran Kristauak?

E. Ez, baizik geiagotu; zenbat geiago iltzen ziran, anbat geiago zetozen Jesu-Kristoren sinismen, ta lege-ra.

G. Ta heren buruak gordetzeko, ta nekeetatik ateratzeko, erasotzen zien etsai neke-emallei?

E. Jainkoak debekaturik dauka, Prinzipe, edo Buru agintari nagusien kontra asaldatzea, naiz dala edozein aitzakirekin.

G. Nor izandu zan, Kristau egin zan lenengo Enpe-radorea?

E. Konstantino.

G. Nola gelditu ziran horduan Kristauen gauzak?

E. Askoz obeto; bada Jainkoaren serbitzorako, bazuen, nai adiña esku, ta libertade.

G. Noiz epeltzen, ta galtzen asi zan Kristauen Jainkoaganako gogoia, ta zor zaion ongi naia?

E. Denbor artan bertan, etsai gabe, ta neke gabe bizi ziranean.

G. Zer egin zuen, besteak baño Kristau obeagoak izan nai zuenak?

E. Gaiztoakgandik aldegin, ta baztertu, ta bakartasunean bizi.

G. Nola zerizten onelakoai?

E. Monjeak edo *Bakartarrak*.

G. Nola bizi ziran?

E. Asko barautuaz, beharra egiñaz, ta beti orazio-giten.

KRISTAU-DOTRIÑAREN BIGARREN PARTE, EDO ZATIA

I. IRAKURTZA

FEDEA, ESPERANZA, TA KARIDADEA

Kristau dotriñak, edo Kristauari erakusten zaionak ditu lau zati edo parte; eta dira *Kredoa*, edo *sinisten det Jainko...: Aita gurea*: Jainkoaren legeko *Mandamentuak*, ta Elizako *Sakramentuak*. Kredoa arkitzen da, fedearekin sinistu behar deguna: *Aita gurean*, esperanzarekin eskatu behar deguna; *Mandamentuak* erakusten digue, Jainkoaren amoreagatik egin behar deguna: eta *Sakramentuetan*, oek ematen diguen grazia. Onela *Erljioa* deritzan birtutea, edo Jainkoa hondratzeko ta serbitzatzeko, egin behar dan, guzia dago bildurik fedean, esperanza, ta karidadean. Ezin iritxiditzakegu geren indarrakkin birtute oek: Jainkoak eman beharko dizkigu bere ontasun, ta urrikaltasun, edo miserikordiagatik. Fedearekin sinisten ditugu, Jainkoak bere Elizari, edo Adanegandik asi, ta oraindaniño fededun guzien batze edo batzarreari agertu diona: baitaere anziñako Patriarkak, Profetak, ta Apostoluak erakusten diguen guzia, ta ori guzia egia dala, Jainkoak bere milagroakin adirazi duana, naiz dala iskribitua, naiz hitzkribitugabea. Jainkoak guaza

guziak ekusten ditu, diran bezala, ta ezin dezake, ezdan, gauzarik. Ezin engaña diteke, ta ezin engaña gaitzake: ta orregatik firmekiro, ta dudarik batere gabe, sinisten degu esan duan guzia, geienez ongi aditu ezin badegu ere. Esperanzarekin itxedeten ditugu, iritxiko ditugulako uste guziarekin, Jainkoak agindu dizkigun ongiak, orain emen beraren grazi santua, ta gero Zeruan betiko bizitza. Karidadearekin Jainkoa maite degu, ta onesten degu, beste gauz guziak baño geiago; ta beragatik lagun urkoari nai diogu geren buruai bezala. Karidade edo maitanza da, fedea, ta esperanza baño birtute andiagoa ta ederragoa, ta aek gabe Zeruan beti gurekin iraungo duana.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zenbat gauzatarra dator Kristau-doktriñ guzia?

E. Lautara.

G. Zein dira oriek?

E. *Kredoa, Aita gurea, Jainkoaren Legeko Mandamentuak, ta Elizako Sakramentuak.*

G. Zenbat birtutetan dago *Erljioa* edo Kristauaren Jainkoarekiko egin bide, ta egiteko guzia?

E. Irutan.

G. Zein dira?

E. Fedea, Esperanza, ta Karidadea.

G. Ta iritxi ote ditzakegu gerenez, ta iñork eman gabe, birtute oek?

E. Iñola ere: gure indarraz goragokoak dira, eta Jainkoak doarik eman beharko dizkigu.

G. Zer egiten du gugan fedeak?

E. Sinisterazitzen digu firmeki, Jainkoak bere Eleizari agertu dion, guzia.

G. Nondik edo nola dakigu, Jainkoak gizonai hitz egin diela?

E. Berak egin dituan mirari mirakulu, ta gauz arri-garrien bitartez.

G. Eta zergatik ain firmeki sinisten degu, esan digun, guzia?

E. Zeren Jainkoa ezin engaña ditekean, ta ezin engaña gaitzakean.

G. Zer egiten du Esperanzak?

E. Itxeden Jainkoagan, berak eskeni dizkigun onak, ongiak, ta ondasunak.

G. Zer dira ondasun oek?

E. Bizitz onetan grazia, ta bestean gloria.

G. Zer da Karidadea?

E. Jainkoari, ta lagun urkoari zaien, amore, ongina, ta maitanza.

G. Iru birtute oetatik zein da andiena?

E. Karidadea.

II. IRAKURTZA

TRINIDADEA, EDO IRUTASUN SANTUA

Kredoa, edo Kristau-siñalea da *sinisten det Aita Jainko...* (lenago ezarria dagoan bezala). Sinisten degu ba-dala Jainko egiatzko bakar bat, gauza guzien Jaun Soberano ezin geiagoa, dan guzia egin duana, guzia zaitzen duana, guzia gobernatzan duana, guziz ona, ta Santua, nai duan guzia dagikeana, beti zana, gaur dana, eta beti irauteko dagoana. Da bere Kriatura guzien Aita, bada berak egiñak dira guziak, ta irauten duen artean, diraue, zeren Aita onak bezala dauzkan bere eskuz. Baña guazari dagokan bezala hitz egiten degula, da bakarrik bere seme bakarraren Aita. Seme hau da, Aitak bere barrunbean, Kriatura guziak baño, lenago sortu zuan *Berboa*, edo Hitza, ta *Jakiundea*; eta onen bitartez Aitak egin zuan, egin dan, guzia. Berdin-berdiña da Aitarekin Semea. Aitak ezagutzen du bere burua, ezagutu ditekean adiña, ta duan ezagungarritasunari dagokan bezala, onesten, ta amatzen du bere Semea, onek ere bai bere Aita: eta bien alkarrekiko amore onen bitartez dator Aitagandik, ta Semeagandik, batarekin, ta bestearekin berdin dan, Espiritu

Santua. Onela Jainkoagan dira Aita bat, Seme bat, eta Espiritu Santu bat. Iru oetatik bata iñola ez da bestea; ta iru oetatik bakoitza, beste biak bezala, da Jainkoa; zeren Aitatasuna, Semetasuna, ta Espiritu Santutasuna gauza bana, edo bereziak izanagatik; Jainkotasun bat baizik ez da Irutasun, edo Trinitade hau guzia. Eta ezin izan diteke Jainko bakar bat baizik; bada bi balira, ezin luke batak, besteak duana, ta ez lizake Jainkoa, dan bezala, oso-bete Soberano ezin goragokoa, ezin geiagoa, ezin ederragoa, ezin obeagoa, utsik ta gaberik ez duana.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Esazu Kredoa.

E. Sinisten det...

G. Zer da Jainkoa?

E. Da gauza guzien Jaun gorena, Soberanoa, ta nagusia.

G. Zergatik deitzen diozu guziz altsua, edo guziz poderosoa?

E. Zeren guzia egin duan, ta nai duan guzia daginean.

G. Zergatik deitzen diozu Aita?

E. Zeren berak egin ginduan, zaitzen gaituan, eskutik bezala gauzkan, ta bere humeai bezala begiratzen digun.

G. Zein da Jainkoaren Seme egiazkoa, eta egokia?

E. Da beraren Hitz andia, beraren Jakinduria, berak beregan sortua.

G. Jainkoaren seme hau berdin da bere Aitarekin?

E. Bai: Aita bezain andia, ta ederra da, ta aita adiñakoa.

G. Aita Jainkoak amatzen ta onesten du bere Semea?

E. Bai, eta Seme Jainkoak ere maite du bere Aita.

G. Nola deritza Aitaren, ta Semearen amore oni?

E. Deritza, ta da Espiritu Santua.

G. Norgandik dator hau?

E. Batagandik, ta besteagandik, Aitagandik eta Semeagandik.

G. Ta Espiritu Santua Aitarekin ta Semearekin berdin da?

E. Bai: irurak dira berdin-berdiñak.

G. Iruretatik bata bada bestea?

E. Ez: irurak dira bana.

G. Bakoitza da Jainkoa?

E. Bai: iruretatik bakoitza Jainkoa da.

G. Ta orregatik irurak ote dira iru Jainko?

E. Iñola ere: Aita, Semea, ta Espiritu Santua, irurak dira Jainko bera bakar bat.

G. Izan diteke Jainko bat baño geiago?

E. Orixe da, iñola ezin datekean, gauza bat.

III. IRAKURTZA

JAINKOAREN SEMEAREN ARAGITZEA EDO ENKARNAZIOA, TA GURE EROSPENA EDO ERRENDIZIOA

Jainkoaren Seme bakarra da Jesu-Kristo, gure Jauna: esan nai du, betidanik, eta eternidade guzian Jainkoagan zegoan, Hitz andi edo Berboa egin zala aragi, ta bizitu zala gurekin. Jainkozko Hitz andi hau beti zan Jainkoa, eta Jainko izatea utzi gabe, zeritzan denboraz egin zan gizon, beregana artzen zituala, ta berekin batutzen zituala, gureak bezalako gorputz bat, eta anima bat. Alaz-guzi-arren ere Jainkozko Hitz aragitu hau, edo, (orobat dana) Jesu-Kristo Jainko egiazkoa, ta gizon egiazkoa Persona bakar bat da. *Espiritu Santuaren graziaz ta bertutez sortu zan, jaio zan Maria Birjinagandik.* Jaiotze hau izandu zan nornai arritu zezakeana, ta zana milagro z betea: orregatik Jesusen Ama, Jesus jaio baño lenago, jaiotzean, ta jaio ezker, eta beti-beti izandu zan Birjina garbia. Jesus, Ama Birjinaren Sabelean bizitzen asi zanetik utzi zuan bere Aita eternoak Espiritu Santuz, graziaz, berezko Santutasunez, doaiez, ta bertutez, ezin geiagoraño

betea, ta dan bekaturik txikienarako gairik batere gabe. Gugatik, gure onerako, gure erremediorako, gure animen osasunarako, gu Zeruratzeko, ta an gloriaz ta atsedeen-kontentuz betetzeko, egin zan gizon Jainkoaren seme Jainkoa. Txede onegatik beragatik *padezitu zuan Ponzio Pilatosen mendean: izan zan gurutz-iltzatua, illa, ta obiratua*. Ain andia zan, zigun, amorioa, non pozik, ta nai oso batekin eman zituan bere odola ta bizia, gure Erospenagatik, gu erredimitzeagatik, ta demonioaren katibutasunetik ateratzeagatik.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zein da Jesu-Kristo gure Jauna?

E. Da Hitz edo Berbo aragitua.

G. Zer gauza da Hitz aragitu hau?

E. Da Jainkoaren Semea.

G. Zer esan nai du, *aragitu zala*, edo *aragi egin zala* esateak?

E. Esan nai du egin zala gizon.

G. Eta orregatik Jainkoaren Semea aldatu zan, edo len zanetik besterik egin bazan?

E. Ez: gizon egin zan baño lenago, zan hura bera, ta len bezala Jainko gelditu zan.

G. Baditu gorputz-animak, guk ditugun bezala?

E. Bai: zeren dan gizon oso, utsik gabekoa, ta giza-tasunari dagozkan, gauza guziak dituana.

G. Gizona dan anbatean, noren semea da?

E. Santa Maria Birjinarena.

G. Ta Jainko danez noren Semea da?

E. Bakarrik Jainkoarena, ta ez besterena.

G. Persona bi dira, bada, Jainkoaren Semea, ta Mariaren Semea?

E. Ez, baizik, Jesu-Kristo bakar bat.

G. Zergatik esaten da, Espiritu Santuaren obraz, bertutez, ta graziaz konzebitua, ta sortua izan zala Jesu-Kristo?

E. Ori esaten da guri erakusteagatik, mirakuluz, eta gizonek orretan egitekorik etzuala, sortu zala Birjina baten erraietan, ta jaio zala gero, haren Birjenta-sunari kalterik batere egin gabe.

G. Eta zer geiago onetan esan nai izandu zan?

E. Jesus, Ama Birjinaren Sabelean bizitzen asi zan, lenengo une doi-doi, edo puntu artan zala Santua berez bere izatez, ta jatorriz, bekaturako gairik batere gabe.

G. Norgatik, edo zertako Jainkoaren Semea gizon egin zan?

E. Gugatik, ta gure onagatik, gure animen osasunarako, ta gu Zerura eramateko.

G. Zertako izandu ziran haren Pasioa, ta Eriotza?

E. Gu erosteko, ta demonioaren katibutasunetik ateratzeko.

IV. IRAKURTZA

JESU-KRISTOREN INFERNUETARA JESTEA, HAREN PIZTEA, TA ZERURA IGOTZEA

Jesu-Kristo ill, ta haren gorputza, gurutzetik ertesia, ta obi edo Sepultura batean ezarria izandu zan, ta Anima jetsi zan Infernuetara: esan nai du, jetsi zala, Munduaren asieratik horduraño izan ziran, Santuak zeuden, lurpeko atsedeen toki batera. Jainkoaren Semeak atera zituan andik, an zeuden, Santuak, ta eramane zituan berekin Zerura, hara igo zanean. Haren Animak eriotzan aldegin zuan bere gorputzagandik; baña Jainkotasuna, batagandik, ta besteagandik, kendu gabe, beti gelditu zan biakin batua. Jainkoaren Semea zan, obi edo Sepulturan egon zana; ta hura bera Infernuetara jetsi zana. *Irugarren* egunean biztu zan, Eskriturak esan zuen bezala, edo jeki zan bizirik illen artetik; bada Dabidek, eta beste Profetak alde-aurretik esanik zeukeen, gero Jesu-Kristorekin gertatu zan, guzia. *Igo zan Zeruetara: an dago jarririk Aita Jainko guziz Aldunaren eskuitik. Dio, dagoala jarririk, guri adirazteko, guziz bere erara dagoala atsegin-kontentu, ta atsedete oso bete batekin; eta Aingeruen, ta*

gizonen Errege egiazko, eta Juezik goreena danak bezala, baduala, Zeruan, ta lurrean nai duan guzia egiteko, ahala eskua ta podorea. Jainkoaren *Eskuiak* aditzera ematen digu Jesu-Kristoren diñatasun ta anditasun ezin goragokoa; eta gizona dan anbatean ere, Kriatura guziak baño, goragokoa dala.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Jesu-Kristo ill, ta nora joan zan haren Anima guziz Santua?

E. Infernuetara jetsi zan.

G. Zer diozu? Bekatu mortalean illtzen diranak, eren neke-pen-tormentuak daramazkien, lurpeko su-leizera?

E. Ez, baizik, Jainkoaren grazian ill ziranak zeuden, atsedentegira.

G. Zer bada, arteraño etzan iñor Zeruan?

E. Ez, Mundua egin zan ezkeroztik, ill ziran justuen Animak, Jesu-Kristo etorri zedin, zeuden begira, hark Zerura eramateko.

G. Jesu-Kristoren gorputza obian berezia, edo kenda zegoan haren Jainkotasunagandik?

E. Ez, obian ere zan, ta beti izandu zan Jainkoaren Semearen gorputza.

G. Zergatik esaten da, Jesu-Kristok padezitu zuala, ta biztu zala Eskrituren arauan, edo Eskriturak zioen bezala?

E. Zeren arekin egin zan, guzia Profetak lenagotik esana utzi zuen.

G. Nola dago Jesu-Kristo Zeruan?

E. Jainko guziz Aldunaren eskuian eseririk.

G. Zer bada, Jainkoak badu eskuiko, edo ezkerreko eskurik?

E. Ez, baña ala esan oi da, Jesu Kristoren diñatasun andia guri erakusteagatik.

G. Zergatik esaten da, eserita dagoala?

E. Nai duan bezala atsedeten dagoala, adirazitzeagatik.

G. Eta zergatik geiago?

E. Jueza dala, eta Erregea dala, aditzera emateagatik.

V. IRAKURTZA

AZKEN-JUIZIOA

Jesu-Kristo Zeruan atsedeten badago ere, ez da orregatik bein ere guzaz aaztutzen, beti gauzka bere gogoan, beti ari da gure aldera, eta hark egin zituan irabaziakgatik, artzen ditugu, Jainkoak egiten dizkigun, graziak, faboreak, mesedeak, ta ontarte guziak. Bera da, bere Aita gugatik erregutzen duan, Apaiz nausia, arekin gure bitartekoa, eta beinere gelditu gabe, bein gurutzearen gañean egin zion, Sakrifizio edo doai-eskania, beti agertzen diona. Begira dagoku Zerutik, eta zaitzen ta gobernatzan du bere Eleiza, Arzai, Erakusle, eta beste Eleiz-gizonen bitartez, oei bere graziarekin laguntzen diela. *Andik etorriko da, biziak eta illak juzgatzeraz.* Noizbait bukatu-beharra da, agerrian dagoan, Mundu hau; eta horduan suak erreko du, agiri dan, *guzia*. Eguzkiak, eta Illargiak galduko due eren argia, Izarrak eroriko dira Zerutik, emengo gauz guziak irabiatuko dira, ta ibilliko dira, batzuek gora, besteak bera, batak alde batera, besteak bestera, joko due Aingeruak Tronpetaren soñua, alde guzietatik baturaziko ditue illak, biztuko dira oek,

ta irtengo dira obietatik. Horduan jetsiko da Zerutik Jesu-Kristo odeien gañean, ahal podore, ta Soberandiz beterik. Onak ifiniraziko ditu bere eskuiko aldean, ta gaiztoak ezkerrekoan. Nori berea emateko, guziai artuko dizte eren bizitzako kontuak. Onak eramango ditu Zerura, ta gaiztoak ondatuko ditu Infernuko su-leizean. Ez daki iñork, Juizio, edo kontu-artze hau noiz izango dan; baña gauza jakiña da, izaten danean, ikara-ikara utziko duala Mundu guzia.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Jesu-Kristok, Zeruan dagoala, kontu egiten dio bere Eleizari?

E. Bai, andik ere zaitzen ta gobernatzan du, bere Arzai, Mez-emalle, edo Sazerdoteen bitartez.

G. Ta Jesu-Kristo bera Sazerdotea da?

E. Bai: da gugatik beti bere Aitari eske ta eske dagokan, Apaiz edo Sazerdote nausia.

G. Ta orretarako zer Sakrifizio eskeintzen dio bere Aitari, edo zer present egiten dio?

E. Gurutzearen gañean egin zion, hura bera.

G. Biurtuko da berriz lurrera?

- E.** Bai: Munduak bukatu behar duan, azkeneko egunean etorriko da, biziak eta illak juzgatzerako.
- G.** Zer egingo da azkeneko egun artan?
- E.** Lurraren gañean agiri dan, guzia erreko da.
- G.** Eta zer gertatuko da Zeruan?
- E.** Izarrak eroriko dira, Eguzkia, ta Illargia illunduko dira.
- G.** Eta zer egingo due Aingeruak?
- E.** Tronpetaren soñuarekin batuko ditue gizon-emakume guziak.
- G.** Nolakoa etorriko da Jesu-Kristo?
- E.** Odei baten gañean agertuko da, podorez Majestadez ta Soberandiz betea.
- G.** Nola juzgatuko gaitu?
- E.** Bakoitzari dagokan bezala: ongi bizi bagera, Zerura eramango gaitu; eta gaizki bizi bagera, Infernura egotziko gaitu.
- G.** Noiz izango da Juizio hau?
- E.** Iñork ez daki.

VI. IRAKURTZA

ESPIRITU SANTUA

Espiritu Santua da amorioa Karidadea, edo maitanza; eta Karidade hau da Jainko bera: esan nai du, Aita eternoak, ta bere Semeak alkar amatzen duela, alkar maite duela, ta alkarrekiko amorio onetatik datorrela, biak bezala, Jainko dan, eta biakin berdin dan, Espiritu Santua. Da, biak bezala, Jainko ta Jaun, edo biak diran, Jainko bera, irurak Persona bana badira ere. Orregatik, Aitari, ta Semeari egiten zaizten, ohore ta agur guziak zor zaizka orobat Espiritu Santuari, eta ala ematen diozkagu, esaten degunean: *Gloria Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari, asieran zan bezala, orain, ta beti, ta mendeen mendetan. Amen. Biz ala.* Espiritu hau da, Profeten, Ebanjelarien, eta gañerako Jainkoagandik ikasi zuenen ezpañez hitz egin zuan, Jainkozko Espiritua. Deritza *Espiritu Santua*, zeren ematen digun, jatorrizko bizitzaz gorago dan, gure espiutuaren edo aniamaren bizitza, Santutasuna, eta Jainkoaren gogoko ta adiskide egiten gaituan, grazia. Espiritu Santuaren emaitz edo doai hau da, Jainkoak gure biotzetara isuri duan, bere amorioa; eta amorio

onek ar-erazitzen digu pozik eta gustoz, geren borondatea Jainkoaren bororondatearekin bat egiteko, ta ark nai duana nai izateko, gogoia eta asmoa: eta asmo onekin, gure borondatea utzi, ta Jainkoak nai duana artzen degunean, horduan egiten ditugu, Zerua irabazteko diña diran, obra onak. Guk gerenez ezin deguke atsegin-gustorik, gure gorputzari, ta aragi gaiztoari dagozkan gauzetan baizik: orregatik bada ezin dagikegu gauz onik, Jainkoak Espiritu Santuaren doai, ta graziarekin laguntzen ez digula.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zer da Espiritu Santua?

E. Jainkozko amorioa dan, Jainko bera.

G. Norgandik dator?

E. Aitagandik, ta Semeagandik.

G. Da biakin berdin?

E. Bai: aek bezala da Jainkoa, ta Jauna.

G. Nola agur-egiten diogu Aitarekin, ta Semearekin batean?

E. Esanaz: *Gloria Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.*

G. Zergatik deitzen diogu Espiritu Santua?

E. Zeren bera dan, gure ispirituaren bizitza dan, grazia, ta Santutasuna, edo Jainkoarekiko onak, ta Santuak egiten gaituan, grazia.

G. Zer gauza da Espiritu Santuaren doai hau?

E. Da Jainkoaren amorio, beraren graziaz ta doarik artzen deguna.

G. Zer egiten du gudan, edo zer ateratzen du gugandik amorio onek?

E. Eragiten digu gustoz pozik ta gogotik, Jainkoak nai duana.

G. Eta gusto atsegin poz hau da etorkia, edo, bestek eman gabe, gerenez deguna?

E. Iñola ere: Jainkoak eman beharko digu.

G. Zeren atsegin-gustoa degu bada gerenez?

E. Gure borondateak, ta gorputzak eskatzen diguna egiteko gustoa.

G. Nola bada egin al-ditzakegu, Zerua irabazteko lanak, ta egitekoak?

E. Jainkoaren graziarekin, ta Espiritu Santuaren doaiarekin.

VII. IRAKURTZA

ELEIZARENA

Eleiza da Fededun, edo Sinisle guzien batzarrea ta batasuna; edo da Jainko egiazkoa, beraren Lege egiazkoak erakusten duan bezala, serbitzatzen duen, Fededunen bilguma junta, edo Kongregazioa. Eleiza da *bat*, *Santua*, *Katolikoa*, *Apostolikoa*. Da asko alkar-gana buru baten azpian ongi ta behar dan bezala batutzea, ta da azkenik, Jesu Kristo buru duan, gorputz bat. Ezin beraz Eleiza egon diteke zatitua puskatua edo erdiratua. Orain diogun, Eleiz hau ez da arrizko Eleiza, baizik Jainkoaren sinismena duenez egiten dana. Herejeak dira, Eleizak sinisten duanaz, beste gauzarik erakusten duenak. Zismatikoak dira, Erromako Aita Santua Eleizaren burua dala ukatzen duenak, edo aparteko Eleiz bat asmatzen ta egiten duenak. Eleiza da ona ta Santua, zeren erakusten duan, guzia dan ona, ta *Santua*, zeren Eleizako Sakramentuak diran santuak, zeren Jesu-Kristo beraren burua dan guziz ona, guziz santua, ta santutasun guziaren iturria, eta zeren Eleizan biltzen diran, fededunak santuak diran, guziak ezpadira ere. Orain Eleizan onak

eta gaiztoak alkarrekin nastuak bizi dira; baña azken-juizioko egunean alkargandik bereziko dira, eta onak alde batera, ta gaiztoak bestera ifiniak izango dira. Eleiza da *Katolika*, edo guzierakoa, zeren dan denbora guzietakoa, toki guzietakoa, guziakikoa, ta guzientzat. Orain dan, Eleiz bera zan lenengo guraso Adanen, Noeren, Abrahamen, eta Moisesenerañoeko Patriarken denboran ere, ta Eleiz onek beronek iraungo du Munduaren azkeneraño. Moisesen ondoren izan ziran, haren anai Aaronen odoletik zetozen Apaiz nau-siak, eta oek bukatu, ta Jesu-Kristo. Gero Jesu-Kristoren ordeko gelditu zan San Pedro, ta oni jarraitu zioen oraindañoeko Erromako Aita Santuak. Eleiza luzatzen ta zabaltzen da Munduaren leku guzietaraño, ta guzietan aitortzen du fede ber-bera, ta ditu Sakramentu berak. Ez da Santurik, Eleiz Ama Santuaren batasunean baizik, ta Eleizatik kanpoan bizi diranentzat ez dago Zerurik. Azkenik Eleiza deitzen da *Apostolika*, zeren erakusten duan, Apostoluak erakutsi zuen, hura bera; eta zeren oraindaño izan ditugun Apostoluen ondorengo Arzai erakusleak, batez ere Eleiz guzien Burua dan, Erromako Eleizan.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zer gauza da Eleiza?

E. Da buru baten azpian bizi diran, siniste, edo fededunen batasuna ta bilkuia.

G. Zein dira Sinisle fededunak?

E. Erljio, edo Lege egiazkoari darraizkanak.

G. Ta zein da egiazko Legea?

E. Jainko berak erakutsi diguna.

G. Nondik edo nola ezaguteko degu, Eleiz egiazkoa ote dan, edo ez?

E. Orretarako badira lau siñu, señaile, edo ezagunbide: eta dira Eleiza *bat*, *Santua*, *Katolikoa*, ta *Apostolikoa* izatea. Lau siñu oriek dituan, Eleiza edo Fededunen batzea da bada egiazko Eleiza.

G. Eleiza nola da *bat*?

E. Zeren Buru bakar baten azpian batua dagoan.

G. Zein da Eleizaren Burua?

E. Jesu-Kristo.

G. Eta ez du emen agerrian beste buru bat?

E. Bai: ta ori da Erromako Aita Santu, San Pedroren ondorengoa.

G. Nor dira Herejeak?

E. Eleiz egiazkoak dionaz, beste gauzarik erakusten duenak.

G. Zein dira Zismatikoak?

E. Aparteko Eleiz bat egin nai duenak.

G. Eleiza nolatan da *Santua*?

E. Da *Santua* erakusten duanagatik, dituan Sakramentuakgatik, eta Jesu-Kristo bere Buruagatik.

G. Eleiz-gorputz onen bizikai, edo mienbro guziak Santuak dira?

E. Ez guziak: Eleiza onaz, ta gaiztoaz nastua dago, ta ala egongo ere da Munduaren azkeneko eguneraño.

G. Zer esan nai du *Eleiza Katolikoak*?

E. Eleiza guzierakoak, eta guziakikoak ainbat.

G. Nola da guzierakoa?

E. Zeren Mundua asi ezkeroko denbora guzietakoa dan.

G. Leku guzietara luzatzen, ta zabaltzen da?

E. Bai: Eleiza bat bera da Munduko toki ta bazter guzietan.

G. Zer adirazi nai du *Apostolikoa* izateak?

E. Apostoluak erakutsi zuen, doktriña bera daukala, ta gordetzen duala Eleizak ere.

G. Zer geiago adirazten du?

E. Oraindako Apezpiku, ta Eleiz-arzaiak Aposto-
luen ondorengoak dirala.

VIII. IRAKURTZA

SANTUEN KOMUNIOA

Orain diogun Komunioa ez da bakarrik Aldareko Sakramentuaren komunioa, ezpada Eleizak Animenzat dituan, ondasunak Eliz barrunbean bizi diran fededun guzienzat izatea. Eleizan bizi diran fededunak, batzuek dira baterako, besteak besterako, batzuek erakusteko, besteak ikasteko, batzuek agintzeko, besteak, agintzen zaiena, egiteko; baña oek guziok, alkar-gana fedez ta Karidadez baturik ez due egiten, edo ez dira Eliz bakar bat baizik. Gizonak ditu ekusteko begiak, enzuteko belarriak, hitz egiteko mihia, ukitze-ko eskuak, ibiltzeko oñak; ta orregatik ere oez guziaz ez da egiten, gorputz bat baizik. Gorputzeko zenu oek alkarri laguntzen dioen bezala, laguntzen dioe alkarri Eleizan bizi diranak ere, eta batek egiten dituan; obra onak guzienak dira, Jainkoaren grazian badaude. Eleizatik kanpoan arkitzen diranak, Exkomi-kuak arkitzen diran bezala, ez due besteen lan one-tatik ateratzen, fede-gabeak, edo sinismenik ez due-nak baño, probetxu, edo on geiago. Eskumikatu oek dira, egin dituen, bekatu andien penitentzia egin nai ez

duenak, ta orregatik Elizak beregandik kentzen, ta bereizten dituanak, orretarako eskua duanak bezala. Mundu onetan bizi geran bitartean, guda edo gerra degu barrengo ta kanpoko gure etsaiakin: orregatik, guzaz emen egiten dan, Elizari *deritza* Eleiz *gudaria*, edo Soldadeskan dabillena. Baña Zerukoak, lenagotik etsaiak garaitu, ta benzutu zituelako, orain iñoren bildur gabe, bake osoan bizi dira: orregatik ango Elizari *deritza* eliz *garailea*, edo benzularia. Emen bizi geranok besteen obra onetan nork bere zatia ta puska degun bezala; orobat, Zerukoak Jainkoari egiten diozkeen eske, ta erreguetan degu probetxu ta onik asko. Purgatoriokoak ere gure barau, limosna, otoiz, neke, ta gañerako obra onetan due eren parte; bada, guk haen alde egiten degunarekin arintzen ta gitxitzen zaizte, an daramazkien neke-penak.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zer da Santuen Komunioa?

E. Eliz-barrunbean egiten diran, lan onen irabazia, Eliz berean bizi diran guzientzat izatea.

G. Ta Elizatik kanpoan bizi diranak exkumikatuak bizi diran bezala, Elizan egiten diran, obra onetatik ateratzen due irabazirik, edo ondasunik?

E. Batere, ez-ta Federik edo sinismenik ez duenak ere.

G. Nondik jaiotzen da, batek egiten dituan, obra onak guzien onerako izatea?

E. Guziak gorputz baten mienbro bizikai ta puskek izatetik.

G. Zein dira Elizak exkumikatzen dituanak?

E. Egin dituen, bekatu andien penitenzia egin nai ez duenak.

G. Santuen Komunioa luzatzen da Zeruraño?

E. Bai: an bizi diran Zorionekoak mesederik asko egiten digue eren orazio ta eskeakin.

G. Komunio hau eltzen da Purgatorioraño, edo illen animen Garbitokiraño?

E. Bai-ta araño ere; bada gauden tokitik arin ditzakegu, an daramazkien neke-penak.

G. Nola?

E. Jainkoa erregutuaz, limosmak, eta beste lan onak egiñaz.

IX. IRAKURTZA

BEKATUEN BARKAZIOA

Eliz barrunbean baizik, ez da iñon bestetan bekatuen barkamenik: eta barkazio hau da, Santuen Komunioari darraikan, ondorea. Jesu-Kristoren puskak geralako, arekin ongi bagaude, haren merezimendu ta irabazietatik ateratzen degu nork bere zatia ta partea. Da Jainko gizona, ta Jainko dan anbatean, du, bekatuak barkatzeko, eskua ta podorea. Zerura igotzeko aurrean esku hau utzi zien, berekin bere Eskolan edo Ikastegian azi zituan ikasle, edo Diszipuluai, esaten ziela, *Artu zazue Espiritu Santua: nori ere barkatzen badiozkatzue bekatuak, ta haiei barkatuko zaizte, ta nori ere ez badiozkatzue barkatzen, ta haiei ez zaizte barkatuko*. Bekatuak barkatzeko podorea Apostoluetatik igaro zan, erak ordendu zituen, Mez-emalle edo Sazerdoteetara, oetatik urrengoetara, ta orrela gugaño. Bataioa da lenena bekatuak barkatzen dituana, naiz dala gure lenengo Guraso Adanengandik datorki-gun, bekatu orijinala, edo jatorrizkoa; naiz dirala, batek bere borondatez egin dituanak. Bataiatu ezkerro egiten diran, bekatuak barkatzeko, bada beste erre-

medio bat, eta da Penitenziako edo Konfesioko Sakramentua, bekatu mortalak barkatzeko, nai ta naiez behar dana, ta benial barkakizunenzat ona dana. Bekatu mortala, edo eriozko da Jainkoaren grazia galera zitzen duana, ta betiko eriotza darraikana. Onelakoak dira gizon-illtzea, aragizko bekatuak, ordikeria, lapurreta, ta besteak. Bekatu beniala, edo barkakizuna da Karidadea guziz itzalten ezduana, baña epelzen duan: onelako dira, iñoren kalte gabeko, gezur arin bat, behar dan baño geixeago jate bat, ta beste onelakoa. Bekatu txiki oen barkamena iristea errazago da; baña txikiena ere Jainkoarekiko gaitz andia da.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Elizatik kanpoan badago bekatuen barkamenik?

E. Ez dago: Jesu-Kristok du, bekatuak barkatzeko eskua ta indarra, ta ez bestek.

G. Nori eman zion Jaunak esku hau?

E. Bere Apostoluai.

G. Eta Apostoluetatik norgana igaro zan?

E. Obispoengana, ta Sazerdotengana.

G. Zer Sakramentuz barkatzen dira bekatuak?

E. Bataioz, ta Penitenziaz.

G. Zer gauza da bekatu orijinala, edo jatorrizko bekatua?

E. Sortzen geranean, geren gurasoetatik datorkiguna.

G. Zer da bekatu personala?

E. Da personari dagokana, ta gerok geren borondatez egiten deguna.

G. Zer da bekatu mortala, edo eriotz-emallea?

E. Da, Infernua merezi duana.

G. Zer da bekatu beniala, edo barkagarria?

E. Jainkoaren grazia, ta adiskidetasuna guziz galezazten ez duana.

G. Nola iristen da, batek bere naiarekin egiten dituan, bekatuen barkamena?

E. Konfesio, edo Penitenziaren bidez.

G. Eta jatorrizko bekatuarena?

E. Bataioaren bitartez, ta orobat bataiatzen danaren, beste bekatuena.

G. Bekatu beniala da izugarria?

E. Nolaere dan, bada Jainkoaren aldean bekatu txikiena gaitz andi bat da.

X. IRAKURTZA

ERRESURREZIOA, TA BETIKO BIZITZA

Ez degu serbizatu behar Jainkoa, orain zorionekoak izateagatik; ezpada geroko guretzat gorderik daukan, doatasun, ta zorionagatik. Orain munduko ondasun, ta atsegin-kontentuak geienez gaiztoentzat izan oi dira; ta gauzen gabeak, nekeak, eta atsekabeak onenzat. Ez degu beraz bizi behar, orain ongi izateko ustean; baizik Jainkoak, iltzen geraneko Zeruan guretzat daukan, zori onaren ustean, sinisten degu, gu iltzen geranean, ez dirala ilko gure animak; ta gure gorputzak ustelduko badira ere, Jainkoak bere guzialarekin osatu, ta batuko dituala eren lenagoko animakin, ta gorputz-animak ala baturik, beti iraungo duela inoiz alkargandik aldegin gabe, edo Zeruan, edo beko su-leizean, betiko doatsu, edo betiko doakabe. Gorputz-animak alkarrekin berriro batze oni deitzen diogu *aragiaren erresurrezioa*, edo bizitz berria. Munduaren azkeneko egunean egingo da bizte berri hau; ta horduan guziok joango gera Jainkoaren aurrera, bakoitzak, bere bizian egin duan, guziaren kontua ematera, naiz dala ona, naiz gaiztoa: ongi egiñaren saria izango

da betiko bizitza, ta gaizki egiñarena betiko eriotza, ta neke-pena. Jesu-Kristok dio, oturunz, edo jate andi baten anzekoa dala Zeruko bizia, guri adirazteagatik ango atsegintasuna: *Erreinoa* ere deitzen dio Zeruan bizitzeari, erakusteagatik, lurrean bizi diran Erregeak baño, doatsuagoak dirala, Zeruan bizi diran, Santuak. Zeruari ematen zaion *Paraisuaren* izenak esan nai du, dala, poz-kontentu atsegingarriz beterikako berjera edo baratz bat bezalakoa. Bestelakoa da Infernua, lurraren erdi-erdiko su-leizea. Infernua da, argi gabe-ko presondegi kartzela, ta leize guziz illun bat. An erretzen dira gaiztoak kanpotik, ta barrendik, itzaltzen ez dan, ta sekulan itzaliko ez dan, su batekin. An dira betiko negarra, ortz-karrask-otsak, ta konzienziaren arra, biotz-barrunbeko tristura, damua, urrikia, ta oroitzea, nola izan zuen heren buruak neke-pen oetatik gordetzeko, ta begiratzeko, eskua, ta indarra; ta ala ere, nola heren faltaz galdu ziran, ta atsekabezko leku artara erori ziran. Hau da, gau ta egun, beinere ase gabe, ta atsedeten utzi gabe, utsikiten ari zaien, ta ariko ere zaien arra, probetxu gabeko urrikia, denbora joanez-gerozko damua ta negarra.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Gure Jainkoagandik itxedeten degun, utsik-gabeko zori on, ta doatasun oso-betea oraingo bizitzarako ote da?

E. Ez baldin-bere: onelako ditxa ezda iristen, illezgero baizik.

G. Gu iltzen geranean, gorputzakin batean iltzen dira gure Animak?

E. Ez: Anima ezin illkorra, edo ezin ill ditekeana da.

G. Betiko iltzen dira gure gorputzak?

E. Ez: azken Juizioko egunean berriro piztuko dira.

G. Nola egingo da bizte hau?

E. Il ziran, guziak biurtuko dira, lenago emen izan zituen, gorputz aek berak berriro artzera, ta joango dira Jainkoaren juiziora, egin dituen, lan on, edo gaiztoen kontuak ematera.

G. Kontuak eman, ta zertan geldituko dira?

E. Onak joango dira Zeruko bizitzetik, ta gaiztoak betiko Infernura.

G. Zer gauza da Zeruan beti bizitzea?

E. An poz-atsegin-kontentuz beterik beti irautea.

G. Zer esan nai du Zeruetako Erreinuak?

E. Esan degun, ber-hau.

G. Zertan dago Zerukoen zori on doatasun ta gloria?

E. Aurpegiz aurpegi Jainkoa ekustean.

G. Zer gauza da betiko eriotza?

E. Jainkoa bein-ere ikusi gabe, Infernuan beti surtan erretzen ta erretzen egon beharra.

G. Zer neke dira, gaiztoak Infernuan daramazkien, nekeak?

E. Dira sua, illuntasuna, ta konzienziako arrak egi-ten dizten, utsikiak.

XI. IRAKURTZA

AITA GUREKO ORAZIOA

Aita gurea asitzen dan, Orazioa da orain esatera noana: *Aita gurea...* (gorago). Ezdegu esaten Aita nerea, ezpada Aita gurea, aditzera emateagatik, ez diogula Jainkoari eskatzen guretzat bakarrik, ezpada Eleiz guziarentzat, ta fededun guzientzat. Aita gurea deitzen diogu, zeren beragandik degun geren bizia, geran guzia, ta degun guzia; eta zeren, onez gañera, beraren graziak egiten gaituan bere Seme bakar Jesu-Kristoren anaiak. Jainkoa leku guzietan, ta non nai dago, orregatik ere *Zeruetan zaudena* esaten diogu, zeren an agertzen digun bere aurpegia, ta zeren Zeruak diran, haren gloria, ta esku andi-luze guzitara-koa agertzen diguenak. *Erabil bedi santuki zure izena.* Kriatura guziak ohoratu bezee Jainkoaren izena. Bekatuak dira Jainkoaren treshondragarriak, guziz-ere Kristauak egiten dituenak; bada fede-gabeak, Kristauen bekatuak ikusi, ta uste due ez dala ona, gu bizi geran, legea, eta orregatik etorri nai ez due lege santu onetara. *Betor gugana zure Erreinua:* betor zure grazia, erregiña ez dezan gugan bekatuak, ta betor gero, ill-

ezgeroz uste degun, Zeruko gloria, ta sekulako bizitza. Jainkoaren borondatea egingo da lurrean, Zeruan bezala, geren borondatea utzi, ta harenari garraizkanean, Aingeruak, ta doatsuak Zeruan darraizkan eran, eta gaiztoa izango da gure borondatea, Jainkoarenarekin bat egiten ez danean, ta hark nai duana nai ez duanean.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Esazu Aita gurea.

E. *Aita gurea...*

G. Zergatik ez diozu *Aita nerea?*

E. Zeren nik neretzat bakarrik Jainkoari eskatzen ez diodan.

G. Nola da Jainkoa gure Aita?

E. Zeren naizan guzia, ta dedan guzia, argandik artua dedan.

G. Ta bestela bazera haren Semea?

E. Banaiz haren graziaz, ta beragatik nai Jesu-Kristoren anaia.

G. Zergatik diozu Zeruetan zaudena, bestetan baño geiago?

E. Zeren haren gloria Zeruan obeto agertzen zakun.

G. Nola santu-giten, edo santifikatzen da Jainkoaren izena?

E. Kriatuarak ematen dioen ohorearekin, edo hondrarekin.

G. Nola egiten da *lurrean Jainkoaren borondatea*?

E. Haren graziak gugan erregiñatzen, ta agintzen duala.

G. Ta gure borondatea ona da, Jainkoarenarekin bat eginik ezpadago?

E. Iñola ere: aitzitik orrela ez dagoanean, gaiztoa da.

G. Nor dira, Jainkoaren naimendua edo borondatea Zeruan egiten duenak?

E. Aingeruak, eta Zeruan bizi diran zorionekoak.

XII. IRAKURTZA

AITA GUREAREN JARRAIOA

Egun-oroko ogiak esan nai du egunean eguneko jan-edana, ta bizitzeko, behar dan guzia. Gizon guziak, ala aberatsak, nola behartsuak, jakinik eta ezaguturik egon behar due, Jainkoagandik duela jan-edana, ta duen guzia; ta egunoro biurtu behar gera, gure ogia eskatzera, egun guzietan alabaña asitzen ta berritzen da gure premia beharra, ta nezesidadea. Oñez gañera *ogiaren* izenarekin aditzen da gure animen jan-edana bazka, edo alimentua, eta animaren alimentua da Jainkoaren itza, beraren grazia, ta Aldareko Sakramentu guziz Santua. Eskatzen diogu Jainkoari bekatuen barkamen guzia; bada guziok gera bekatariak, eta egun-oro egiten ditugu, gitxienez, gure kaltean diran, bekatu benial barkagarri, ta uts ariñak. Aita gurea esaten degunean, ontzat daramagu Jainkoak guri ez barkatzea, guk besteai barkatzen ezpadiegu. Bekaturik ez egiteko, eskatzen diogu Jainkoari, ken ditzala gugandik, bekatura garamazkien, tentaldiak. Eta azkenik eskatzen diogu, *begira gaitzala*

gaitz guzitik, bereziki, *gaiztoa* deritzan, demoniaren eraso-aldietatik.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zer esan nai du *gure egun-oroko ogiak*?

E. Bizitzeko behar ditugun, gauz guziak.

G. Eta zergatik deitzen diogu egun-orokoa?

E. Zeren egun guzietan degun haren beharra.

G. Eta zer geiago esan nai du?

E. Gure espirituaren jan-edaria bazka, edo alimenterua.

G. Zer da hau?

E. Jainkoren itza, grazia, ta Jesu Kristo gure Jaunaren gorputza.

G. Gizon guziak egiten ditue bekatuak?

E. Bai: guziok gera Bekatariak.

G. Ta barkatu behar diegu besteai?

E. Bai: Jainkoak guri barkatzea, nai badegu.

G. Zerk bekatu eragiten digu?

E. Tentamenduak.

G. Nola garaitu, edo benzutu aldezakegu?

E. Jainkoaren graziarekin.

G. Zein da *Aita gurearen* azkenean esaten degun, gaiztoa?

E. Demonioa.

XIII. IRAKURTZA

GAÑERAKO OTOIZ, EDO ORAZIOAK

Aita gureaz ateronzean, Kristauak geinean esan oi duen, orazioa da Kredoan; ta da, Jainkoa, berak agertu dizkigun, egiak sinistuaz, hondratzeko: oni darraika, *ni bekataria* asitzen dan, aitormena, edo Konfesioa, eta da, gure bekatuen barkamena eskatzeko: eta azkenik *Agur Maria*, edo *Abe-Maria*, Ama Birjinari, zor zaion, ohorea, ta hondra emateko; eta gugatik Jainkoa otoi ta erregutu dezala, eskatzeko. Kristau guziak jakin behar ditue ta esan egunoro orazio hoek, goizean, ta arratsean bederik. Onez gañera, al duenean, joan behar due Elizara, an esaten diran, ta kantatzen diran, Jainkoaren gauzak enzutera. Gauz oetatik geienak dira, zazpi horduak derizten, Dabiden Salmoak, edo kanta; eta dira *Bezperak*, *Konpletak*, *Matutiak*, *Prima*, *Terzia*, *Sesta*, eta *Nona*, edo hordu lenengoa, irugarrena, seigarrena, ta bederatzigarrena. Alduen bezala leiatu behar dira, Mez-emalleak, mez-ematean esaten dituan, orazioak enzutera, ta aditzera; baita-ere beste Sakramentuak ematen dituenean, ura bedeikatzen duenean, eta gañerako Elizako bedeikazioak egiten

dituenean. Ordea jakin behar due, batek gogoa beste gauzetan daukala, belarri utsakin orazioak enzutea, ta au utsarekin itz onak esatea ez dala Jainkoa otoiztea, ta erregutzea, biotzak ta ispirituak laguntzen ezpadio. Orazio guzien, ta Kristauak sinistu behar dituan, egia guzien bilgun laburra da, batek bere aurpegian egiten duan, gurutzearen siñalea. Gurutzea geren gañean egitean, autan artzen degu Jainkoa, diogula: *Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean*. Onela sinisten degu, ta aitortzen degu Trinitade, edo Irutasun guziz Santua dala Jainko bakar bat, ta iru persona bana. Eskuarekin gurutzea egitean adirazten degu, Jesu-Kristok egin zuan, gure Erospena, edo Erredenzioa, ta onekin batean Jainkoaren Semearen aragitzea, edo Enkarnazioa.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zein dira, Kristauak geienean esan oi dituen, Orazioak?

E. *Aita gurea, Abe Maria, Kredoan, ta Konfesioa, edo Ni bekataria.*

G. *Esaitzu Abe Maria, ta Konfesioa.*

E. 1. *Agur Maria graziaz betea, Jauna da zurekin.*

2. *Bedeikatua zera andreen artean, eta bedeikatua da zure Sabeleko Fruitua Jesus.*

3. *Maria Santua, Jainkoaren Ama, erregu ezazu gu bekatariokgatik orain ta gure eriotzako horduan. Ala biz.*

Ni bekataria Konfesatzen natzaio Jainko Aita guzizaldunari, Maria beti Birjina Doatsuari, Migel Arkanjelu Doatsuari, Joanes Batista Doatsuari, Pedro ta Paulo Apostolu Santuai, Santu guziaz, eta zuri, ene Aita, bekatu geiegi egin dedala gogoz, hitzez, ta obraz: nere kulpaz, nere kulpaz, nere culpa txit andiaz. Hargatik erregutzen diot Maria beti Birjina Doatsuari, Migel Arkanjelu Doatsuari, Joanes Bautista Doatsuari, Pedro ta Paulo Apostolu Santuai, Santu guziaz, eta zuri, ene Aita, erregu diozazuen nigatik gure Jainko Jaunari. Biz ala.

G. *Kredoa esatea da orazioa egitea?*

E. *Bai-ta haren izena santu egitea ere.*

G. *Zer da Aitormena, edo Konfesioa?*

E. *Gure bekatuen ezagumentu humill bat.*

G. *Eta zertako da?*

E. *Bekatuaren barkazioa iristeko.*

G. *Zertako da Agur Maria?*

E. Birjina guziz Santua hondratzeko, ta Jainkoarekiko gure bitarteko izan dedin, eskatzeko.

G. Noiz esan behar ditu bakoitzak lau orazio oek?

E. Egun guzietan, goizean, eta arratsaldean.

G. Zer dira, Eleizan Eliz-gizonak esaten dituen orazioak?

E. Guziz ere Dabiden Kantuak, edo Salmoak.

G. Noiz, edo zenbat hordutan esaten dira Salmo oek?

E. Zazpi hordutan, eta, onela bereizturik, derizte *Besperak*, *Konpletak*, *Matutiak*, *Prima*, *Terzia*, *Sesta*, eta *Nona*.

G. Orazioa, behar dan bezala egiteko, eta Jainkoa otoizteko, ta erregutzeko, asko da auarekin itzak utsik esatea?

E. Ez da asko: biotzetik, ta gogoarekin batean esan behar dira orazioak.

G. Zein da orazio guzien, ta Kristau-doktriña guziaren bilgun laburra?

E. Gurutze Santuaren Siñalea.

G. Zer esan nai due gurutze Santua egitean, esaten ditugun, hitzak?

E. Sinisten degula Irutasun, edo Trinitade guziz Santua, ta deiez gagozkala.

G. Zer esan nai du, bekokitik bularrera, ta ezkerreko besa-burutik eskuikora eskua eramateak?

E. Jainkoaren Semearen aragitzea, ta gurutzearen bitartez egin zan gure erospen, edo Errendizioa.

XIV. IRAKURTZA

AMAR MANDAMENTUAK

Jainkoak Israeldarrai, Eremitik igarotzean, eman zizten, Mandamendu, edo agindeak dira, esatera noan hoek:

1. *Ez dezu iñola ere...* (gorago, ogei ta sei-garren orrian datzan bezala).

Euskal-Errietan erakutsi oi dira, esatera noan, era onetan.

«Jainkoaren Legeko Mandamenduak dira amar. *Lenengoa* da Jainkoa gauza guzien gañean amatzea. *Bigarrena*, haren izen Santuaz juramentu alperrik ez egitea. *Irugarrena*, Jai-egunak santu-gitea. *Laugarrena*, Aita, ta Ama ondratzea. *Bostgarrena*, ez iñor iltzea. *Seigarrena*, aragizko bekaturik ez egitea. *Zazpigarrena*, ez ostutzea. *Zortzigarrena*, falso testimoniorik ez altxatzea, ta gezurrik ez esatea. *Bederatzigarrena*, lagun urkoaren emaztea ez deseatztea. *Amargarrena*, besteren ondasunak ez kutiziatzea. Amar Mandamendu oek sartzen dira bitan: Jainkoa serbitu, ta gauza guzien gañean amatzean, ta zure proximoa zure burua bezala».

EDO BERSUTAN, FRANZIAKO GISAN

1

Jainko bat adora ezazu,
alaber maita osoki.

2

Juramenturik zuk ez dezu,
ez ziñik egingo banoki.

3

Igandeak begira zatzu,
Jauna ere serbitza debotki.

4

Aita eta Ama ohora zatzu,
bizi zaitezen luzeki.

5

Iñor obraz illko ez dezu,
ez borondatez gaiztoki.

6

Paillardiza egingo ez dezu,
obraz ez gogoz likiski.

7

Besterena ostuko ez dezu,
ez guardatu injustuki.

8

Lekukotasunik ez dezu,
ez hitza esango falsoki.

9

Besteren esposik ez dezu
desiratuko lizunki.

10

Gutizia izango ez dezu
besteren onaren gaizki.

BAI-TA BESTELA ERE

Zure legeak hauxek dire, Sinaiko mendian berze horduz Moisen emanak Arabian.

Jainko bat onets ezak, eta adora debotki, eta aren izenaz ez ziñik egin banoki.

Geiago begira zak Igandea sanduki.

Eta burasoak ondra, bizi adin luzeki.

Nihor hill eztezakela, ez biotzez gaitzetsi, ezen bengatzen Jainkoa ni behar nauk sinetsi.

Paillardiza iguinari egiokek ihesa, guztiz ere desira lagunaren Esposa.

Berzeren ona hain gutti beharko duk iduki, guztiz hauzoaren ontasuna ez uki.

Fiñean mihiari emok guardia, ezten gezurti, eta aizen, falseria irauztera, beldurti.

Hauk bi Mandamentura biltzen dituk laburki, zeñak gogoan har ahal baitatzakek errazki.

Jainko bat onets ezak gauza guzien gañetik, eta Kristau laguna ez heronez beheretik.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Esaitzu Jainkoaren legeko amar Mandamenduak.

E. Lenengoa da *Jainkoa gauza guziena gañean amantzea...* (169. orrian dautzan bezela).

XV. IRAKURTZA

LENENGO IRU MANDAMENDUAK

Lenengo Mandamenduan agintzen zaku, Jainkoa ohoretu, edo hondratu dezagula, gure Kreatzalle egille, ta Jaun Soberandiari bezala zor zaizkan, agurrak ta buru-beratzeak egiten diozkagula: ta egiteko oni deritza Jainkoa *adoratzea*. Sinismen edo fedearekin hondratzen ta adorutzen degu Jainkoa, berak Elizari erakutsirik daukana, firmeki sinisten degula: Esperanza-rekin ere ohoretzen degu Jainkoa, berak agindurik dauzkan, ongiak uste oso batekin itxodoten ditugula; eta azkenik maitanzarekin, edo Karidadearekin, geren biotz guziz maite degula, ta haren Mandamenduak gordetzen ditugula. Obeditu behar diogu bada Jainkoari, hark agintzen diguna, egiten degula; otoiz, edo orazio egin behar diogu, behar deguna eskatzen ditugula; hari zor zaion, ohorea berari bakarrik eman behar diogu, ta besterik ez degu hondratu behar, beragatik baizik; ez-ta bera ere, berak erakusten duan, eran baizik. Bigarrenengo Mandamenduan agintzen digu Jainkoak, ez dagigula Juramenturik, egiaren gañean, behar danean, ta gauz onen gañean, baizik.

Mandamendu berean debekatzen zaku *blasfemia*: hau da Infernuko hitzkuntza, eta Jainkoari, ta Santuai bidegabeko hitz gaiztoak esatea. Irugarrengo Mandamenduak agintzen digu, Igandea gorde dezagula, Jainkoak Mundua egin, ta atsedean zuan, egunaz oroitzen gerala; ta Jesu-Kristo illen artetik biztu zan, eguna gogoan daukagula: eta emen bertan sartzen dira gañerako Jaiak, eta Pestak. Guziak gorde behar ditugu, Jainkoari atsegiteko, lan onetan diardugula, jai osoetan Nekazarien esku-lanik egiten ez degula, Meza osoa enzuten degula, Kristau-doktriña enzuten degula, bekatutik, ta bekaturako bide guzietatik iges egiten degula.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zer da Jainkoa adoratzea?

E. Gure Jaun gorenari bezala ohore ta agur egitea.

G. Nola, edo zer bidez hondratzen degu Jainkoa?

E. Fedearen, Esperanzaren, ta Karidadearen bitartez; edo Jainkozko sinistez, Kristau-ustez, ta Zeruko maitantzaz.

G. Nola adirazten degu, onesten degula Jainkoa, ongi nai diogula, ta maite degula?

E. Bere Mandamenduetan agintzen diguna egiten degula.

G. Zillegi da kriaturai, edo Jainkoak egiñak diran gauzai, hondra ematea?

E. Bai, Jainkoari begiratu, ta beragatik hondratzen ditugula.

G. Zillegi da Juramentu egitea?

E. Bai, Juez, edo Agintariren batek agintzen duanean, eta egin bide andiren bati indarra eman behar zaionean.

G. Zer da gure artean Laurenbata, edo atsedeteko eguna?

E. Anziñako legean Laurenbata zan bezala, orain Jesu-Kristoren Lege berrian da Igandea, ta onetara datoz gañerako, gorde behar diran, Jaiak eta Pestak.

G. Zertan ari behar degu egun orietan?

E. Orazio-giten.

G. Eta zertan geiago?

E. Dotriña ikasten.

G. Zer dira Jaietan egin ez behar diran gauzak?

E. Bekatua, ta Nekazariai dagozten esku-lanak.

XVI. IRAKURTZA

LAUGARREN, BOSTGARREN, TA SEIGARREN MANDAMENDUAK

Laugarren Mandamanduak, umeai agintzen diena, da heren Gurasoak hondratzea, haek erakusten diena, humilki enzutea, agintzen duena, egitea, haen atelekak eta kastiguak emeki eramatea, eta gauz guzietan laguntzea. Gurasoen kontra egiten diran, utsak kontuzkoak dira, eta beste lagun urkoen kontra egiten diranak baño, andiagoak. Onez gañera agintzen digu hondra ditzagula Ipiztikuak edo Obispoak, Elizako agintariak, Sazerdote, edo Mez-emalleak, Eleiz-arzai, ta Elezi-gizonak, erakusten diguen, *Maisuak*, Nagusiak, ta gurekiko eskuren bat duen, guziak. Bai-ta ere agintzen digu, hondra dezagula Erregea, ta errespetoa ekarri diezagula, haren ordeztu agintzen duen, Kargudunai, ezaguturik, Jainkoak ipiniak dirala guziak, zein bere tokian. Bostgarren Mandamenduak eragozten eta debekatzen du iñor iltzea, besteri deshorezko, ta bidegabeko hitz gaiztoak esatea, gaitzen bat egiten digunari ordaña biurtzea, nor nai gaitzestea, ta begitan artua idukitzea, gaizki naizko ase-

rretasuna, gaiñez egiña edo geiegia. Seigarrengoak debekatzen ditu esku-ukitze zikin itsusiak, behar ez diran, aragizko atsegina, ta lan galgarriak. Gorde behar da biotza asmo, gogo, edo Jaunaren begietan ongi ez dirudien, pensamentuetatik. Iges egin behar degu lagun gaiztoetatik, alferkeriatik, jan-edan geiegitik, janzi ederregietatik, eta mundutarren andi-nai arro, eta erakerietatik.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nola hondratu behar ditugu Ait-amak?

E. Erakusten diguena, ongi artzen degula, eta agintzen diguena egiten degula.

G. Gauza gaiztoa da Gurasoai damu, naigabe, ta atsekabe egitea?

E. Nola ere dan, eta ez txikia.

G. Nor dira gure Izpiritu edo Animen Aita espiritua-lak?

E. Obispoak, Sazerdoteak, ta Zerurako bidea era-kusten diguen, guziak.

G. Zertara geiago behartzen gaitu Mandamendu onek?

E. Erregeari, ta haren ordekoai obeditzera.

G. Iñor iltzea debekatzen duan, Mandamentuak eragozten du iñor jotzea, kolpatzea, zauritzea, heritzea, eta edozeñ gaitz egitea, dala animan, dala gorputzean?

E. Hori ezezen, bai-ta norbaiti bidegabeko hitzak esatea ere.

G. Zillegi da gaitz egin digunari, gaitza biurtzea, ta arganako bekaitza, gaitzerizkoa, edo gorrotoa biotzean gordetzea?

E. Ez orrelakorik, iñori opa behar ez dio gaitzik, ezta iduki bear ere iñorganako gaitzerizkorik, edo gorrotorik.

G. Zer da, seigarrengo Mandamenduak aragizko bekatuaren izenaren azpian debekatzen diguna?

E. Aragiari atsegín ematen dioen lan lizun desonestu guziak.

G. Aragiari dagozkan, itxura gaiztoko gauzak ikustea, eta haei begira egotea bekatu da?

E. Bai: ikusteak, begiratzeak, hitzketak, gogoetak, pensatzeak, guziak dira debekatuak.

XVII. IRAKURTZA

AZKENEKO LAU MANDAMENDUAK

Zazpigarren Mandamenduak debekatzen du ostutzea, edo besteri bere ondasunak, edo hazienda kentzea; naiz dala ixilik, azpitik, engañoiz, ta Jabea ohar-tzen ez dala; naiz agerrian, eta nai, ta nai ez Jabeari bere gauza kentzen zaiola, edo bere ondasunetan kalte egiten zaiola; bestek guri gurea kentzea naiko ez gendukean bezala. Iñori ezer kendu badiogu, biurtu behar diogu, bestela barkatuko etzaku bekatua. Zer-bait behar badegu, geren nekearekin irabazi behar degu, edo Jainkoaren izenean eskatu behar degu. *Zortzigarrenak* debekatzen du testimonio falsoa, edo gezurrezko lekukotasuna. Esan nai du, Justiziak leku-ko edo testigu deitua danak, ez diola iñori egotzi behar, egin ez duan gaitzik, ez-ta bestela ere. Orobat debekatzen du Mandamendu onek, estalia dagoan, iñoren bekatua agertzea barreatzea, ta besteri esa-tea; bai-ta nolanaizko gezur guziak ere, batez ere lagun urkoaren kalteko diranak. *Bederatzigarren* Man-damenduak debekatzen ditu, Ezkonzaz kanporako, aragiaren atsegin gusto, ta lan zikin desonestuen kuti-

zia, ta nai galdua; bai-ta gauz hoen oroitzapena, edo berak nai duala, buruan ta gogoan erabiltea, ta onela, bere barrunbean aragiaren atsegin galgarria artzea. *Amargarrenak* eragozten du, besteren ondasunak zuzen kontra, edo bide-gabez nai izatea; baña bide onez, zillegi da, bestek gure gauzak bide onez nai izatea, zillegi dan bezala. Deseo edo nai gaiztoetatik jaiotzen dira bekatu guziak; eta ez degu egiten behar-gabeko hondra edo andi-naiak, ondasunen geiegizale izateak, eta aragizko atsegin-gurak eragiten ez digun, gaitzik.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zergatik zillegi ez da besteren hazienda ostutzea?

E. Zeren guk naiko ez gendukean, guri bestek gurea kentzea.

G. Bekatu da, engañioz, ta azpitik bezala ostutzea?

E. Nola-nai da bekatu.

G. Zillegi da, besteri kendua beretzat gordetzea?

E. Ez: biurtu behar da ahal-dan lasterrena.

G. Gezurrezko lekukotasuna, edo testimonia, Justiziari dagozkan egitekoetan ezezen, beste edozein gauzatan ere debekatua dago?

E. Beti da bekatu, eta gaitzik egin ez duana salatzea debekatua dago.

G. Zillegi da, iñork egin duan, bekatuaz hitz egitea?

E. Ez; baldin orretarako behar, edo premi andirik ezpadago.

G. Zillegi da gezurra esatea?

E. Iñola ere: beti esan behar da egia.

G. Zer da, bederatzigarren Mandamenduak debekatzen duana?

E. Atsegin zikin desonesten kutizia ta naikeria.

G. Eta amargarrenak?

E. Besteren ondasunaren nai ta kutizia.

G. Zergatik debekatzen dira kutizia oek?

E. Zeren bekatuak geienen etorki, ta iturburu diran.

XVIII. IRAKURTZA

ELEIZ AMA SANTUAREN

LENENGO IRU MANDAMENDUAK

Eleiza gure Ama da, ta orregatik egin behar degu, ark esaten diguna, eta agintzen diguna. Bost gauza dira, Eleizak agintzen dizkigunak. *Lenengoa da Igandeetan, eta gorde behar diran, beste Jaietan Meza osoa enzutea. Bigarrena da urtean bein bederik konfesatzea, edo lenago, iltzeko perillik uste badu. Irugarrena da Pazko loratuan, edo Garaizumakoan Komulgatzea. Laugarrena da Eleiz Ama Santak agintzen digunean, barautzea. Bostgarrena Amarrenak, eta Premiziak pagatzea.* Eleizaren lendabiziko Mandamenduak agintzen du, Igandeetan, eta gañerako Jaietan Meza nausira, Bezperetara, Sermoietara, eta beste Eleizkizunetara joan ezin danak, Meza oso bat beinzat, gogotik debozioarekin, ta zertan ari dan, ohartuaz enzun dezala. Bigarren Mandamendua da, urtean bein bederik, edo lenago, iltzeko zorian ta perillean jarten bada, edo komulgatu behar badu, bere Apez-aitari bere bekatu guziak konfesatzea, ta aitortzea. Ez da erraz, konfesatzeko premia gabe, ain luzaro irautea;

eta bekatu andiak egin ezkerro, alik lasterrena Jainkoaren grazian jartera, leiatzen ez diranak, ez due merezi Kristauaren izenik. Irugarrengoak agintzen du, Pazko Garaizumakoan komulgatzea, eta Jesu-Kristoren Gorputza artzea, urtean bein gitxienez, bakoitzak bere Erriko Eleizan. Ez dio orregatik Eleizak iñori eragozten, Aldareko Sakramentua maizago artzen; aitzitik naiko luke, komulga litezkean guziak, enzuten dituen, Meza guzietan, anzinako Kristauak egin oi zuen bezala. Ezagumenduan sartu ez diran, aur gazteak, eta zer dan gauz ona, eta zer gaiztoa, ez dakienak, ez daude behartuak, azkeneko Mandamendu oek biok esaten duena, egitera.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zergatik gorde behar ditugu Elizaren Mandamenduak?

E. Zeren Eliza gure Ama dan.

G. Esaitzu haren Mandamenduak.

E. 1. *Igandeetan...*

G. Zertara bada gaude gitxienez behartuak Igandeetan, eta beste Jaietan?

E. Meza osoa enzutera.

G. Eta asko da Mezatan egotea?

E. Ez: begiratu behar da, zertan dagoan.

G. Geren bekatuak noizbait konfesatzera, behartuak gaude?

E. Bai, urtean bein bederik.

G. Eta zergatik?

E. Bekatuaren lokardan denbora luzean ondatuak ez egoteagatik.

G. On da sarritan komulgatzea?

E. Bai, ta ala nai luke Elizak.

G. Ordea egin bide hau betetzeko, ta kunplitzeko, noiz, ta zenbat aldiz komulgatu behar da?

E. Urtean bein beintzat bai.

G. Eta zer egunetan?

E. Bazko loratua, edo Jesu-Kristo biztu zan, Garai-zumako Bazkoa deritzanaren egunetan.

G. Hume txiki gazteak, jaio ziranetik, zenbatgarren urtean dira komulgatu beharrak?

E. Zer dan gauz ona, ta zer bekatua, ezagutzera eltzen diran, urtean.

XIX. IRAKURTZA

ELEIZAREN BESTE BI MANDAMENDUAK

Elizaren laugarrengo Mandamenduak dio, berak agintzen duanean, eta berak esaten dituan, egunetan barautu gaitezela: eta barau-egun oek dira Bazko aurreko Garaizumaren berrogei egunak; orrela barautuaz, ta lan onak egiñaz, prestatu, ta zuzendu gaitzen, gure Jauna illen artetik biztu zan, egunaren Pesta andirako. Onez gañera agintzen du Eleizak, Garta-tenporetan, edo urteko lau denboretan, eta Bijilietan barautzea. Urtearen lau denborak dira Udaberria, Uda, Udazkena, ta Negua. Denbora bakoitzean barautu behar da aste baten iru egunetan, asteazkenean, ostiralean, eta laurenbatean. Bijiliak dira, barautzeko, Elizak berezi, ta autu dituan, Pesta-Bezpera batzuek. Barautzea dago aragirik, ta beste janari debekaturik ez jatean, ta egunean otordu, edo bazkari bakar bat baizik ez egitean, ta ori ere eguerdi ondoan. Zillegi da barau-egunetan, arratsean egin oi dan, afari-usia edo Kolazioa; baña egin behar da, Jainkoaren bildur diran, Kristau onak egin oi duen bezalakoa. Mandamendu onek debekatzen du, ostiral laurenbatetan, eta Garai-

zumako Igandeetan aragia jatea; ostiralean Jesu-Kristoren eriotza, ta pasioagatik, eta laurenbatean beraren obi, edo Sepulturagatik. Badira beste barau-egunak ere; baña ez Erri guzietan era batekoak; bakoitzak, bere Errian erakusten diran, barauak egitea, asko du. Bostgarrengo Mandamenduak agintzen du, *Elizari Amarren-premiziak egitea*. Beharra egiten duan, Langilleari zor zaio bere saria. Gure onagatik, guri Zerurako bidea erakusteagatik, nekatzen dira, Mez-esaten, Sermoi-giten, Sakramentuak ematen, ta gañerako Elizkizunetan ari diran, Apaizak, eta Elizgizonak: zor zaie beraz, bizitzeko, behar duena. Anzinako legean Jainkoak bere hitzez agerrian aginduzuan, horduko Eliz gizonai amarrenak ematea. Oraingo Jesu-Kristoren Lege berrian ez du esaten Jainkoak, zenbat eman behar dan; baña Elizak agintzen du, berarentzat behar dirala lenengo frutuak, eta amarretatik bat Apaizentzat. Amarren-premiziak egiteko usadioa Erri guzietan ez da bat: egiteko onetan bakoitzak jarraituko dio, bere Errian ekusten duan, uso, ta oiturari. Kristauak ez daude behartuak, amarren-premiziak onenetik egitera; baña siñale txarra da, beretzat onena artu, ta Jainkoari, eta Elizari adiñona ematea.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zertara behartzen gaitu, baraua agintzen duan Mandamenduak?

E. Aragi, ta beste janari debekaturik ez jatera, ta egunean otoruntz, edo othordu bat baizik ez egitera.

G. Ta othorduz kanpora ezer jan diteke baru-egunetan?

E. Gauza gutxi, eta afari-usia dala, bai.

G. Afari-usi onetan, edo Kolaziotan zenbateraño jan diteke?

E. Kristau onak, ta Jainkoaren bildurtiak jan oi duen, anbateraño.

G. Zertako barautu behar gera Garaizumako egun guzietan?

E. Bazko-Pesta andirako presta gaitezenzat.

G. Zer dira urteko lau denborak?

E. Dira urtearen denbora bakoitzean atera behar diran, asteko iru barau egunak.

G. Zergatik Elizak Ostiral larunbatetan debekatzen du aragia?

E. Guri Jesu-Kristo gure Jaunaren Pasioa, ta Sepultura gogorazitzeagatik. Orain debeku onetan ez da sartzen Larenbata.

G. Zenbar Amarren, eta zertatik egin behar da?

E. Obispaduko, ta Erriko besteak egiten duenetik, eta aek bezala.

G. Onena eman behar zaio Amarrenari?

E. Ez beinzat gaiztoena, bada Jainkoak emanak dira guziak, eta siñale txarra da, onena beretzat artu, ta Jainkoari, ta Elizari adiñona ematea.

XX. IRAKURTZA

SAKRAMENTUENA

Guk geren indar utsakin ezin dagikegu, Jainkoak bere Mandamenduetan, agintzen diguna: orretarako berak bere graziarekin lagundu behar digu, lagunz hau Sakramentuen bidez ematen digula. Sakramentua da, ezin ekusi ditekean, graziaren siñale agiri dana, eta berak, gure animetara dakarren, grazia eza-gurazten diguna. Ala Bataioko Sakramentuan, bataiatzen danaren gorputza urak kanpotik bustitzen, eta garbitzen duan, denbora berean Jainkoaren graziak barrendik garbitzen du anima, ta kentzen dio bekatuaren narrioa, edo mantxa. Sakramentu bat artzen duan edozeñek, Jainkoak erakutsi dituan egien sinismenik, edo federik baldin badu, eta artzeko, behar dan bezala prestatzen bada, seguru jakinik badagoke, Mundu onetan bizi gerala, jakin dezakegun anbatean, baduala, ondasunik andiena dan, Jainkoaren grazia. Jesu-Kristo gure Jauna da Sakramentuak utzi zizkiguna, bere Odol, Pasio, ta Eriotzaren merezimendu, ta irabaziak guganatzeko, ta guretzat izateko; eta utzi zituan, guk, animen bizitzarako behar degun, guzirako.

Bataioaren bidez sartzen gera Elizaren kolkoan, ta uraren, ta Espiritu Santuaren bitartez jaiotzen gera berriz, egiten gera Kristau, ta Jainkoaren, ta Elizaren hume. *Konfirmazioak* ematen digu, Jainkoak erakutsi dituan, egiak, len baño biziroago, eta biotz geiagorekin sinisteko, indarra. Eukaristiak, *Komunioak*, edo Jesu-Kristoren Gorputz Santuaren Aldareko Sakramentuak maiatzen, ta mantentzen gaitu, ta ematen die gure animai, bizitzeko, behar duen, mantenua. *Penitenziak* sendatzen ditu gure animen gaitzak, eta eritasunak. *Azken-oliadurak* ematen dizkigu horduan animako, eta gorputzerako behar ditugun laguntzak, eta indarrak. *Ordenak* ematen dizkigu, Eliz-gauzak egiteko, guri Zeruko bidea erakusteko, behar ditugun, Apaizak, eta Erakusleak. *Ezkontza*, edo Matrimonia da, humez bein mundua, ta gero Zerua onez, ta Santuz betetzeko, Jesusek utzirikako, Sakramentua. Oek dira zazpi Sakramentuak.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zer gauza dira Sakramentuak?

E. Dira Jainkoaren graziaren, siñale sentigarri, agiri diran, batzuek.

G. Ta graziaren behar gera?

E. Bai baldinbere: ori gabe ezin dagikegu gauz onik.

G. Ondasun andiren bat da beraz Sakramentuak, behar dan bezala, artzea?

E. Oraingo bizitzan dan andiena.

G. Nork utzi zituan Sakramentuak?

E. Jesu-Kristo gure Jaunak.

G. Zertako?

E. Bere odol garbi, preziotsu, baliotsuaren irabaziak, eta merezimenduak guganatzeko.

G. Zenbat dira Sakramentuak?

E. Dira zazpi.

G. Esaitzu.

E. Lenengoa, *Bataioa*. Bigarrena, *Konfirmazioa*. Irugarrena, *Penitentzia*. Laugarrena, *Komunioa*. Bostgarrena, *Azken-oliadura*. Seigarrena, *Ordena*. Zazpi-garrena, *Ezkontza*, *Matrimonioa*.

XXI. IRAKURTZA

BATAIOA

Ezin iñor sartu diteke Jainkoaren Erreinuan, lenago urez, ta Espiritu-Santuz berriro jaioa ez dala. Gizon guziak ill ziran, Adanen Sagar-jate gaiztotik zetorkien, bekatu orijinal, edo jatorrizkoaren bidez; ta bataitzen diran, guziak bizten dira Jesu-Kristogan. Guzientzat beharra da beraz Bataioko Sakramentua; bai-ta aur jaio-berrientzat ere. Azia ta anditua bada, bataiatzen dan, gizona, edo emakumea, eta berak eginikako bekatuak dituana, oriek ere barkatzen zaizka bere bataioan, bere bekatu etorki orijinalarekin batean baita oriei zegoten, Infernura beharra ere. Onetarako, bataitzen danak, ongi jakin, eta sinistu behar du Jesu-Kristoren Lege Santua; eman behar du, Lege onek diona, egiteko hitza; utzi behar ditu Satanas, ta haren lanak, haren arrotasun, eta arinkeria guziak; agindu behar du, obeto biziko dala aurrerakoan, ta gordeko dituala Jainkoaren Mandamenduak. Bataiatzen dana, aurra bada, haren ordeztu Ait-ama Pontekoak eranzuten due, eta hitza ematen due. Bataioa egiten da, bataiatzen dana, gain-bera urez bustiaz, denbora berean

esaten duala, ori egiten duanak: *Nik bataiatzen zaitut Aitarean, ta Semearen, ta Espiritu-Santuaren izenean.* Al bada, Elizan egin behar da Bataioa, ta Apaizak egin behar du; baña estutasunean, edo premian edozeñek, naiz gizonak, naiz emakumeak, egin dezakean, gauza da, ta dakianak, egin behar duana; Bataio gabez galdu ez dedin Anima. Bataioa ezin egin diteke baten gañean bi bider, eta iñor ezin bataiatu diteke, bein baño geiagotan.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zertako behar da Bataioa?

E. Zeruetako Erreinuan sartzeko.

G. Nola egiten da Bataioa?

E. Bataiatzen danari, burutik bera ura egozten zaiola, eta horduan hitz batzuek esaten dirala.

G. Zein dira hitz oriek?

E. *Nik bataiatzen zaitut...*

G. Zer egiten du Sakramentu onek?

E. Kentzen ditu bekatu guziak.

G. Zer bekatu bada izan al-dezake aur jaioberriak?

E. Du bekatu jatorrizkoa, edo bekatu orijinala.

G. Nondik dator bekatu ori?

E. Adanek egin zuan, bekatuagandik.

G. Ezagumentuan sartu ezkerro, edo ezaguerara elduz geroz, bataiatzen danak, zer egin behar du?

E. Sinistu, ta aitortu behar ditu, Kristau-Dotriñak erakusten dituan, egia sinis-beharrak.

G. Zein dira, bataiatzen danak utzi behar dituan, gauzak?

E. Demonioa, haren lan, arrotasun eta arinkeriak.

G. Zer agindu behar du?

E. Jainkoaren Mandamenduak gordetzea.

G. Ordea Aur jaio-berriak nola egin al dezakee, esan deguna?

E. Aen ordez Ait-ama Pontekoak egiten due guzia.

G. Bataiatu diteke iñor bi bider?

E. Ezin bataiatu diteke, bein baizik.

XXII. IRAKURTZA

KONFIRMAZIOA

Bataioaren urreneko Sakramentua da *Konfirmazioa*. Ongi lizateke, guziak Sakramentu hau artzea; ez da ordea beharrezkoa, edo, nai, ta nai ez, artu behar dana, borondatezkoa baizik, eta orregatik etzaie ematen aurrai, bataiatu, ta berealakoan, ezpada, orretarako jakin behar dana, ikasten duenean. Gurasoak erakutsi behar die kontuz heren humeai dotriña, ta al bezanbatean, bialdu behar ditue Elizara, ta Eskolara, Apaizak, eta Eskola-Maisuak erakusten duena, ikastera: ta dotriña jakin gabez, humeak galtzen badira, Gurasoak eman beharko dioe Jainkoari kontu estua. Humeak ere egin behar due egiñ-ala eren aldetik, dotriña ikasteko, ta eren bizian aztutzen, ez uzteko. Ikasi duenak, Apezpiku Jaunagana joan behar due, ez du iñork alabaña, ark baizik, Konfirmazioa emateko, eskurik. Zabaltzen ditu Apezpikuak bere eskuak, konfirmatu behar dituan Aurren buru-gañetan, ta, Espiritu Santuari deituaz, ganzutzen ditu guzien bekokiak, olio, ta balsamoz eginikako, Krismarekin, ta ganzutzean, egiten dio bakoizari gurutzearen señailea.

Sakramentu onek gure animetan egiten duana, da, gu, izan behar degun bezalako Kristau onak egitea, Jesusen gurutzeaz ez lotsatzeko, etsaiaren tentu gaiztoai gogortzeko, ta Jainkoaren izenean edozeiñ neke emeki eramateko. Ori adirazitzeko, ematen dio Obispoak, konfirmatzen danari, masalleko bat. Konfirmazioa ez da ematen, bein baizik, Bataioa baño, ez geiago, ta ez gitxiago.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Noiz eman behar zaie Aurrari Konfirmazioa?

E. Orretarako, behar adiña, ikasirik daudenean.

G. Nor da, Aurrari dotriña erakusteko, arta, ardura, edo kontua iduki behar duana?

E. Ait-amak daude orretara behartuak.

G. Eta zer da Aurren egin bidea?

E. Erakusten zaiena, kontuz enzun, ta buruan ondo gordetzea.

G. Nor da, Konfirmazioa emateko, ahal esku indarra duana?

E. Apezpikua, edo Obispoa bakarrik, eta ez besterik.

G. Zer da, Apezpikuak orretan egiten duana?

E. Zabaltzen ditu bere eskuak, konfirmatu behar diran, Aurren gañean, Espiritu-Santuari deituaz.

G. Eta zer geiago?

E. Egiten die Krisma Santuarekin bekokian gurutze bat.

G. Zer esan nai du guzi onek?

E. Kristau on behar bezalakoak izateko, artzen degula Sakramentu onen bidez Espiritu-Santua.

G. Zertan dago Kristau behar bezalakoak izatea?

E. Etsaiaren tentamendu guziaz, gogortu, ta kontra-gitean, ta Jesusen izenean edozein bide-gabe, nai-gabe, ta atsekabe jasotzeko, prest egotean.

G. Artu diteke Konfirmazioa, bein baño, geiagotan?

E. Ezin artu diteke, bein baizik.

XXIII. IRAKURTZA

ALDAREKO SAKRAMENTUA

Komunioa, edo Aldareko Sakramentua da, gure Animen jan-edanerako, ta sustenturako, Jesu-Kristo gure Jaunak ematen dizkigun, bere gorputza, ta odola. Beregan gorderik dauka Sakramentu andi onek ogiar-doan azalpe batean, edo ogiaren, ta ardoaren ainzura, ta iduripean, ogiaren, eta ardoaren soñekoz, ta akzidentez estalirik, Jesus guzia bere gauza guziakin. Mezan egiten da, eta ematen da Sakramentu hau; ta Meza da, Jesusek, bere buruaz, gizon-emakume guzien bekatuen barkamendurako, bere Ait-eternoari gurutzean egin zion, present, doai-eskañi, edo Sakrifizioaren iduri, edo anza, eta Jesusen gurutzeko eriotza gure oroizmen, edo memoriara erakarten duana. Anziñako Legean Jainkoari egin oi zizaizkan, Sakrifizioak etziran, Jesu-Kristok bere biaz gurutzeko eriotzarekin bere Ait-eternoari egin zion, eskañi, edo Sakrifizioaren anz-iduri, eta itxura baizik: ta gurutzeko Sakrifizio andi onen oroizmen, edo memoria berritzen du, ta haren indarra, ta balioa guganatzen du, egunoro esateko, Jesu-Kristok utzi zigun, Mezak. Mez-emalleak adiraz-

ten du Mezan, nola Jesu-Kristok egin zuan Sakramentu hau, ill behar zuan, bezperan; Esaten ditu, horduan ark esan zituan hitz berak, eta hitz oen indarrez ogi guzia aldatzen da bereala une artan bertan Jesu-Kristoren gorputz izatera, eta ardo guzia haren odolera, aldatze hau begiz ekusten ez bada ere. Gure begiak Sakramentuan ekusten duen, guzia da ogi mee, edo hostia zuri baten iduri, edo ainzura bat; Baña fedeak, edo siniste onak agertzen digu Jesusen gizatasuna, ta Jesus beraren Jainkotasuna, eta, tasun oriei dagozten, gauza guziak. Jesus oso, guzia dago ogiaren, ta ardoaren itxurapean, ta berebat guzia osoa itxura bakoitzaren zatirik, edo piskarik txikienean: ez da orregatik kentzen Jesus Zerutik, an dagoan hura bera da, emen Munduko Sakramentu guzietan dagoana.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zer gauza da Aldareko Sakramentua?

E. Da, ogiaren, ta ardoaren anz ta iduripean dagoan Jesu-Kristo gure Jaunaren gorputza, ta odola.

G. Zertako eman zitzakun onela?

E. Gure Animen bazkari, ta sustentu izateko.

G. Non egiten da Ekuskari miragarri hau?

E. Mezako Sakrifizio Santuan.

G. Zer da Meza?

E. Jesu-Kristok bere buruaz gurutzeko eriotzarekin Ait-eternoari gure alde egin zion, Sakrifizioaren anziduri erakuslea.

G. Zer mirari, edo milagro da, Mezan gertatzen dan, Milagroa?

E. Ogi-ardoak itzultzen, eta aldatzen dira Jesu-Kristoren gorputzera, ta odolera.

G. Nola egiten da aldaera ori?

E. Sazerdoteak esaten dituan, Jesusen horduko hitzen bitartez, ta indarrez.

G. Nola ordea izan al diteke ori, baldin hitz oriek esanez-geroz ere, guk an, len bezala, ogia, ta ardoa ekusten badegu?

E. Ori gertatzen da, zeren ogi-ardoak an ez egonagatik, an gelditzen dira aen iduri, edo ainzurak.

G. Nola bada ezagutuko degu, an dagoala Jesu-Kristo?

E. Fede, edo siniste onaren bidez; bada ala dala sinisteko, asko da, ez dan gauzarik ezin esan deza-kean, Jesu-Kristok esatea.

XXIV. IRAKURTZA

KOMUNIOA

Maiz jan gabe, eta osasun gabe, ezin iñor bizi diteke. Animaren ispirituzko bizitza da Jainkoaren grazia: ezin beraz bizi diteke, grazi hau ematen duan, Aldareko Sakramentua noiz edo noiz artu gabe. Zenbat geiagotan bat komulgatzen dan, edo Jesusen gorputz Santua artzen duan, anbat indartsuago, portitzago, sendoago, kementsuago, ta bizkorrago egiten da Animaren grazizko bizitza. Illak ezin jan dezakee: ta osasundunari on egiten dion, janari berak gaitz egiten dio eri gaxoari. Orobat bada, grazizko bizitza, ta osasunarekin Aldareko Maira dijoanari, on egiten dio Sakramentu Santu onek; baña zertan ari dan, eta zer artu behar duan, ohartu gabe, dijoanari, eta Jesusen gorputz Santua, beste edozein janari baliz bezala, bekatu mortalean dagoala, artzen duanari, gaitz egiten dio. Onela komulgatzen danak, bere kondenazioa, ta Infernura joan-beharra jaten, ta edaten du. Sakramentu Santuaren irabaziak, eta ondasunak Komunitatik atera nai dituanak, ongi prestaturik, ta apaindurik eraman behar du bere Anima, Fedeko mirari, edo Misterioak

ongi sinistua, batez ere Sakramentu miragarri artan dagoala egiazki gure Jainko Jesus bere gauza guziakin; eta joan behar du, bere etsai guziakin lenago bakeak eginik, ta iñori gaitzik nai ez diola. Eta nola Aur txikiak, gauz oek ezagutzeko, gai ez diran orregatik ematen etzaie Komunioa, ongi ikasi arteraño. Sakramentu hau, bizitza onetatik besterako abian daudenai, ematen zaienean, deitzen da *Biatikoa*, edo biderakoa, zeren dan, Animak Zerurako bere bide luze andian behar duan, jatekoa.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Gauza beharra, ta premiazkoa da, Aldareko Sakramentua noizbait artzea?

E. Biziko bagera, bai: hura da alabaña gure Anima-ren sustentua.

G. Zer egiten zaio, bakan, edo gitxitan komulgatzen danaren, Animari?

E. Argal, indar gabe, eta txarki egotea.

G. Ordea on egiten die Jesu-Kristoren gorputzak, Komunioan artzen duen, guziai?

E. Ez guziaz, ezpada grazian daudenai, eta behar dan bezala, ongi prestaturik, eta zuzendurik artzen duenai.

G. Nolakoak dira, Jauna artzeko, behar diran, prestatzeak, zuzen-bideak, ta apaingarriak?

E. Lendabizian, bekatuaren loietatik garbitu, ta graziaz apaindurik egotea.

G. Zergatik bada bekatu mortalak iñori eragozten dio komulgatzea?

E. Zeren bekatua dan, Anima illtzen duan, erio gaiztoa, eta illik dagoanak, janaria ezin artu dezakean.

G. Eta nolakoak dira, komulgatzeko behar diran, gañerako prestanzak, ta zuzendu-bideak?

E. Fedea, edo Jainkoak agertu dizkigun, egien siniste ona, eta bertute guziak, berezkiro lagun urkoarekiko karidatea, onerizkoa, eta ongi naia.

G. Gaizki andia da, bekatu mortalean dagoala, komulgatzen danak, egiten duana?

E. Bere kondenazioa, eta infernura beharra jatea, adiñakoa.

G. Zer da *Biatikoa*, edo biderakoa?

E. Da, iltzeko urrean arkitzen diran, eriai ematen zaien, azkeneko Komunioa.

XXV. IRAKURTZA

PENITENZIA, EDO KONFESIOA

Bataioa, ta Konfirmazioa artuz-geroz, ez lukee behar Kristauak eriotzaraño, Aldareko Sakramentua baizik. Baña zeren bataiatu-rikako geienak galtzen duen horduko beren grazia, ta Jainkoari zor zaion amorea, eta zeren egiten dituen bekatu andi agitz itsusi, Animaren iltzalle, ta Infernura-malle diranak, bataiatuz geroko bekatu orien barkamendurako, eman izandu zigun Jesusek Konfesioko Sakramentua. Ordea Sakramentu onekin bere burua bekatuen azpitik atera nai duanak, Jainkoagan sinisten duala, ta haren bildur dala, artu behar du, Jainkoa, bere bekatuakin aserratu dualako, damua, geiago orrelako gaizkirik ez egiteko, asmo sendo egiazkoarekin. Damu-urriki onek nolaerebait miñez ausitzen du bekatararia-
ren biotza: orregatik deritza *kontrizioa*, edo ausitzea, eta da, Jainkoari zor zaion, amore ongi-naiaren asiera bat. Bi aldetarakoa da damua, edo dolorea: bata da *onesdamua*, onetsi behar lukean, Jainko guziz ona aserratu dualako, bekatariak biotzetik arzen duan, damua. Besteari deritza *izu-damua*, Infernuak izutu,

eta ara erorteko, bildurrak bekatariari ar-erazten diona. Biak dira onak; baña bata, bestea baño, obeagoa. Ona da *izu-damua*; ordea berez utsik, ta Konfesio gabe ez da, bekatuak barkatzeko diña. Obeagoa da, *Kontrizioa* esaten diogun, *ones-damua*, asko da alabaña, batek dituan, bekatu guziak barkatzeko. Orra bekatariak, ongi konfesatzeko, lenengotik egin behar duana. Gero ekusi behar du, zenbat diran, eta nolakoak, egin dituan, bekatuak; eta aitortu, ta agertu behar diozka Konfesariari, diranak, diran bezala, bat ere utzi gabe, ta estali gabe. Azkenik artuko du ematen zaion penitentzia, ta absolbioa. Konfesariak eman oi dituen, penitentiak dira Orazioa, baraua, ta limosna, ta oei dagozten, gauzak; ta ematen ditu, bekatuaren anditasunari, eta bekatariaren egin-ahalari begiratzen diola.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Norentzat egiña da Konfesioko Sakramentua?

E. Bataiatuz geroz, bekatu mortalen bat egin duanarentzat.

G. Zer da bekatu mortala?

E. Da Jainkoaren grazia galerazten duana, eta betiko eriotza Infernuan darraikana.

G. Zer da, Sakramentu Santu hau artzeko, Kristauak egin behar duana?

E. Damuz beterik, Konfesariari bere bekatuak agertzea, ta ark agintzen duana, egitea.

G. Zer gauza da *Kontrizioa*?

E. Da bekatu egiñaz damutzea, eta berriz ez egiteko, asmoa artzea.

G. Gaitz etsi diteke bekatua, Jainkoa onetsi gabe, eta Jainkoari ongi nai etzaiola?

E. Jainkoari zor zaion, amorioa andi, bero, irazekia ez izanagatik;
amorio onen asieraren bat beinzat behar da.

G. Nola esan behar diozka Konfesariari bekatariak bere bekatuak?

E. Bat ere isildu gabe, ta estali gabe.

G. Zer da Satisfazioa, edo bekatuarekin egin zan, zorraren ordaña?

E. Konfesariak agintzen duana, egitea, eta ark emanikako penitenzia betetzea, edo kunplitzea.

G. Nolakoak izan oi dira penitenzia oek?

E. Dira Orazioak, barauak, ta limosnak.

XXVI. IRAKURTZA

GAI BERARI DARRAIKANA

Bekatariak bere bekatuak esan, eta eman zaion, penitentzia egiteko, hitza emanaz geroz, Konfesariak eman behar dio absolbizioa, eta barkazioa, bekatuen lokarriak askatzen diozkala, baldin baderitza, bekatuak egiñaz, damutua arkitzen dala bekataria; ezperez ukatu behar dio, ta loturik utzi behar du, len zegoan bezala, arekin batean Infernura joan nai ezpadu. Bekataria, bere bekatuaz ongi damaturik, ote dagoan, edo ez, ez da, bai da, dudan badago Konfesaria, luzatu behar dio aldi bateraño absolbizioa, egunen batzuen buruan biurtzeko, epea ematen diola. Behar dan bezala, artzen dan, absolbizioak kentzen diozka bekatariari bekatu guziak, diranak dirala. Txiki ariñak, erraz egiten diran, ta erraz barkatu ditezkean, benial, edo barkagarriak badira bekatuak; oek, konfesio gabe ere, barkatu ditezke, Orazioak, limosnak, eta beste onelako lan onak egiñaz. Baña, zenbat ere txikiak dirudien bekatu arin benialak, garbitu behar gera orientatik, eta begiratu behar gera berriz egitetik. Bekatu txiki oek dituela, Jainkoaren grazian iltzen diranak, eta

bekatu larri andien zor guzia pagatu gabe daudenak, oek, eta aek eramaten due, illezgeroz, Purgatorioko pena deritzan, neke-pen bat. Andik irteten dira, emen bizi geranok, aen alde egiten ditugun, orazio, ta lan onakatik; edo beinzat arintzen, ta gitxitzen zaizte ango nekeak. Orretarako dira, Eleizak, onelako orazio esaten duanari, edo alako lan on egiten duanari, batzuetan ematen diozkan, Induljenziak, edo barkamenak; bada gure egiñ-ahalak, bekatuzko zor guzia pagatzeko, diña ez diranean, Eleizak laguntzen digu, Jesu-Kristok utzi ziozkan, ondasun, irabazi, ta merezimenduak, Santuenakin batean guganatzen dituala.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Konfesariak, bere bekatuak esaten dituanari, eman behar dio absolbizioa?

E. Ez, egiazko damua duala, deritzanean baizik.

G. Zer gaitz egiten du Konfesariak, ongi begiratu gabe, absolbizioa ematen dionean, eman behar etzaionari?

E. Aren bekatu bera bere gañean artzea.

G. Bada Konfesio beharrik, bekatu txiki arin benialen barkatzeko?

E. Oriek, bestela ere barkatu ditezke.

G. Nola bada?

E. Orazioak esanaz, limosnak emanaz, ta lan onak egiñaz.

G. Zer da, *Garbitegia* esan nai duan, *Purgatorioa*?

E. Da, Jainkoari eren bekatuen zor guzia pagatu gabe, ill ziranak, beste Munduan darameen nekepena.

G. Zer zor dira oriek?

E. Edo dira bekatu benialak, edo osotoro pagatu gabe, gelditu ziran, beste bekatuen zorrak.

G. Nola arindu ahal ditzakegu Purgatorioko Animen nekeak?

E. Aekatik Jainkoa erregutuaz.

G. Zer da *Induljenzia*, edo barkamena?

E. Bekatuen zorraren alde egin behar ditugun, paguen utsak betetzeko, Eleizak egiten digun, grazia, eta mesedea.

XXVII. IRAKURTZA

AZKEN-OLIADURA

Azken-oliadura, edo Oleazio Santua da, eri gaxo, edo enfermoai, ongi illtzeko, grazia, ta laguntza ematen dien, Sakramentua. Barkatzen diozka eriarri, dituan, bekatu txikiak, oriez damutzen bazaio; eta sendatzen du, beste bekatuak erakarri dioen, argaltasunetik. Ematen dio asko indar, eriotzako horduan, beste denboraz baño, portitzago, ta gogaikarriago izan oi diran, etsaiaren tentamendu gaiztoak garaitzeko; ta eman ere badiozake eriarri, ongi badagoka, leneko bere osasuna. Sazerdoteak dira, Apezpikuak bedekaturikako olioarekin, Sakramentu hau ematen duenak, olio bedekatuarekin eria ganzutzen duela begietan, belarrietan, sudurretan, ahoan, eskuetan, oñetan, ta gerri-aldean, edo bekatu-bide guzietan, eta ganzutze bakoitzean eskatzen dioela Jainkoari, barka ditzaizkala eriarri, bere gorputzeko zati, edo parte bakoitzarekin egin dituan, bekatuak. Oleazioko Sakramentua artzeko dagoanak, Jainkoaren grazian egon behar du: ta illtzeko perill urkoan arkitzen diranenzat egiña bad-ere, obe da, azken-azkeneraño itxodon

gabe, eriarri, bere kordean, eta ezagueran dagoala, ematea.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zein da, Azken-oliadurako Sakramentuari dago-kan, grazia?

E. Ongi illtzeko grazia.

G. Zer bekatu dira, Sakramentu onek barkatzen dituanak?

E. Bekatu arin barkagarriak, edo benialak, ta beste bekaturen ondoreak, ta kutsuak.

G. Zer geiago egiten du?

E. Ematen dio eriarri, eriotzako horduan etorri oi diran, tentu gaiztoak garaitzeko, indarra.

G. Nor dira, Sakramentu hau eman behar duen, Ministroak?

E. Sazerdoteak.

G. Nori eman behar zaio?

E. Illtzeko perill urkoan dauden, eriai.

G. Ta orretarako itxodon behar da azkenetaraño?

E. Ez, lenagotik eman behar zaie, obeto jarririk, eta prestaturik artu dezen.

G. Zergatik egiten dira ganzuera asko?

E. Gorputzeko zati askorekin egiten diran, bekatuak adirazteagatik.

G. Zerekin egiten dira ganzuera oek?

E. Apezpiku Jaunak bedeikaturikako, olioarekin.

XXVIII. IRAKURTZA

ORDENA

Ordena da, Jesu-Kristok bere Eleiz Santuari, behar duan, guzirako Maisuak, Animako Gurasoak, Sendatzaileak, Juezak, ta gañerako Apaizak emateko, utzi zigun, Sakramentua. Joan ziran Mundutik gure Jaunen Apostolu, ta Diszipuluak, edo ikasleak; ordea Eliza betikoa da, ta, Munduak dirauen arteraño iraun-beherra, ta ezin dirauke langille, ta serbitzari gabe: orregatik bada Apostolu, ta Diszipuluen orde, behar ditu bere eginkizunetarako Gizon ordenduak. Ordentzen danak, artzen du, bere burua santutegiko grazia ezezen, baita besteai Sakramentuak, ta oen bidez grazi santugille bera emateko, eskua ere. Apezpikuak, edo Obispoak baizik, ezin eman ditzake bestek Konfirmazioko, ta Ordengo Sakramentuak. Sazerdoteak, edo Mez-emalleak dira Obispoari laguntzeko; ta Obispoari, ta Sazerdoteai heren Elizkizunetan laguntzeko, ta pobreen kontua idukitzeko, dira Sazerdoteen Apaizurrenak, Ebanjelariak, edo *Diakonoak* deriztenak. Orra Ordena nagusienak, ta gorenak: oek baño txikiagoak, eta beragoak dira beste bost. Lenengoa *Subdiakoa-*

noa, Diakonoaren azpikoa, edo urrena, ta Epistolaria. Bigarrena, *Akolitoak*, Meza-lagunzalleak, Obispoari jarraitzeko, ta Eleizan kandel-argiak, ta binajerak Mezara eramateko, egiñak. Irugarrena, *Irakurleak*, Profeziak Elizan irakurteko, diranak. Laugarrena *Exorzista*, edo Konjuratzalleak. Bostgarrena, *Ostiaroak*, edo Ate-zaiak, Elizako atearak, idiki behar zaiztenai, zabaltzeko, ta itxi behar zaiztenai, itxitzeko, kontua duenak. Orra andi, ta txiki, guzitara zazpi. Andienak dira Mez-emallearena (emen aditzen da Obispoarena) Ebanjelariarena, ta Epistolariarena: txikiagoak dira gañerako lauak. Ezin artu ditezke guziak batetan, ezpada banaka, ta bata bestearen ondoren, beetik asi, eta gorena dagoan, Sazerdoziora igotzen dala. Lenengo malla da buruko illea ebaki, ta koroa egitea; ez da ordea Ordena, baizik ordentzeko bidea, eta Apaiz-gai egiteko, ta Apazi-janzia ipintzeko, zeremonia santu bat. Eleiza serbitzatzen duenak, deitzen dira Apaizak, ta Eliz gizonak; ta, oez ateronzean, Kristau artean bizi diranak, Elizgeak, edo Legoak.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Zein da, Ordenako Sakramentuak ordentzen danari ematen dion, grazia?

E. Da, Sakramentuak emateko, ahal-eskua; ta Eleizakizunen bat agerrian egiteko, podorea.

G. Nor dira grazi hau osoa artzen duenak?

E. Obispoak.

G. Orrela oek eman ditzakee Sakramentu guziak?

E. Bai, ta Konfirmaziokoa, ta Ordenakoa ere.

G. Apezgoak, edo Sazerdoteak eman ditzakee Konfirmazioko, ta Ordenako Sakramentu oek biok?

E. Ez, oriek Apezpikuarentzat gordeak daude.

G. Zein da Diakoanoaren, edo Ebanjelariaren egitekkoa?

E. Obispoari, ta Mez-emalleari heren Elizkizunetan laguntzea.

G. Nola derizte beste Ordenai?

E. *Subdiakonoak*, edo Epistolariak; *Akolitoak*, edo Meza-lagunzalleak; *Irakurleak*; Konjuratzalleak, edo *Exorzistak*; *Ostiariorak*, edo Ate-zaiak.

G. Zenbat dira guzitara?

E. Zazpi.

G. Zein dira Sagraduak, edo nagusiak?

E. Mez-emallearena, Ebanjelariarena, ta Epistolariarena.

G. Ordendu diteke bat bertatik Mezaz, beste Ordenarik artu gabe?

E. Ez, lenago igaro behar du Ordena-malla guzietatik.

G. Zer gauza da, *Prima* esaten diogun ill-ebakitzea, edo ordendu behar duanari, buruan egiten zaion, Koroa?

E. Da Eliz janzia artzeko, Zeremonia Santu bat.

G. Eta zer egiten du Zeremonia onek?

E. Len Elizan egitekorik etzuan, gizona egiten du Eliz-gizon, ta Apaiz.

XXIX. IRAKURTZA

EZKONZA

Jainkoak lendabiziko gizona egin zuanean, eman zion lagunzat emakume bat; eta lenengo gizon-emakume biokgandik, nai izandu zuan, jaio zitezzen beste guziak, ta onela egin zuan Matrimonioa, edo Ezkonza. Lenbiziko gizonaren bekatuagandik zetorren, gaitzerako griña, ta makurrerak zikindu, ta itsusitu zuan ezkon-lana; baña Jesu-Kristok biurtu zuan, aurrenetik zuan, garbitasunera; eta len gizonaren, ta emakumearen arteko artu-eman bat baizik etzana, egin zuan Sakramentu, ezkonduenzat ematen ziozkala, zegozkan, grazi bereziak. Gizon bakar baten, ta emakume bakar baten arteko batasuna da bada, eriotzak ezpada, bestek askatu ezin dezakean, eta urratu ezin dezakean, ezkonz-lokarria. Ezkonduak ongi-nai behar dioe alkarri, anima birekin, gorputz bat baizik, ezpalira bezala; lagundu behar dioe alkarri bizitzako lan, ta neke guzietan; billatu behar due, jaiotzen zaizten, humeak azitzeko, behar duena; erakutsi behar die hitzez, ta bizitza onarekin, hume berak jakin behar duena; orrela oek aen ondoren lurraren gañean Jain-

koa serbitza dezaen ta gero Zeruan mendeen mende guzietan zorionekoak izan ditezen. Senar-emazteen arteko batasuna da Jesu-Kristoren, ta Eleizaren arteko batasunaren anz-iduri, ta imajiña. Baña Ezkontza txit santua, ta ona bad-ere; obeagoa da, ezkondu gabe, gorputz, ta anima osotoro garbi bizitzea. Ezkonduak, erdi bi egiñak bezala, daude Jainkoaren, eta munduaren bitartean; erdi bata Jainkoarenzat duela, ta beste erdia Munduarenzat, heren etheen, ta etxetiarren kontua iduki behar duenak bezala. Donzella garbi ezkondu gabea askatua, ta libre dago, bere buru osoa Jainkoari emateko. Baña biziera garbi hau ez da guzientzat egiña; da alabaña, Jainkoak, nai duanari, ematen diona.

Galdeak, ta Eranzuak

G. Nork egin zuan Matrimoniao?

E. Jainko berak Munduaren asieran.

G. Eta nork biurtu zuan bere anziñako garbitasunera?

E. Sakramentu izatera, goratu zuan, Jesu-Kristok.

G. Zer adirazitzen du Matrimonioak?

E. Jesu-Kristok bere Elizarekin duan, batasuna.

G. Zein da, Sakramentu oni dagokan, grazi berezia?

E. Senar-emazteak, gorputz bat baizik, ezpalira bezala, alkar onetsitzeko, ta maitatzeko, ematen duan, grazia.

G. Eta zer dator gero Senar-emazteak alkarri zor dioen, amorio maitanzatik?

E. Alkarri neke, premia, ta behar guzietan laguntzea.

G. Zer da heren humeen alderako egin behar duena?

E. Ardura, arreta, edo kuido andi bat idukitzea, ta Jainkoaren bildurrean azitzea.

G. Ezkonduen biziera baño beste bizi-bide obeagoren bat Zerurako ote da?

E. Bai baldin bere: eta da, ezkondu gabe, ta aragizko lanetan, gorputzez, edo gogoz bat-ere kutsutu gabe, bizitzea.

G. Zergatik bada da obea onelako bizitza?

E. Zeren onela bizi dana, Jainkoa serbitzatzeko, libreagoa, eta askatuagoa dagoan.

G. Eta guziak bizi ditezke onela?

E. Iñola ere: Jainkoak, nai duanari, ematen dion, doia da alabaña bizitz ain garbia.